

EUSKADIKO GORROTO- GERTAKARIEI BURUZKO 2019ko TXOSTENA

Police
Human rights
Ertzaintza
Violence
Hate crime
Identity
Hate speech
Reporting
Victimization
Minorities
LGBTBI Law
Crime data
Incident
Bias
Racism
Disability
Offender
Hatred
Disrupting
Hurt

EUSKADIKO GORROTO-GERTAKARIEI BURUZKO 2019ko TXOSTENA

***Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedra
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
(UPV/EHU)***

Zuzendaritza eta Koordinazioa

Jon-Mirena LANDA GOROSTIZA Irak. Dk. (Zuz.)

Enara GARRO CARRERA Irak. Dk. (Koord.)

Lantaldea:

Mikel ANDEREZ BELATEGI

Bertha GAZTELUMENDI CABALLERO

Iñigo GORDON BENITO

Uxue MARTÍN SILVA

Lore MENDIZABAL ZUBIAURRE

***Segurtasun Saila
Eusko Jaurlaritza***

***Vitoria-Gasteiz/Leioa,
2020ko martxoa***



2.2.4. Gorroto-gertakariak (2018/19)	78
2.2.5. Beste datu-iturri ofizial batzuk: Fiskaltza (<i>Public Prosecution Service for Northern Ireland</i>) eta emandako kondena-epaiak.	82
2.3. Ondorioak	84
3. GENERO-ARRAZOIENGATIKO GORROTO-DELITUAK ETA GENERO-INDARKERIA	88
3.1. Sarrera.....	88
3.2. Genero-indarkeria zigor-legerian	89
3.2.1. Genero-indarkeriaren kontzeptua zigor-legerian.....	89
3.2.2. Genero-indarkeriako delituak.....	92
3.2.3. Genero-indarkeriako delituak aplikatzeko betekizun orokorrak, egungo jurisprudentziaren arabera	99
3.3. Genero-arrazoiengatiko gorroto-delituak.....	103
3.4. Genero-indarkeria autonomia-eremuan arautzea	107
3.5. Ondorioak	110
4. AZKEN SINTEsia ETA ONDORIOAK	113
BIBLIOGRAFIA	115
ERABILITAKO JURISPRUDENTZIA	118
IRUDIEN AURKIBIDEA.....	120
I. ERANSKINA: PRENTSAN AGERTUTAKO KASU NABARMENAK 2019an.....	122
II. ERANSKINA EAEko FISKAL NAGUSIAREN ETA ESTATUKO FISKALTZA OROKORRAREN 2019 URTEKO MEMORIEN LABURPENA (2018ko EKITALDIA).....	179

LABURDURAK

ACPOS	<i>Association of Chief Police Officers in Scotland</i>
AGE	Auzitegi Gorenaren Epaia (Espainia)
AGIFUGI	Asociación Gitana por el Futuro de Gipuzkoa
APNI	<i>Alliance Party</i> (Ipar Irlanda)
art.	Artikulu(k)
CCOO	Comisiones Obreras
CDA	<i>Crime and Disorder Act 1998</i> (Erresuma Batua)
CEAR	Comisión Española de Ayuda al Refugiado
CHS	<i>Criminal History System</i> (Eskozia)
CITE	Centro de Información al Trabajador Extranjero
CJNIO	<i>Criminal Justice (No. 2) (Northern Ireland) Order 2004</i> (Ipar Irlanda)
CJSA	<i>Criminal Justice (Scotland) Act 2003</i> (Eskozia)
CLCS	<i>Criminal Law (Consolidation) (Scotland) Act 1995</i> (Eskozia)
CMS	<i>Crime Management System</i> (Eskozia)
COPFS	<i>Crown Office and Procurator Fiscal Service</i> (Eskozia)
CRMS	<i>Contact Record Management System</i> (Ipar Irlanda)
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EAO	Estatuko Aldizkari Ofiziala
ICIS	<i>Integrated Crime Information System</i> (Ipar Irlanda)
INE	Instituto Nacional de Estadística (Espainia)
IVPD	<i>Interim Vulnerable Persons Database</i> (Eskozia)
JANI	<i>Justice Act (Northern Ireland) 2011</i> (Ipar Irlanda)
LGTB(I)	Lesbiana, Gay, Transexual, Bisexual eta Intersexualak
LO	Lege Organikoa
M	Milioiak
n	Kasu kopurua
NIHRC	<i>Northern Ireland Human Rights Commission</i>
or.	Orrialdea(k)
OAPSA	<i>Offences (Aggravation by Prejudice) (Scotland) Act 2009</i>
OBFTCSA	<i>Offensive Behaviour at Football and Threatening Communications (Scotland) Act 2012</i>
OCMT	<i>Occurrence & Case Management Teams</i> (Ipar Irlanda)
PKL	Prozedura Kriminaleko Legea
POA	<i>Public Order Act 1986</i> (Erresuma Batua)
PONIO	<i>Public Order (Northern Ireland) Order 1987</i>
PPS	<i>Public Prosecution Service for Northern Ireland</i>
Rec.	Errekurtsoa
RJ	Aranzadi Jurisprudentzia Biltegia
SCRS	<i>Scottish Crime Recording Standard</i>
STC	Sentencia del Tribunal Constitucional (Espainia)
STS	Sentencia del Tribunal Supremo (Espainia)
STORM	<i>System for Tasking and Operational Resource Management</i> (Eskozia)
UUP	Ulsterreko Alderdi Unionista
ZK	Zigor Kodea
Zuz.	Zuzendaria(k)

2018ko ekainaren 4an Eusko Legebiltzarrean (Erakunde, Segurtasun eta Gobernantza Publikoko Batzordea) 2017ko gorroto gertakariei buruzko lehen txostena aurkeztu zenetik, eta, era berean, urtero jarraitasuna emateko konpromisoa eta komenigarritasuna berretsi zirenetik (dagokion hitzarmenaren¹ bidez ondoren gauzatua), 2019 urteari dagokion dokumentu hau jarraian egiten den hirugarren urtea da.

Txostenaren helburua da, lehenik eta behin, gorroto-kriminalitatea epe ertain eta luzean hobeto ezagutzea, prebenitzea eta modu eraginkorragoan desagerraraztea. Gainera, bigarrenik, operadore juridikoekiko koordinazioa erraztu nahi da, bai eta Txostena elementu lagungarri bihur dadin sustatu gorroto-delituekin lotutako lan-esperientzia nazioarteko instantzietara eramateko.

Euskadiko Gorroto Gertakarien Hirugarren Txosten hau, beraz, **2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra** arteko aldiari dagokio, eta, bere aurrekarien gisa, bai delitu izan daitezkeen gertakariak bai arau-hauste administratiboak izan daitezkeenak eta beren izaera eta inguruabarrengatik Ertzaintzari (Ertzaintza) jakinarazi zitzaizkionak hartzen ditu kontuan.

Hala ere, *2019ko Txostenaren* egituran, urtez urteko atal iraunkorrez gain, zenbait berrikuntza daude.

Dagoeneko finkatuta dauden atalei dagokienez, **txostenaren egiturak**, sarrera honen ondoren, 2019ko gorroto-gertakariei buruzko informazioa eta analisisia islatzen ditu (lehen puntua); bai eta azterlan konparatu bat (bigarren puntua). Berria da aurten azken bloke hori Eskoziari eta Ipar Irlandari eskaini izana. Aurreko urteko Txostenak (2018) gure kultura juridikoaren eremuko herrialde garrantzitsuenen (Alemania, Frantzia, Erresuma Batua – Ingalaterra eta Gales –) errepassoa egin ondoren, komenigarria zirudien begirada zabaltzen jarrai dezaketen bi esperientzia “federaltara” txertatzea. Eskozia,

¹ 2018ko abenduaren 26ko bilkuran, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Ertzaintza) eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetzeta-hitzarmena onartu zuen, Segurtasun Saila (Ertzaintza) eta Giza Eskubide eta Botere Publikoen UNESCO Katedraren bidez, Euskadin izaten diren gorroto-delituei buruzko urteko txostena egiteko eta Europarekin konparatzeko.



bere egoera sozio-ekonomikoagatik, Ipar Irlanda, bere populazio bolumenagatik, eta biak Erresuma Batuaren barruko bilketa enpirikoaren sisteman duten eraginkortasun eta sendotasunagatik, erreferentzia puntu egokiak ziruditen txostena aberasteko.

3. atala ere berritzailea da, azaleratzen ari den eta garrantzi handiena duen gai bati buruzkoa baita: generoarengatiko gorroto-delituak. Emakumearen aurkako indarkeriaren aurreko babesari beste arau batzuetara metatzen den gorroto-araudiak zer berrikuntza ekar ditzakeen argitzen saiatzea da helburua. Jurisprudentzia duela gutxi baino ez da gai hau lantzen hasi, eta oraindik ez dago oso finkatuta argitzea premiazkoa den arren, etorkizunean aplikatzeko eta funtzionaltasuna ikusteko.

Amaitzeko, Txostena sintesiaren eta ondorioen azken blokearekin ixten da, instrumentalagoak (bibliografia, irudien aurkibidea) eta informatzaileagoak (I. eta II. eranskinak: prentsan nabarmendutako kasuak; Euskadiko Fiskal Nagusiaren eta Estatuko Fiskaltza Nagusiaren memorien laburpena, hurrenez hurren) diren atalek jarraitzen diotelarik. Azpimarratu behar da, halaber, prentsa-eranskinari dagokionez, haren izaerari buruzko informazio-sarrera bat sartu dela aurten, okerrak saihesteko.

1. GORROTO GERTAKARIAK 2019

2019an 115 gorroto-gertakari erregistratu dira Euskadin²; zeinetatik 105 delituak diren (%91,3) eta 10 arau-hauste administratiboak (%8,7). Ondorengo grafikoek³ azken 4 urteetako gorroto-gertakarien eta gorroto-delituen bilakaera erakusten dute, hurrenez hurren.




² Txosten honetan jasotako gertakariak 2019an erregistratutako gertakariak dira, alde batera utzita urte horretan gertatu diren ala ez. Izan ere, 5 delitu aurreko hiru urteetan burutu ziren (1 2016an, 1 2017an eta 3 2018an).

³ Hutsen zerrenda: jasota geratu da 2017an 141 gertakari gertatu zirela, eta ez 143, Euskadiko gorroto-gertakarien 2017ko txostenean eta Euskadiko gorroto-istiluen 2018ko txostenean jaso zen bezala.

1.1. GORROTO GERTAKARIEN BANAKETA

Jarraian ikus daitekeenez, izaera arrazista edo xenofoboa duten delituek, aurreko urteetan bezala, erregistratutako delitu gehienak biltzen dituzte ($n=55$; %52,4), nahiz eta aurreko urtean baino gutxiago izan. Horien atzetik datoz ideologia eta orientazio politikoaren aurkako delituak ($n=18$; %17,1, aurreko urteko kopuruaren ia berdina) eta sexu-orientazioaren eta -identitatearen aurkakoak ($n=13$; %12,4, aurreko urtean baino nabarmen gutxiago). Bestalde, dibertsitate funtzionala ($n=6$), sinesmen eta praktika erlijiosoak ($n=7$), aporofobia ($n=3$) eta sexua ($n=3$) erregistratutako delituen %18,1 osatzen dute, aurreko urteko kopuruaren oso antzekoak direnak. Sexu kolektiboari dagokionez, zehaztu behar da 2019a dela aldagai hori modu autonomoan jasotzen den lehena; ondorioz, ezin da haren bilakaera islatu.


DELITUAK BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2019, N = 105)



	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	BESTE PROBINTZIAK ⁴	TOTALA	+ - (2018)	%
APOROFOBIA	1	1	1	-	3	1	%33
SEXUA	-	1	2	-	3	-	0
DIBERTSITATE FUNTZIONALA	2	1	3	-	6	3	%50
ERLUIJOA ETA SINESMENAK	1	4	2	-	7	0	0
SEXU-ORIENTAZIO/IDENTITATEA	2	7	3	1	13	-26	-%66,67
IDEOLOGIA/ORIENTAZIO POLITIKOA	6	6	1	5	18	1	%5,88
ARRAZISMOA/XENOFobia	6	36	11	3	55	-7	-%11,29
TOTALA	17	56	23	9	105	-25	-%19,23


⁴“Beste probintziak” izenak Ertzaintzak identifikatu ezin izan dituen delituei egiten die erreferentzia. Delitu hauetatik gehienak Internet bidez burutu dira.

DELITUAK BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2016 - 2019)



Arrazismo eta xenofobiako delituei buruzko datuei erreparatuz gero, honako kolektibo hauetan bana daitezke: Arabiarra ($n = 7$; %12,73), Asiarra ($n=2$; %3,64), Ijitoa ($n=1$; %1,82), Beltza ($n=17$; %30,91), Latinoa/Latinoamerikarra ($n=14$; %25,45), Zehaztu gabe ($n=14$; %25,45).

ARRAZISMO - XENOFOBIAKO DELITUAK KOLEKTIBOAREN ARABERA (2019, N = 55)




1.1.1. Gorroto delituen sailkapena delitu-tipologiaren arabera


Delitu-tipologia nagusienei dagokienez, hurrengo grafikoak erakusten du mehatxuak (21 kasu), lesioak (20 kasu), gorroto-diskurtsoa (20 kasu) eta tratu apalesgarria (16 kasu) gailentzen direla. Lehen hiru delitu-tipologiei dagokienez, deigarria da aurreko urteetan zuten prebalentzia argia galdu izana, 2018an gorroto-maparen bi heren izatetik (% 68,4) haren erdia baino gehiago izatera igaro baitira (% 58). Bestalde, aurreko urteetan bezala, gorroto-diskurtso gisa kalifikatutako egintzak erreserbekin hartu behar dira kontuan, izan ohi duten ibilbide judicial motza dela eta. Honetaz gain, nabarmentzekoa da sexu-jazarpeneko delitu 1 eta sekretuak ezagutarazi edo agerrarazteko 2 kasu egon izana.

- **Sexu-jazarpena:** 184. artikulua ZK.
- **Mehatxuak:** 169., 170. eta 171. artikulua ZK.
- **Kalumniak:** 206. artikulua ZK.
- **Derrigortzeak:** 172. artikulua ZK.
- **Kalteak:** 263. eta 266. artikulua ZK.
- **Sekretuak ezagutarazi eta agerraraztea:** 197. artikulua ZK.
- **Gorroto-diskurtsoa:** 510. artikulua ZK.
- **Ebasketa:** 234. artikulua ZK.
- **Irainak:** 209. artikulua ZK.
- **Lesioak:** 147. eta 153. artikulua ZK.
- **Agintaritzaren aurkako jarkitzea edo atentatua:** 550. artikulua ZK.
- **Armak edukitzea:** 563. artikulua ZK.
- **Tratu-apalesgarria:** 173. artikulua ZK.

DELITU-TIPOLOGIAK (2019, N = 105)




Hurrengo grafikoak delitu-tipologiaren bilakaera erakusten du, 2016tik gaur egun arte⁵. Bertan ikus daitekeenez, delitu-tipologia batzuek egonkortasunera jotzen duten bitartean (agintaritzaren aurkako erresistentzia/ atentatua kasu), delitu-tipologia gehienek gorabehera handiak aurkezten dituzte. Hori da lesioen kasua, 2017an nabarmen handitu eta 2018an mantendu ondoren, 2019an jaitsiera handia izan baitute.



Ondoren, delitu-tipologia nagusiak, hau da, mehatxuak, gorroto-diskurtsoa, lesioak eta tratu apalesgarria, kolektiboekin konbinatu dira, kolektibo jakin batzuek delitu-mota jakin batzuk jasateko joera handiagoa duten ala ez jakiteko. Datuek erakusten dute arraza-kolektiboa dela mota horretako delituak gehien pairatzen dituenena, batez ere lesioen, gorroto-diskurtsoen eta mehatxuen biktima izanik. Era berean, azpimarratzekoa da ideologia eta orientazio-politikoak mehatxu gehien jasaten duen bigarren kolektiboa dela. Sexu-orientazio eta -identitatearen kasuan, aldiz, deigarria da kolektibo horren aurkako mehatxurik ez egotea.

⁵ Grafikoan urteetan zehar jarraitutasuna izan duten delitu-tipologiak bakarrik islatu dira, hots, aztertutako urte guztietan agertu diren tipologiak, urte batean edo bitan bakarrik agertzen zirenak alde batera utzita.


DELITU-TIPOLOGIAK BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2019)



1.1.2. Gorroto delituen banaketa espaziala.


105 delituak lurralde historikoetan zehar banatzeko moduari dagokionez, ondorengo grafikoak erakusten du Bizkaiak gorroto-delituen erdiak baino gehiago kontzentratzen dituela ($n=56$). Gipuzkoak, berriz, delituen bosten bat biltzen du ($n=23$), eta Arabak zazpiren bat baino gehixeago ($n=17$). Halaber, 9 kasutan ezin izan da agertokiaren lurralde historikoa identifikatu.

DELITUAK LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (2019, N = 105)



Segidan, gorroto-delituen banaketa aurkezten da udalerrri-mailan. Laugarren urtez jarraian, probintzia-hiriburuak nabarmentzen dira: Bilbo ($n=29$), Donostia ($n=11$) eta Gasteiz ($n=12$). Huetaz gain, udalerrri hauek nabarmentzen dira: Getxo ($n=5$), Bizkaian, eta Irun ($n=4$), Gipuzkoan.


DELITUAK UDALERRI MAILAN (2019, N = 105)



Arrazismo/xenofobiako 55 delituen lurralde-banaketa banakatzen bada, ikusten da, aurreko urteetan bezala, Bizkaiak laugarren urtez jarraian kasu gehienak pilatzen jarraitzen dituela, erregistratutako 55 kasuetatik 36rekin (%65,45); Gipuzkoan erregistratutako kasuak, berriz, nabarmen murriztu dira, 11 kasurekin (%20), 2018ko datuekiko erdia. Araban, bere aldetik, 5 kasu erregistratu dira (%9,1), aurreko urteko ia kopuru bera. Bestalde, hiru delitu erregistratu dira zeinetan burutu den lurraldea ez da identifikatu⁶.

⁶ Arrazismo/xenofobiako 3 delitu hauetatik, 2 Interneten burutuak izan ziren (hortik lurraldea identifikatzeko ezintasuna) eta gainerako kanpin batean.


ARRAZISMO - XENOFOBIA LURRALDE HISTORIKO ETA ETNIAREN ARABERA (2019, N = 55)



Ideologia edota orientazio-politikoaren aurka Ertzaintzak erregistratutako 18 delituei dagokienez, 6 Araban gertatu ziren, 6 Bizkaian, 1 Gipuzkoan eta 5 ezin izan ziren aurkitu. Biktimaren sexu-orientazioan eta -identitatean oinarrituta egindako 13 delituei dagokienez, 2 Araban burutu ziren, 7 Bizkaian, 3 Gipuzkoan eta 1 ez da aurkitu. Erlijio-sinesmen eta -praktikei dagokienez, Ertzaintzak 7 kasu ezagutu ditu, 5 Bizkaian eta 2 Gipuzkoan; horietatik 2 erlijio kristauko pertsonen aurkakoak izan ziren, 3 erlijio musulmaneko pertsonen aurkakoak, eta 2 ez dira identifikatu. Honetaz aparte, dibertsitate funtzionalagatiko 6 kasu identifikatu dira: 2 Araban, 1 Bizkaian eta 3 Gipuzkoan. Azkenik, aporofobiagatiko 3 gorroto-delitu erregistratu dira, 1 lurralde historiko bakoitzean, eta sexuaren araberako 3 delitu, 1 Bizkaian eta 2 Gipuzkoan.

Azkenik, ondorengo grafikoan gorroto-delituaren banaketa ere aztertu da, delitua burutu den lekuaren arabera. Ikus daitekeenez, hiri bide publikoek komisio-lekuen herena osatzen dute, zehazki, %32,38. Etxebizitzak⁷, aldiz, agertokiaren %18,1 dira, aurreko urtean baino kopuru txikiagoa. Ostalaritzako eta aisialdiko lokalek, aldiz, igoera nabarmena izan dute, agerlekuetako hirugarren postuan kokatu arte (%15,24). Ere horietan gorroto-delituak kontzentratzeari buruzko azalpen posible bat biktimen ohiko jardueretan aurki daiteke; beste hitzetan, biktimek beren eguneroko bizitzan gehien erabiltzen dituzten tokiak, hala nola beren etxetik gertu daudenak, gorroto-delituaren agertoki izateko probabilitate handiagoa izan dezakete⁸.

DELITUAK LEKUAREN ARABERA (2019, N = 105)




Agerleku ohikoenei buruzko datuak soilik kontuan hartzen badira, hots, hiri bide publikoari eta etxebizitzari buruzkoak, ondorioztatzen da bi toki horietan gorroto-delitu

⁷ "Etxebizitza" terminoa zentzu zabalean ulertu behar da, etxebizitza bera eta eraikinaren ataria hartzen baititu kontuan. Kasu honetan, erasotzaile ohikoenak bizilagunak dira (%37). Era berean, nabarmenezkoa da biktimaren sexu-orientazioan oinarritutako hiru gorroto-delituaren (%16) erasotzaileak biktimaren senideak izatea, batez ere gurasoak. Bestalde, gertakari batean erasotzailea biktimaren zaintzailea zela, eta, beste batean, errentaria. Gainerako kasuetan (%37) ez dago biktimaren eta erasotzailearen arteko harremana ezagutzeko datu nahikorik.

⁸ MCNEELEY, S./OVERSTREET, S. M., "Lifestyle-routine activities, neighborhood context, and ethnic hate crime victimization", *Violence and Victims*, Vol. 33, 2018, 932-948 or.

ohikoenak arrazistak eta xenofoboak direla (%55,9 hiri bide publikoaren kasuan eta %52,6 etxebizitzan kasuan).

ETXEBIZITZAN ETA HIRI BIDE PUBLIKOAN GERTATURIKO DELITUAK BABESTUTAKO KOLEKTIBOREN ARABERA (2019, N = 53)




Internet bidez burututako 6 delituei dagokienez, 4 (%67) biktimaren ideologia eta orientazio-politikoan oinarrituta burutu ziren; gainerako 2 kasuak (%33), berriz, arrazakeria/xenofobia delituak izan ziren.

1.1.3. Gorroto delituen denbora-banaketa


Jarraian, delituen banaketa hilero, astero eta orduaren arabera aurkezten da, hurrenez hurren. Lehenik eta behin, gorroto delitu gehien maiatzean (% 14,39), uztailean (% 12,38), urtarrilean eta abuztuan (%9,52) gertatu direla esan daiteke.

DELITUAK HILABETEAREN ARABERA (2019, N = 105)




Bigarrenik, asteko egunaren arabera banaketari buruzko datuek adierazten dute gorroto delitu gehienak asteburuan izaten direla: ostiralean (%19), larunbatean (%21,9) eta igandean (%21,9). Horren arrazoia izan daiteke egun horietan jendeak askoz denbora gehiago igarotzen duela etxetik kanpo eta aisialdi-lekuetan, eta horrek areagotu egiten dituela biktimak eta erasotzaile potentzialak topo egiteko aukerak.

DELITUAK ASTEKO EGUNAREN ARABERA (2019, N = 105)



Hirugarrenik, ordu-banaketari dagokionez, gorroto delitu gehienak arratsalde eta gaua artean burutzen dira (%60,9). Eraitza horren azalpena asteko egunaren araberako banaketaren kasuaren berdina izan liteke; izan ere, arratsaldean eta gauean izaten da pertsonen bolumen edo mugimendu handiagoa kalean, zeinak lanetik itzultzen edo aisialdiko hainbat jarduerara egiten ari dira (adibidez, tabernak eta merkataritza-zentroak bisitatzen, kirol-jarduerak egiten, etab.), eta horrek biktimen eta erasotzaile potentzialen arteko topaketa eta balizko gatazka erraztu dezake.




1.2. EGOZPENEN BANAKETA⁹

Egotzietatik dagokienez¹⁰, hurrengo grafikoan ikus daitezke ia guztiak espainiarrak direla (%83,2): 107 egotzietatik 89 dira, eta horietatik 69 Euskadikoak dira (%77,5). Gainerako ikertuak, 18, atzerritarrak dira (%16,8), gehienak Afrikakoak (%50) eta Latinoamerikakoak (%38,89) dira.

⁹ Egotziak -edo ikertuak 13/2005 LOK LeCrim erreformatu ondoren-, delitu baten burutzea egotzi zaien pertsonak dira, eta zeinen kontra Ertzaintzak polizia-eginbideak hasi dituen.


¹⁰ Aurkezten diren zifrak Ertzaintzak identifikatu zituen egotzietatik dagozkie. Kontuan izan behar da 105 delituetatik 19an erasotzailea ezin izan zela identifikatu, eta, beraz, ez zela egotzi edo atxilotu gisa sailkatu. Era berean, kasu askotan egotzi/atxilotu bat baino gehiago egon da delitu bakoitzeko.

JATORRIKO HERRIALDEA (2019, N = 107)




Espainiako Estatuko jatorriko probintziari dagokionez, Bizkaitik etorritako egotzien kopuruak gorakada nabarmena izan du, totalaren ia herena, 34 egotzi – EAetik etorritako 69etatik (%38,2). Antzeko zerbait gertatu da Gipuzkoan, lurralde historiko horretatik etorritako egotzien kopurua guztizkoaren laurdena izan baita (%26,07). Hala ere, igoera nabarmenena Araban izan da, 2018an egotzi 1 izatetik 2019an 11 izatera igaro baita (%12,36).

EGOTZIAK JATORRIKO LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (2019, N = 89)




Ondoren, udalerrri mailako egozpenen banaketa erakusten da, non, laugarren urtez jarraian, bereziki lurralde historikoetako hiriburuak nabarmentzen diren: Bilbo $n=10$, Donostia-San Sebastián $n=10$, eta Vitoria-Gasteiz $n=7$ eta Bizkaiko herri nagusietako bi, hau da, Barakaldo $n=10$ eta Gernika-Lumo $n=4$.

EGOTZIAK JATORRIKO UDALERRIAREN ARABERA EUSKADIN (2019, N = 69)




Sexuaren araberako banaketari dagokionez, hurrengo grafikoan 2019an 38 emakume (%35,51) eta 69 gizon (%64,49) egotzi zirela ikus daiteke. Nabarmentzekoa da egotzitako emakumeen ehunekoa aurreko hiru urteetako baino dezente handiagoa dela, urte horietan %30etik oso behera baitzegoen.

EGOTZIAK SEXUAREN ARABERA (2019, N = 107)




Egotzien adinari dagokionez, batez besteko adina 36 urtekoa da, eta adin tartea 9 eta 86 urte bitartekoa. Halaber, 2018an ez bezala, egotziak modu homogeneoago batean banatzen dira honako tarte hauetan: <18 urte (%18,69), 18-29 urte (%17,76), 30-39 urte (%20,56), 40-49 urte (%19,63) eta 50-59 urte (%14,95). Gainerako tarteei dagokienez, 60 urtetik gorakoak gainerako %8,4 dira. Honetaz gain, azpimarratu behar da <18 urteko tarteak ia hirukoiztu egin dituela bere zifrak aurreko urtearekin alderatuta: 2018an 3 egotzi ziren, eta 2019an 20.

EGOTZIAK ADIN-TARTEAREN ARABERA (2019, N = 107)




Hala ere, datu horiek sexuaren arabera banakatzen baditugu, ikus dezakegu gizonak direla nagusi 2 adin-tarte txikienetan.

EGOTZIAK ADIN-TARTEAREN ETA SEXUAREN ARABERA (2019, N = 107)



Hurrengo grafikoan ikus dezakegu ere egozpen gehienak arrazakeriaren eremuan egin direla ($n=55$, %51,4), ondoren biktimaren sexu-orientazio eta identitateagatik egindako gorroto-delituak ($n=16$, %14,95), dibertsitate funtzionalagatik burututakoak ($n=12$, %11,21), haren sinesmenak eta praktika erlijiosoengatikoak ($n=9$, %8,41), haren ideologia edo orientazio politikoarengatikoak ($n=6$, %5,61), aporofiarengatikoak ($n=6$, %5,61), eta sexuarengatikoak jarraitzen diotelarik ($n=3$, %2,8).


EGOTZIAK BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2019, N = 107)



Azkenik, egotzien banaketari dagokienez delitu-tipologiaren arabera¹¹, deigarria da egozpen gehienak tratu apalesgarriarekin lotuta gertatu izana (%27,1), gorroto-diskurtsoa (%21,5) eta lesioek (%19,63) jarraitzen dioten bitartean. Aldiz, mehatxu-delituetan oinarrituta egindako egozpenen kopurua askoz txikiagoa da (%13,08), nahiz eta tipologiarik ugariena izan.

¹¹ Erasotzaile kopuruari buruzko ikuspegi orokorra izateko delitu-tipologiaren arabera, beharrezkoa da atxilotutako pertsonen buruzko grafikoa ere kontuan hartzea.


EGOTZIAK DELITU-TIPOLOGIAREN ARABERA (2019, N = 107)




1.3. ATXILOKETEN BANAKETA

2019an, Ertzaintzak 8 pertsona atxilotu zituen, aurreko urtean baino askoz gutxiago. Segidan, atxilotuen jatorria aztertzen da. Kopuruek homogeneotasun handiagoa erakusten dute, atxilotu guztiak espainiarrak baitziren, eta horietatik %75 EAEkoak. Euskal jatorriko atxilotuen erdiak Bizkaitik datoz (%50), bereziki biztanle gehien dituzten udalerrietako bitik: Bilbo ($n=2$, %33,33) eta Barakaldo ($n=1$, %16,67); gainerakoak, berriz, Tolosatik ($n=2$, %33,33) eta Vitoria-Gasteiztik ($n=1$, %16,67) datoz.

ATXILOTUAK JATORRIKO LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (2019, N = 8)




ATXILOTUAK JATORRIKO UDALERRIAREN ARABERA EUSKADIN (2019, N = 6)




Ezaugarri demografikoei erreparatuz, nabarmentzekoa da atxilotu guztiak gizonezkoak izan zirela, 2018an bezala. Batez besteko adina 40 urtekoa da, eta adin-tartea 17 eta 74 urte bitartekoa. Adin-tarteen banaketari dagokionez, ondorengo grafikoak erakusten du 18 eta 29 urte bitarteko atxilotuak (%37,5) gailentzen direla, nahiz eta gutxigatik izan, baina 2018an baino neurri txikiagoan. Gainerako atxilotuei dagokienez, adin-tarte hauetan banatzen dira: 18 urtetik beherakoak (%12,5), 40-49 urtekoak (%25) eta 70-79 urtekoak (%25). Nabarmentzekoa da azken adin-tarte hori ez zela lehenago agertu atxilotuei dagokienez.

ATXILOTUAK ADIN-TARTEAREN ARABERA (2019, N = 8)




Segidan, atxiloketa gehien zein kategoriatan izan diren aztertuz gero, ikusten da atxiloketen erdiak arrazakeriaren esparruan izan direla (%50) eta beste erdiak orientazio politikoaren esparruan (%50).

ATXILOTUAK BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2019, N = 8)



Azkenik, atxilotuak delitu-tipologiaren arabera nola banatzen diren aztertuz gero, hurrengo grafikoaren arabera mehatxuak (%37,5) eta agintaritzaren aurkako erresistentzia/atentatua (%25) nabarmentzen dira, zeinak pertsona gehiago atxilotzeko erabilitako tipologiak diren. Bereziki deigarria da agintaritzaren aurkako erresistentzia/atentatuaren kasua, kontuan hartuta mota horretako 3 gertakari baino ez direla izan. Nabarmentzekoa da, halaber, lesioengatik ez dela inor atxilotu, delitu-tipologiarik nagusienetako bat izan arren.

ATXILOTUAK DELITU-TIPOLOGIAREN ARABERA (2019, N = 8)




1.4. BIKTIMIZAZIOEN BANAKETA¹²

Biktimen %55,17 espainiarrak dira (145 kasutik 80), eta horietatik gehienak, ia %78,75, Euskadikoak dira (63 kasu). Bestalde, atzerritarren biktimak gainerako erdia baino gutxiago dira (%44,83 inguru, 65 kasu). Azken horiei dagokienez, Latinoamerikatik eta Afrikatik etorritako biktimak dira ugariak (biktimen %19,3 eta

¹² Kasu honetan, ikertuen eta atxilotuen kasuan gertatzen zen bezala, biktimizazioen kopurua ez dator bat gorroto delituen benetako kopuruarekin, hainbat arrazoi direla medio. Alde batetik, 5 kasutan ezin izan zen biktima zehatza identifikatu. Bestetik, gertakarietako batzuek biktima zuzen bat baino gehiago izan zuten.


%17,2, hurrenez hurren). Afrikari dagokionez, azpimarratzekoa da marokoar jatorriko biktimen presentzia nabarmena, gorroto-delituen biktimen %9 baitira.

BIKTIMAK JATORRIKO HERRIALDEAREN ARABERA (2019, N = 145)




Ondoren, biktimen banaketa aztertzen da jatorrizko lurralde historikoaren arabera. Datuek erakusten dute Bizkaiak biltzen dituela biktimizazio gehienak ($n=36$). Gainerakoak, aldiz, modu antzekoan banatzen dira Gipuzkoan ($n= 3$), Araban ($n=14$) eta Estatuko gainerako probintzietan ($n=17$). Datuak udalerrri-mailan banakaturaz gero, ikus daiteke laugarren urtez jarraian Bilbo eta Barakaldo nabarmentzen direla (17 eta 7 kasu, hurrenez hurren), 2018koen ia kopuru berdinekin. Hala ere, aurtan nabarmen gailentzen dira gainerako probintzia-hiriburuak (Donostia-San Sebastián, $n=7$; eta Vitoria-Gasteiz, $n=7$).

**BIKTIMAK JATORRIKO
LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (2019, N = 80)**




BIKTIMAK JATORRIKO UDALERRIAREN ARABERA EUSKADIN (2019, N = 63)




Jarraian, biktimen sexuari erreparatzen badiogu, ikusten dugu biktima gehienak gizonak direla ($n=102$). Emakumeen ehunekoa, aldiz, aurreko urtekoa baino dezente txikiagoa da ($n=43$).

BIKTIMAK SEXUAREN ARABERA (2019, N = 145)




Biktimen ezaugarri demografikoei arreta jarritz gero, batez besteko adina aurreko urtekoaren berdina da, 34,8 urte, eta adin-tartea 8 eta 80 urte artekoa da. Zehazki, biktima gehienak adin-tarte hauetan biltzen dira: 18-29 urte (%29,7), 30-39 urte (%25,5), eta 40-49 urte (%22,1). Gainerako adin-tarteei dagokienez, 50 eta 59 urte bitarteko adin-tarteak kasuen %11,7a biltzen du, eta adingabeenak, berriz, %8,9a. Azkenik, zahartzaroaren kategoriak (>60) gainerako %2,1a osatzen du.

BIKTIMAK ADIN-TARTEAREN ARABERA (2019, N = 145)




Hala ere, datuak sexuaren arabera banakatzen badira, ikus daiteke, egotzien kasuan gertatzen zen bezala, gizonak direla nagusi maila baxuenetan, batez ere 18-29 urteko tartean, emakumeen kopurua laukoizten dutelarik.

BIKTIMAK ADIN-TARTEAREN ETA SEXUAREN ARABERA (2019, N = 145)




Bestalde, hurrengo grafikoak adierazten duen moduan, biktimizazio gehienak arrazakeriaren eremuan gertatu dira ($n=72$, %49,7), biktimaren ideologia edo orientazio-politikoaren ondorioz sortutako biktimizazioek jarraitzen diotelarik ($n=39$, %26,9). Azken datu horri dagokionez, harrigarria da ideologia eta orientazio-politikoaren arabera biktimizazioen kopuruak delituen kopurua bikoiztea, eta hori kolektibo honetan bakarrik gertatzen da. Hirugarren, laugarren eta bosgarren lekuan, biktimaren sexu-orientazio eta identitateagatik ($n=14$, %9,6) eta sinesmen eta praktika erlijiosoengatik ($n=7$, %4,8) eta dibertsitate funtzionalagatik ($n=7$, %4,83) burututako biktimizazioak daude. Azkenik, aporofobia ($n=3$, %2,1) eta sexua ($n=3$, %2,1) dira biktimizazio gutxien erregistratu diren eremuak.

BIKTIMAK BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2019, N = 145)



Bukatzeko, biktimak delitu-tipologiaren arabera banatuz gero, ondorengo grafikoak erakusten duen moduan, mehatxuak eta lesioak jasan dituzten biktimak erdia baino gehiago dira (%52,42), eta ia bikoiztu egiten dute mota horretako delituen kopurua (38 biktima 21 mehatxuen kasuan eta 38 biktima 20 lesioen kasuan). Hirugarrenik eta laugarrenik, gorroto-diskurtsua (%15,17) eta tratu apalesgarria (%11,72) ditugu, mota horretako delituen antzeko kopuruekin (22 biktima gorroto-diskurtsoko 20 delituen kasuan eta 17 biktima 16 tratu apalesgarriko 16 delituen kasuan). Gainerako kasuetan, biktimen kopurua txikiagoa da, ziur asko intzidentzia txikiagoa dutelako.


BIKTIMAK DELITU-TIPOLOGIAREN ARABERA (2019, N = 145)



1.5. ARAU-HAUSTE ADMINISTRATIBOEN BANAKETA


Hasieran azaldu den bezala, 2019an 10 arau-hauste administratibo erregistratu ziren, 5 kiroleko indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurkako uztailaren 11ko 19/2007 Legearen esparruan, eta beste 5 onarpen-eskubidearen esparruan.

ARAU-HAUSTEAK TIPOAREN ARABERA (2019, N = 10)




Jarraian ikus daitekeen bezala, arau-hauste gehienak arrazismo-xenofobiaren eremuan burutu dira (%80), eta gainerako bi arau-hauste administratiboak ideologiaren eremuan (%10) eta antisemitismoaren¹³ eremuan (%10). Bestalde, arrazismo-xenofobiarekin lotutako delituak kolektibo hauetan bana daitezke: Arabiarra ($n=2$; %25), Asiarra ($n=1$; %12,5), Ijitoa ($n=1$; %12,5), Beltza ($n=1$; %12,5), Zehaztu gabe ($n=3$; %37,5).

ARAU-HAUSTEAK BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2019, N = 10)




ARRAZISMOA – XENOFOTIAKO ARAU-HAUSTEAK KOLEKTIBOAREN ARABERA (2019, N = 8)




¹³ Ertzaintzak "antisemitismo" kategoria jasotzen du kategoria autonomo gisa, sinesmen eta praktika erlijiosoetatik bereziaz.

Ondoren, babestutako kolektiboen banaketari erreparatzen zaio haien motaren arabera, hots, babestutako kolektiboak kirolaren legeari edo onarpen-eskubideari buruzko arau-hauste administratiboen barruan kokatzen dira. Horrela, ikus dezakegu onarpen-eskubideari buruzko arau-hauste guztiak biktimaren arraza/etnia oinarri hartuta burutu zirela, eta kirolaren legeari buruzko arau-hausteen kasuan, ordea, kolektibo hori nagusi izan arren, heterogeneotasun handiagoa dago.




Arau-hauste administratiboen banaketa espazialari dagokionez, esan daiteke modu ia homogeneoan banatzen direla hiru euskal lurralde historikoen artean: Araba ($n=4$; %40), Bizkaia ($n=3$; %30), Gipuzkoa ($n=3$; %30). Zehazki, arau-hauste gehienak lurralde historikoen hiriburuetan egiten dira: Bilbon ($n=2$; %20), Donostia-San Sebastianen ($n=2$; %20) eta, nagusiki, Vitoria-Gasteizen ($n=4$; %40). Gainerakoak Getxon, Bizkaian ($n=1$; %10) eta Eibarren, Gipuzkoan ($n=1$; %10) banatzen dira.

ARAU-HAUSTEAK JATORRIKO LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (2019, N = 10)




ARAU-HAUSTEAK JATORRIKO UDALERRIAREN ARABERA (2019, N = 10)




Arau-haustea burutu den lekuari erreparatuz gero, ikusten da arau-hauste gehienak kirol-esparruetan eta haien inguruetan ($n=5$; %50) eta diskoteketan ($n=3$; %30) egiten direla.

ARAU-HAUSTEAK LEKUAREN ARABERA (2019, N = 10)



Amaitzeko, denbora-banaketari dagokionez, arau-haustek ere ia modu berean banatzen dira honako hilabete hauetan: urtarrilean ($n=2$, %20), otsailean ($n=2$; %20), ekainean ($n=1$, 10), abuztuan ($n=2$, %20), urrian ($n=1$, %10), eta azaroan ($n=2$; %20).

ARAU-HAUSTEAK HILABETEAREN ARABERA (2019, N = 10)



1.6. ONDORIOAK

1.6.1. Gorroto gertakarien guztizko kopurua

2019an 115 gorroto-gertakari erregistratu dira Euskadin; zeinetatik 105 delituak diren (%91,3) eta 10 arau-hauste administratiboak (%8,7).

Kontuan hartzen badugu 2016an 124 gorroto-gertakari erregistratu zirela, 2017an 129 erregistratu zirela eta 2018an 130 identifikatu zirela, gertakarien kopuruak nabarmen egin duela behera antzeman daiteke.

Ondorio horietarako, lehen txostenetik ohartarazi izan den bezala, arau-hauste administratiboak bereizita geratzen dira beraien tratamendu, aurkezpen eta balorazioari dagokienez. Izan ere, arau-hausteen kopurua (zifra honek gertakari nagusiari loturiko gertakari gehiago barnebildu ditzake) eta benetako dinamika (pribatuak diren jarduera sektoreekin lotutakoa, adibidez, modu paradigmaticoan, kirol-ikuskizunak) kontuan hartuta, potentzialki delituzkoak diren gertakariekin parekagarria ez den tratamendua merezi dutelako.

1.6.2. Gertakarien jomugan dauden kolektiboen mapa

Gertakari arrazista edo xenofoboak erregistratutako delituen %52,4 dira (55 kasu), zeinak beherakada txiki bat izan duten aurreko urtearekin alderatuta (-7 gertakari: -%11,29). Ideologiaren eta orientazio-politikoaren eremuak delituen %17,1 erregistratzen du (18 kasu), zeinak gorakada txiki bat izan duen 2018. urtearekin alderatuta (+1; %5,88); sexu-orientazioarekin eta -identitatearekin lotutako delituak, berriz, delituen %12,4 dira (13 kasu), aurreko urtean baino nabarmen txikiagoa (-26: -%66,67). Bestalde, sinesmen eta praktika erlijiosoen eremuak (7 kasu), dibertsitate funtzionalak (6 kasu), sexuak (3 kasu) eta aporofobiak (3 kasu) erregistratutako delituen %18,1 osatzen dute, eta, aporofobiak eta sexuak izan ezik, aurreko urtekoen antzeko kopurua dute (gogora dezagun, 2018an azken hau ez zen orientazio eta identitate sexualarekiko independentea, kategoria autonomo gisa).

Kolektibo etnikoak, era zabalean ulertua (arrazismoa, xenofobia, ideologia, orientazio-politikoa, sinesmen eta praktika erlijiosoak), %69,56 ordezkaten du (%77,39 arau-hauste administratiboak kontuan hartuz gero). Aporofobia, dibertsitate funtzionala eta sexua batuz gero, ez dute %10 baino gehiago adierazten.

1.6.3. Delitu-tipologiak

i. Talde nagusiak. Hirugarren txosten honetan lesioak (20 kasu: %19), mehatxuak (21 kasu: %20) eta gorroto diskurtsoa (20 kasu: %19) delitu gertakarien 3 talde kopurutsuenak bezala mantendu egin dira, hurrengo delitu-taldeengandik nahiko urrun, tratu apalesgarria alde batera utzita. Hirurek batera delitu-gertakarien %58 barne hartzen dute, hots, gorroto maparen erdia, aurreko urtean ordezkaten zituzten hiru laurdenetik urrun dauden arren.

Tratu apalesgarrien kasuen multzoa xehetasunez aztertuz gero, jokabide mehatxagarri eta iraingarrien testuinguruan ematen diren gorroto-gertakariak

tokian bertako tipifikazioari buruzko zalantzak islatzen egon daitekeela ondorioztatu daiteke.

ii. Indarkeriazko gertakariak. Lesioak, talde osoaren bostenera hurbiltzen direnak (20 kasu: %19), erantzukizun kriminala aldatzen duen Zigor Kodearen 22.4 artikuluko inguruabarrarengatik astunduak izango liratekeen jokaeren erreferentziazko muina izango lirateke. Aurten, indarkeriazko gertakarien erregistroa bildutako kotarik txikienetara itzuli da, aztertutako lehen urtearen antzeko ehunekoetan (2016).

Era zabalean ulertuta, “ekintzen bidezko” delituen burutze dinamikaren antzekoak diren beste delitu batzuekin batera, (jarkitze eta atentatu delituak: $n=3$; kalteak $n=6$; eta ebasketa bakarra $n=1$ gehitu ondoren) delitu itxura duten gertakarien ia %30 ($n=3$; %28,57) osatzen dute.

iii. “Hitzen bidezko” gorroto delituak («*hate speech*» zentzu zabalean). Zentzu hertsian hartutako gorroto delituen kategoriarekin konparatuz (ekintzen bidezkoak), gorrotoaren propaganda gertakariak gehiengoa izaten jarraitzen dute. Mehatxuak (21), gorroto-diskurtsoa zentzu hertsian (20), irainak (4), kalumniak (1) gehituz gero, %43,8 osatzen dute (46), %67,6ra (71) igoz kategoria orokor baino gertukoak gehitzen badizkiogu, adibidez, derrigortzeak (9) eta tratu apalesgarriak (16).

Delituen mapa horrela geratzen da, aurreko txostenaren ildo berean, adierazpen jokaeren “gain-irudikapen” zertxobait nabarmenago batekin, 73ren kontra, lesio portaera edo haien indarkeria periferikoa baino potentzialki larriagoa den indarkeriekin konparatuz.

1.6.4. Denbora- eta espazio-banaketa, eskualde mailako banaketa, egotziak, atxilotuak eta biktimak

Laugarren urtez, Bizkaiak gorroto delitu gehienak erregistratu ditu (%53,33), batez ere Bilbon (%27,62) eta Getxon (%4,76). Zentzu honetan, gainerako lurralde historikoen hiriburuak ere nabarmentzen dira Vitoria-Gasteiz (%11,43) y Donostia-San Sebastián

(%10,48) eta bai eta Gipuzkoako Irun (%3,81). Agertokiei dagokienez, bide publikoa (%32,38) gorroto delitu gehien burutzen den lekua da, etxebizitzak jarraitzen diolarik (%18,1).

Gertakari hauen zati handi bat asteburuan zehar erregistratzen da (ostirala %19, larunbata %21,9 eta igandea 21,9%). Orduaren arabera banaketaren kasuan, gorroto delitu gehienak arratsalde eta gauean gertatzen dira (%60,9).

Egotzietatik errepuratuz, gehienak, 89, espainiarrak dira (%83,2), zeinetatik %77,5 Euskaditik datozen, batez ere Bizkaitik (%49,3). Atzeritarrak diren egotzietatik, Afrikatik (%50) eta Latinoamerikatik datozenak (%39) nabarmentzen dira. Udalerri mailan, ikertu gehienak Bizkaiko udalerri nagusienetatik datoz, Bilbo ($n=16$) eta Barakaldo ($n=9$); nahiz eta aurreko gainerako lurralde historikoen hiriburuetatik datozen egotzietatik kopurua ere nabarmena den Donostia-San Sebastián ($n=9$) eta Vitoria-Gasteiz ($n=7$).

Bestalde, 2019an 8 atxilotu egon ziren, aurreko urtean baino askoz gutxiago. Guztiek espainiar nazionalitatea zuten, eta gehienak Euskaditik zetozen (%75^a, 3 Bizkaikoak, 2 Gipuzkoakoak eta 1 Arabakoak).

Biktimen %55,17 espainiarrak dira, %78,75 Euskadikoak. Atzerriko jatorriko biktimen dagokienez (%45), Latinoamerikakoak (%19,3) eta Afrikakoak (%17,2) nabarmentzen dira. Euskaditik datozen biktima gehienak Bizkaikoak dira, batez ere Bilbokoak (%27) eta Barakaldokoak (%11).

1.6.5. Euskadiko gorroto mapa Estatu mailako testuinguruan

i. Datu orokorrak eta helburu diren kolektiboak. 2019. urtean zehar 115 gorroto gertakari erregistratu ziren Euskadin, zeinetatik 105 delituak ziren (%91,3) eta 10 arau-hauste administratibo (%8,7). Estatu osoko datuei erreferentzia eginez, Gorroto

Delituekin lotutako Gertakarien Bilakaeraren gaineko 2018ko Txostena¹⁴ abiapuntutzat hartuz, Estatu osoko polizia-instantzietara iritsi ziren gorroto delitu guztien (1.598 gertakari, 2017an baino %12,6 gehiago) %5,5 Euskadin burutuak izan ziren. Ildo honetatik, datu hauek testuinguruan kokatzeko, 2018. urtearen bukaeran, Euskadik 2.199.088 biztanle zituen —Bizkaia (1,15M biztanle, Gipuzkoa (0,72M biztanle) eta Araba (0,33M biztanle—, Espainiako 47.026.208 (INE, 2020) biztanletatik.

Ondorioz, Euskadin erregistratutako datuek ez dute agerian uzten fenomenoaren detekzioari dagokionez gorakada esanguratsurik izan denik, alderantziz baizik; hau Barne Ministerioak azken urteotan bildutako estatuko datuetan ikus daitekeen bitartean (2013-2018).

Espainiaren kasuan, 2018an, kategoria nagusietan, ideologian eta arrazismo/xenofobian, oinarrituta buruturiko delituen ehunekoan eman den hazkundera nabarmentzen da, zeinak erregistratutako 1.598 gertakarien ia 2/3ak biltzen dituen, Euskadin joera hau ikusten ez den bitartean. Kolektiboek dagokienez, harrigarria da kolektiborik kaltetuena bi kasuetan bat ez egitea: Euskadin arrazismoa eta xenofobia dira nagusi, gertakarien %52,4 biltzen dutelarik, eta, ondoren doa ideologia, delituen %17,1a biltzen duena; Espainian, berriz, ideologiak arrazismoa eta xenofobia gainditzen ditu, delituen %37,3 biltzen baitu, kolektibo horrek gertutik jarraitzen badu ere, gertakarien %33,2 biltzen duelarik. Estatuan zein autonomia-erkidegoan, sexu-orientazioa edo -identitatea (%16,2 Espainian eta %12,4 Euskadin) eta erlijio-sinesmenak/-praktikak (%4,9 Espainian, antisemitismoa gehituz gero, eta %6,7 Euskadin) dira biktima gehien dituzten hurrengo kolektiboak.

Aurreko urtearekin erkatuz, Estatu mailako Barne Ministerioaren txostenean kategoria guztiek gorako gutxi gora-beherako joera izan dute aurreko urtearekin konparatuz, sinesmenak eta praktika erlijiosoak eta sexu-orientazio eta -identitatea izan ezik, zeinak jaitsi egin diren. Euskadi mailan, ordea, hazkunde handiena izan duten kategoriak aporofobia (2 gertakarietatik 3 gertakaritara igaroz), dibertsitate funtzionala (2

¹⁴ BARNE MINISTERIOA (ESPAINIA), “Informe sobre la evolución de los incidentes relacionados con los delitos de odio en España”, Ministerio del Interior (España), 2017, 58 orr. Online sarbidea: <http://www.interior.gob.es/documents/642012/3479677/informe+2018/ab86b6d9-090b-465b-bd14-cfcafcdfcfebc>

gertakaritik 3 gertakaritara igaroz), eta dibertsitate funtzionala (3 gertakaritik 6 gertakaritara igaroz). Bestalde, ideologia eta politika-orientazioaren kategoriak hazkunde arina izan du (%5,88), sinesmenak eta praktika erlijiosoak egonkor mantendu diren bitartean. Azkenik, arrazismoa eta xenofobia kolektiboa %11,29 jaitsi egin da, eta sexu-orientazio eta identitatea adierazgarria den %66,67 jaitsi da (39 gertakarietatik 13 gertakarietara igaroz).

Ondorioz, esan daiteke bi txostenetan biktimizatuena izan ziren kolektiboak arrazismoa/xenofobia, ideologia eta sexu-orientazio eta identitatea direla, nahiz eta, lehen bi kategorietan oso kopuru desberdinak dauden; aldiz, biktimizazio eskasa erregistratu da aporofobia eta sexu kolektiboetarako dagokienez.

ii. Delitu-tipologiak. Delitu-tipologiei dagokienez, bi txostenetan, ehuneko ia berdinekin, lesioak (%20 Espainian eta %20 Euskadin) eta mehatxuak (%20 Espainian eta %19,7 Euskadin) gailentzen diren tipologiak dira. Estatu mailan, neurri txikiagoan bada ere, kalteak (%17,4) eta Konstituzioaren aurkako delituak (%17,4) eta gailentzen dira, Euskadi mailan gorroto-diskurtsoa (%20) eta tratu apalesgarria (%15,2) gailentzen diren bitartean.

iii. Beste batzuk: biktimak, erasotzaileak, banaketa espazio-tenporala eta agertokia.

Biktimaren profil demografikoari erreparatuz, bi txostenetan gehienak gizonak izan ziren (%63,5 Espainian eta %70 Euskadin), 18 eta 50 urte artekoak (kasuen bi herenak baino gehiago). Jatorrizko lekuari erreferentzia eginez, harrigarria da Espainia mailan biktimen %74,6 espainiarrak izatea, Euskadi mailan kopuru hau %55era modu nabarian murrizten den bitartean, zeinetatik %79 Euskaditik zetozen. Bestalde, atzerritarrak diren biktimei dagokienez, bi kasuetan biktimizazio gehien jasan duten kolektiboak Afrikatik datozen pertsonak (%12,6 Espainian eta %17,2 Euskadin) eta Amerikatik datozen pertsonak (%7,9 Espainian eta %19,3 Euskadin) izan ziren.

Erasotzaileen profil demografikoa aztertuz gero, bai Espainia mailan bai Euskadi mailan, gorroto gertakarien erasotzaileak batez ere gizonak (%84,5 Espainian eta %66,96

Euskadi), gazte helduak (Espainian %73a eta Euskadin %56,52a 40 urtetik beherakoak ziren) eta espainiar nazionalitatekoak (%79,7 Espainian eta %84,35 Euskadin) izan ziren.

Gertakari hauen banaketa espazio-tenporalari erreparatuz, Barne Ministerioaren Txostenak islatzen du abuztuan eta azaroan burutu zirela mota honetako gertakari gehienak, 166 eta 177 gertakariekin, hurrenez-hurren. Euskadin, ordea, maiatza eta uztaila izan ziren gertakari gehien erregistratu zituzten hilabeteak, lehena 15 gertakariekin, eta bigarrena 13 gertakariekin.

Azkenik, patroi espazialaren kasuan, bai Espainia mailan bai Euskadi mailan, gertakarien zati handi bat bide publikoan kokatu ohi da (%35,9 Espainian eta %32,4 Euskadin). Eremu pribatuari dagokionez, neurri txikiagoan bada ere, etxebizitzak (%20,2 Espainian eta %18,1 Euskadin) eta ostalaritza eta aisialdirako establezimenduak (%13 Espainian eta %15,2 Euskadin) nabarmentzen dira gertakari hauen agertoki moduan.

2. AZTERKETA KONPARATUA ESKOZIA ETA IPAR IRLANDAREKIN

2.1. ESKOZIA

2.1.1. Baliokide normatiboak

Jarraian, gorroto delituen inguruko egungo Eskoziako legedia deskribatuko da. Deskribapen bat izango da, xehetasunetan edo ñabarduretan sakondu gabe, gaur egun era ofizialean edo exekutibo eskoziarraren bidez (polizia, fiskaltza eta Epaitegiak) jasotzen, kudeatzen eta argitaratzen den estatistika-informazioaren oinarri izango den legegintza tresna nagusien¹⁵ egungo irudia eskaini nahi den heinean, aurkitzen garen fasearen arabera modu nabarmenagoan edo ez hain nabarmenean (adib.: poliziaren berri ematea, polizia-egozpena, fiskaltzaren akusazioa edo Eskoziako Auzitegien kondenak).

i. Tipo autonomo astunduak. Arrazan oinarrituta astundutako zirikatze-delitu berezia dute (*racially-aggravated harassment*) 1995-ko *Criminal Law (Consolidation) (Scotland) Act*-eko (CLCSA) 50A artikuluan. Artikulu hori, era berean, 1998-ko *Crime and Disorder Act* (CDA) delakoak sortu zuen, zeinaren 33. artikulua Eskoziarentzat soilik indarrean dagoelarik. CDA-ren 28-32 artikuluetan Ingalaterran eta Galesen kasuan gertatzen ez zen bezala, aztertzen ari garen delitua berezia da, aurreiritzi-elementua tipoari atxikita edo erantsita baitago (*standalone offence*), eta, beraz, ez baita gerora astundu daitekeen delitu arrunta¹⁶. Tipoa autonomiaz hornitzen duen egitura horrek

¹⁵ Hala eta guztiz ere, Eskoziak tradizio luzea du *common law* botereei dagokienez, eta, horregatik, zigorra zehazteko fasean (*sentencing stage*) astuntze-faktoreak hautemateko aukera ere eman du. Legedia, askotan, botere horiek osatzeko ezarri da. Eta fokua legeria espezifiko batean jarrita badago ere (gorroto-delituak), horrek ez du eragozten, astuntze orokorreko mekanismo batzuek, zigor-mota jakin batzuei dagokienez garrantzia hartzen duten neurrian, horiek beharrezkoak diren azalpenak jasotzea errealitate enpirikoaren azterketan zehar. Izan ere, argitu beharra dago zuzenbide arrunteko delituak (*common law offences*) astungarri estatutario generikoen bidez astunduak izan daitezkeela (adibidez, ordena publikoa nahastearen delitua -edo *breach of the peace*-, zeina 1998ko *Crime and Disorder Act*-aren 96. artikulua bidez astundua dagoen).

¹⁶ Gogoan izan behar da CDA-ren 28-32. bitarteko artikulua, lege-sistema ingelesean (English law) aplikagarri direnak, ex novo tipo astunduak dituztela lege-xedapen sakabanatuetan jasotako delituen zerrenda itxi bati dagokionez. Beraz, ezinbestekoa da tipo astundu bakoitzari dagokion oinarrizko delitua

babestutako kategoria bakarra arraza izanik, ez du baliokiderik beste tipo penal batzuetarako¹⁷.

CLCSA-ren 50A artikuluan aurreikusitako portaera kriminalak bi alderdi ditu, bi delitu desberdin barne hartzen dituelarik: (i) arraza-arrazoiengatik astundutako portaera-patroi bat erakustea (*course of conduct*), norbait zirikatzearen parekoa dena, eta bietako bat: edo portaerak zirikatze eragina izateko asmoa duenean edota zentzuzko pertsona bati (*reasonable person*) zirikatzea irudituko litzaiokeen egoeretan ematen denean; (ii) Arraza arrazoiengatik era astunduan jardutea eta pertsona bati alarma edo larritasuna eragitea edo eragin nahi izatea. Edonola ere, bi kasuetan, delitua arraza-arrazoiengatik astundu egingo da, baldin eta (i) portaera-ekintzen bilakaera bat edo ekintza bakar bat egiteko momentuan, edo egin aurretik edo egin ondoren berehala, egileak (*to evince*) biktimarekiko (*malice and ill-will*) zitalkeria eta ezinikusia erakusten badu, biktima arraza-talde bateko kidea edo ustezko kidea delako edo arraza taldearekiko duen lotura hutsean oinarrituta; edo (ii) Portaera-ekintzen bilakaera edo ekintza, arraza talde batetako kide izateagatik eta arraza talde horretako kideen aurkako zitalkeria eta ezinikusia dela eta -Erabat edo partzialki –aurrera eramaten bada. Arraza-taldea, arraza, kolore, nazionalitate (herritartasuna barne) edo jatorri etniko edo nazionalaren arabera definitzen den pertsona-taldea da. “*Portaera-ekintzen bilakaera*”-ri dagokionez, gutxienez bi une desberdin behar dira gauzatutzat jotzeko. Azkenik, edozein adierazpen edo diskurtso, portaera gisa kontuan hartzen da ondorio horietarako. **Baliokidetzak 1995ko ZK-arekin:** ZK-ko 172.ter artikuluko jazarpen delitua + ZK-ko 22.4 artikuluko astungarria.

jotzea. Ikus GIZA ESKUBIDEEN ETA BOTERE PUBLIKOEN UNESCO KATEDRA/ERTZAINZA, “Informe de incidentes de odio de Euskadi 2018”, *Eusko Jaurlaritza – Gobierno Vasco*, 2019, 51-52. orr.

¹⁷ Hala ere, praktikan sortzen dituen arazoak direla eta, haren iraunkortasuna eztabaidan dago gaur egun. Izan ere, badira alternatiba orokorragoak, babes penala oso modu antzekoan eta portaera mota berdinentzat eskaintzea lortuko luketenak. Zehatz-mehatz, hura indargabetzea aztertu eta defendatuz, ikus BRACADALE, L., “Independent review of hate crime legislation in Scotland. Final report”, *Scottish Government*, 2018, 7.1-7.26. atalak. Ikus baita ere SCOTTISH GOVERNMENT, “One Scotland: hate has no home here. Consultation on amending Scottish hate crime legislation”, *Scottish Government*, 2018, 51-55. orr.

(A) CLCSAn (50A. art.) -espresuki¹⁸- falta diren kategoriak ZK-aren 22.4 artikuluekin alderatuta: Antisemitismoa, ideologia, erlijioa, sinesmenak, sexua, sexu-orientazioa edo -identitatea, genero-arrazoiak, gaixotasuna, desgaitasuna.

(B) ZK-aren 22.4 artikuluan -espresuki- falta diren kategoriak, CLCSA-rekin (50A. art.) alderatuta: Transgenero-identitatea, kolorea, nazionalitatea.

(C) CLCSAk (50A. art.) eta ZK-aren 22.4 artikulua partekatzen dituzten kategoriak: Arraza, jatorri nazionala edo nazioa, etnia edo jatorri etnikoa.

II. Astungarri “orokorrak” epaian. Zigorraren zehaztapan fasean (*sentencing stage*) delituen astungarri gisa jarduten duten xedapen sakabanatuak daude. Ezaugarri horiek dituzten astungarriak, arraza-arrazoiei dagozkienak, CDA-ren 96. artikuluan jasota daude. Artikulu horren arabera, delitua astundu egingo da, baldin eta (i) delitua egiteko unean, edo delitua egin aurretik edo egin ondoren berehala, egileak (*to evince*) biktimarekiko zitalkeria eta ikusezintasuna (*malice and ill-will*), erakusten badu (*malice and ill-will*) biktima arraza-talde bateko kidea edo ustezko kide delako edo arraza taldearekin duen lotura soilean oinarriturik; edo (ii) delitua beste arraza talde bateko kidea delako eta talde horretako kideen aurkako zitalkeriagatik edo ikusezintasunagatik aurrera eramaten bada. Arraza-taldea, arraza, kolore, nazionalitate (herritartasuna barne) edo jatorri etniko edo nazionalaren arabera definitzen den pertsona-taldea da.

Erljio-aurreiritziek eragindako astungarria, 2003-ko *Criminal Justice (Scotland) Act*-aren (CJSA) 74. Artikuluan aurreikusita egonik, aurreko termino berberetan idatzia dago, nahiz eta talde erlijioso bati edo afiliazio erlijioso nabarmena duen gizarte- edo kultura-talde bati erreferentzia egin arraza-talde bati izan beharrean. Talde erlijioso kideen ezaugarri hauek kontuan hartuz definitzen da: (a) erlijio-sinesmena edo sinesmen-falta; (b) eliza edo erlijio-erakunde bateko kide izatea edo

¹⁸ “Espresuki” hitzarekin dauden moduan artikulua batean ez bestean agertzen ez diren kategorietaz ari gara hemen eta aurrerantzean, kategoria horiek generikoagoak diren beste batzuren baitan sar daitezkeen kalterik gabe.

honekin lotura izatea; (c) eliza edo erlijio-erakunde bateko kultura eta tradizioak babestea; (d) eliza edo erlijio-erakunde bateko kulturarekin eta tradizioekin lotutako jardueretan parte hartzea. Azkenik, desgaitasunarekin lotutako (1 art.) eta sexu-orientazioa edo transgenero-identitateari lotutako (2. art.) aurreiritzien inguruko astungarriak 2009-ko *Offences (Aggravation by Prejudice) (Scotland) Act*-ean (OAPSA) daude aurreikusita. Hemen ere arraza eta erlijio kategorietarako aurreikusitako bi alderdiko egitura bera mantentzen da, edozein eragozpen fisiko edo mental hartzen delarik desgaitasuntzat. Gainera, eragozpentzat eragin esanguratsua edo epe luzerakoa duen edo izan dezakeen edozein gaixotasun hartu behar da, progresiboak direnak barne hartuta. **Baliokidetzak 1995ko ZK-arekin:** ZK-ko 22.4. artikuluko astungarria.

(A) CDAn (96. art.), CJSAn (74. art.) eta OAPSAn (1 eta 2 art.-ak) -espresuki-falta diren kategoriak ZK-aren 22.4 artikuluekin alderatuta: Antisemitismoa, ideologia, sinesmenak, sexua, sexu-identitatea, genero-arrazoiak, gaixotasuna.

(B) ZK-aren 22.4 artikuluan -espresuki- falta diren kategoriak CDA (96. art.), CJSA (74. art.) eta OAPSA-rekin (1 eta 2 art.) alderatuta: Transgenero-identitatea, kolorea, nazionalitatea.

(C) CDak (96. art.), CJSak (74. art.) eta OAPSak (1 eta 2 art.), eta ZK-aren 22.4 artikulua, partekatzen dituzten kategoriak: Arraza, erlijioa, nazio-jatorria edo nazioa, desgaitasuna, sexu-orientazioa, etnia edo jatorri etnikoa.

III. Gorrotoa eragitea. Arraza-gorrotoa (*racial hatred*) eragiteari buruzko delituak eta gainerako xedapenak 1986-ko *Public Order Act* (POA) delakoaren 17-29 artikuluetan jasotzen dira. Xedapen horiek Eskoziako lege-sistemaren (*Scottish law* edo *Scott 's law*) eta ingelesaren (*English law*) artean partekatzen dira, nahiz eta –azken honetan ez bezala¹⁹ – babes penala arraza ez den beste kategoria batzuetara hedatzen ez

¹⁹ GIZA ESKUBIDEEN ETA BOTERE PUBLIKOEN UNESCO KATEDRA/ERTZAINZA, “Informe... op. cit., 53-54. orr.

den arren. Horregatik, arraza-gorrotoan jarri behar da arreta, hemen aztergai ditugun tipo penalei atxikia agertzen dena (*standalone offences*), honela definitzen delarik: arraza, kolorea, nazionalitatea (herritartasuna barne) edo jatorri etniko edo nazionalaren arabera definitzen den pertsona-talde baten aurkako gorrotoa (1986-ko *Public Order Act*-eko 17. art.).

Gainerakoan, era indibidualizatuago batean, arraza-gorrotoa susta dezaketen edo sustatzera bideratutako delituak honako hauek dira: a) Hitzen edo jokaeren erabilera edo idatzizko materialaren erakusketa (18 art.: *use of words or behaviour or display of written material*); b) Idatzizko materialaren banatzea edo argitalpena (19. art.: *publishing or distributing written material*); c) Obra artistiko baten antzezpen publikoa (20. art.: *Public performance of play*); d) Grabaketa baten banatzea, erakusketa edo erreprodukzioa (21. art.: *distributing, showing or playing a recording*); e) programa baten irrati-difusioa edo inklusioa kablearen bitarteko zerbitzu batean (22. art.: *broadcasting or including programme in cable programme service*); f) material arrazista probokatzaileria edukitzea (23. art.: *possession of racially inflammatory material*). **Baliokidetzak 1995ko ZK-arekin:** gorrotoa eragiteagatiko delitua (ZK-aren 510. artikulua).

(A) POAn (17-29. art.-ak) -espresuki- falta diren kategoriak ZK-aren 510 artikuluekin alderatuta: Antisemitismoa, ideologia, erlijioa edo sinesmenak, familia-egoera, sexua, sexu-orientazioa edo -identitatea, genero-arrazoiak, gaixotasuna, desgaitasuna.

(B) ZK-aren 510. artikuluan -espresuki- falta diren kategoriak POA-rekin (17-29. art.-ak) alderatuta: Kolorea, nazionalitatea.

(C) POAk (17-29. art.-ak) eta ZK-aren 510. artikulua partekatzen dituzten kategoriak: Arraza, jatorri nazionala edo nazioa, etnia edo jatorri etnikoa.

2.1.2. Gorroto-delituei buruzko egungo eta etorkizuneko legerian sektarismoa eta aurreiritzi politikoei aurre egiteko beste modu batzuk

2018an, 2012-ko *Offensive Behaviour at Football and Threatening Communications (Scotland) Act*-a (OBFTCSA) indargabetu zen, lege anti-sektario (*antisectarian law*) bezala ezagutzen zena, zeinak Futbol-partidetan desordena publikoak eragin zitzaizkien jarrera erasokor edo mehatxagarrien inguruan jarduten zuen. Portaera honek jarraian datorren honi egiten zion erreferentzia: (i) erlijio-afiliazioa hauteman dakiokeen talde erlijioso, kultural edo sozial bateko kidea edo kide posibleak direlako, edo bere taldea kolore, arraza, nazionalitate (herritartasuna barne), jatorri etniko edo nazionalagatik, sexu-orientazioagatik, transgenero-identitateagatik edo desgaitasunagatik definitzen dutelako, pertsona talde baten kontra gorrotoa adieraztea edo beraien aurka gorrotoa sustatzea (ii) gizabanako bati gorrotoa adieraztea – edo beraren aurkako gorrotoa piztea – erlijio-afiliazioa hauteman dakiokeen talde erlijioso, kultural edo sozial bateko kidea edo kide posiblea delako, edo bere kolore, arraza, nazionalitate (herritartasuna barne), jatorri etniko edo nazionalagatik, sexu-orientazioagatik, transgenero-identitateagatik edo desgaitasunagatik definitzen duelako bere burua (iii) aurreko azpikategorietako kideen aurkako zitalkeriak eta ikusezintasunak - erabat edo partzialki-eragindako portaera (iv) mehatxagarria den portaera; edo (v) arrazoizko pertsona batek iraingarritzat har dezakeen beste portaera bat (1 art.).

2012an lege hori indarrean sartu zenetik, Eskoziako fiskaltzak kristau barneko erlijio-etsaitasuneko kasuak (katoliko erromatarren zein protestanteen aurkakoak), Legearen 1. artikulutik bideratzen zituen. 2012. urtea baino lehen, delitu arrunt bat erabiltzea (*common law offence*), hala nola ordena publikoaren nahaste delitua (*breach of the peace*), eta erlijio-aurreiritzi batekin jokatu izanaren estatutu-astungarria ezartzea zen ohikoena²⁰.

OBFTCSA indargabetzeko tramitazioan zehar, zenbaitek, aurrera atera ala ez, Eskoziako Gobernuak sektarismo terminorako legezko definizio bat sartzeko aukera kontuan hartzea komenigarria izango litzatekeela planteatu zioten Eskoziako

²⁰ BRACADALE, L., “Independent review...op. cit., 8.29. atala

Parlamentuko Justizia Batzordeari (*Scottish Parliament's Justice Committee*)²¹. Horregatik Justizia Batzordeak, definizio horrek etorkizuneko parlamentari edo gobernuen fenomenoari aurre egingo zioten legeak aurrera ateratzeko bidea erraztuko ziela zehaztu zuen. Etorkizunean “portaera sektarioei” edo antzeko terminoei buruzko legeak egin nahi baziren, gomendagarria zen Eskoziako lege-sistamarako sektarismoaren definizio bat izatea²². Horretarako, lantalde bat izendatu zen: *Working Group on Defining Sectarianism in Scots Law*. Lantalde horrek lege-definizio hori ezartzearen abantailak eta desabantailak balioetsi behar zituen, eta, hala bazegokion, bat proposatu. Txostena²³ 2018ko abuztuaren 29an aurkeztu zen Legebiltzarrean, eta urte bereko azaroaren 14an argitaratu zen. Baina Legebiltzarrean aurkeztu baino lehen, beste txosten bat argitaratu zen 2018ko maiatzaren 31n, Eskoziako gorroto-delituak buruzko legeriaren *statu quo*-a aztertzen eta baloratzen zuena, Lord BRACADALE epaile erretiratuaren eskutik.

BRACADALE-ren txosten independentean nabarmentzen da sektarismoaren kontzeptuak gorroto-delituak gainditzen dituela eta, izatez, sektarismoa zer den definitzeko erabili ohi diren “bazterketa” edo “diskriminazioa” bezalako terminoek agerian uzten dutela sektarismoa ez dela esparru penalera mugatzen. Era berean, hainbat iritzi-korronte daude sektarismoa kontzeptu erlijiosoa, politiko-kulturala edo, hobeto esanda, bien arteko nahasketa bat denaren inguruan bat ez datozenak. Sektarismoaren definizioari dagokionez, epaileak ez du definiziorik ematen, eta helburu horrekin lanean

²¹ *Offensive Behaviour at Football and Threatening Communications (Repeal) (Scotland) Bill*-aren inguruko eztabaidari buruz ikus: <https://www.parliament.scot/parliamentarybusiness/Bills/105269.aspx> [azken sarbidea: 2020/01/19]. Zehatzago, ikus JUSTICE COMMITTEE, “Stage 1 report on the Offensive Behaviour at Football and Threatening Communications (Repeal) (Scotland) Bill”, *Scottish Parliamentary Corporate Body*, 2018, 57-62. orr.

²² Hala ere, esan beharra dago aurrez bazeudela *Independent Advisory Group on Tackling Sectarianism in Scotland* delakoak, hau da, 2012an Eskoziako Gobernuak gai horri buruz eta sektarismoari aurre egiteko espero ziren ekintzei buruz modu independente eta inpartzialean aholkatzeko eratutako kontsulta-taldeak, sortutako definizio batzuk. Adibidez, 2015eko txosten batean, honako hau aipatzen zen: “*Eskoziako sektarismoa pertzepzioen, jarreraren, ekintzen eta egituren nahasketa bat da, eta gainerakoekiko gutxiestea, baztertzeta, diskriminatzea edo iraingarria edo bortitza izatea dakar, pertzibitutako oinarri kristau-konfesionaletan oinarrituta. Pertzepzio hori beti nahasten da beste faktore batzuekin, eta horien artean daude politika, futbolarekiko leialtasuna eta identitate nazionala, besteak beste*”. Ikus ADVISORY GROUP ON TACKLING SECTARIANISM IN SCOTLAND, “Tackling Sectarianism and its Consequences in Scotland: final Report of The Advisory Group on Tackling Sectarianism in Scotland”, *Scottish Government*, 2015, 2.13-2.14. atalak

²³ WORKING GROUP ON DEFINING SECTARIANISM IN SCOTS LAW, “Final report of the Working Group on Defining Sectarianism in Scots Law”, *Scottish Government*, 2018, 32. or.

diharduen lantalde bat kualifikatuago bat dagoela adierazten du. Hala ere, epaileak ziurtatzen du OBFTCSA indargabetu denetik ez dela legezko hutsunerik sortu, nortasun sektarioaren aurkako etsaitasuna, arraza- edo erlijio-taldearen aurkako etsaitasunaren desberdina baita. BRACADALE-ren arabera, adituen taldeak plazaratuko dituen ondorioetatik sortuko den eztabaidan, komenigarria izango da, delitu sektarioak nola eten baloratzea eta delitu sektarioak gorroto-delitu gisa sailkatu behar diren edo, aldiz, *ad hoc* tratamendu bat eman behar zaien baloratzea. Momentuz, aurreiritzi erlijiosoak ezaugarri duten delituei astuntze estatutario bat ezartzearen alde egiten du. Delitu sektarioek izan dezaketen ikuspegi politikoaren inguruan, epaileak gorroto delituek ez dutela nortasun politikoa barne hartu behar ondorioztatzen du (*political identity*)²⁴.

Ildo horretan, epaileak arraza- edo erlijio-arrazoietan oinarritutako astungarriak aktibatu behar ote diren planteatzen du, norbaitek erakunde politikoekiko zitalkeria eta ezinikusiagatik jokatzeko badu arraza- edo erlijio-taldeagatik biktima erakunde politiko batekin lotu duelako (adib.: Juduak biktima gisa hautatzea Israelgo estatuarekin duten loturagatik delituak burutzeko orduan, edo musulmanak hautatzea Estatu Islamikoarekin duten loturagatik). BRACADALEk ondorioztatzen du ez dela komeni gorrotoaren aurkako legeriak ematen duen babesa erakunde politikoetara zabaltzea, “gorroto-delituen” kontzeptua bera oso urrun eramatea eta haren eragina lausotzea eragingo bailuke. Delitu bat benetan egin den jakiteko, eta arraza edo erlijio arrazoiak direla-eta delitu hori astuntzeko, kasu gehienetan nahikoa izango da portaera eta honen testuingurua begiratzea, horretarako aldeko edo kontrako inguruabarrak ematen diren ikusteko. Legegintzako eztabaidan lehen aipatutako astuntzeko aukera “berezia” sartzeak, babestu beharreko ezaugarri bereziki pertsonal eta intrintsekoetatik aldentzea ekarriko luke, ziurgabetasuna areagotzeaz eta konplexutasun gehigarriak sortzeaz gain. Azkenik, ohartarazten da astuntze hori interpretazioaren mende egongo litzatekeela, eta, ondorioz, gehiegikeriaren mende, helburu politikoaren arabera, eta une jakin bateko giro politikoaren arabera norabidez aldatu dezakeelarik. Adierazpen-askatasuna babestu behar da,

²⁴ BRACADALE, L., “Independent review...op. cit., 8.34-8.39. atalak

demokrazian egindako bidezko kritika politikoarekin batera, – adibidez, erakunde politikoei egiten zaiena edo Estatuari egiten zaiena ²⁵.

Working Group on Defining Sectarianism in Scots Law egindako txostenera itzuliz, nahiz eta BRACADALEk finkatutako ildotik urrun ez egon, uste da iritzi politikoak ez direla sartu behar sektarismoaren legezko ezein definiziotan. Horren bidegabekeria erakutsiko lukeen adibide interesgarriren bat ere ematen da: “*Irlandako/Erresuma Batuko bandera bat daraman norbaiten aurkako eraso bat aurreiritzi politikoagatik baino gehiago sektarismoak eragindako irlandar/britainiar arrazakeria gisa identifika liteke*”²⁶. Gainerakoan, baieztatzen da, gaiari buruzko ikuspegi penaletik abiatuta, alderdi sektario batzuk argi eta garbi sakabanatuta dauden gorroto-delituei buruzko beste lege-alderdi batzuek hartzen dituztela. Are gehiago, aurrez ikusi ahal izan den bezala, gorroto delituei buruzko legeria eskoziarrean jasotzen den “arrazaren” definizio hain zabalak aurreiritzi sektarioaren elementu batzuk barne hartzea dakar²⁷.

Gorroto-delituei buruzko Eskoziako legedian –zaticatuan- sartzearen komenigarritasunari dagokionez, lantaldeak ondorioztatu du aurreiritzi/etsaitasun sektarioaren astungarri bat sartu behar dela, alde batetik, berezko izaera intersektionalari autonomia emateko, eta, bestetik, lege-hizkuntzan lehen aldiz Eskoziako gizartean behar adina errotuta dagoen errealitate bat sartzeko, nahiz eta eztabaidatua izan den. Sektarismoa txertatu nahi den astungarria epaian erabiliko litzateke, hau da, zigorra zehazteko fasean eta edozein delitutarako. Astungarri berritzaile hori honako talde hauen aurkako etsaitasunaren frogapenean oinarrituko litzateke: (a) afiliazio konfesional katoliko erromatarra edo protestantea (b) britainiar edo irlandar herritartasuna, nazionalitatea edo jatorri nazionala, edo (c) aurrekoen konbinazio bat. Eskoziako Gobernuak, lan-taldearen babesarekin, dagoeneko aurreratu du sektarismoarentzat

²⁵ BRACADALE, L., “Independent review...op. cit., 3.40-3.49 atalak

²⁶ WORKING GROUP ON DEFINING SECTARIANISM IN SCOTS LAW, “Final ...op. cit., 10. or.

²⁷ Xehetasunez ikus WORKING GROUP ON DEFINING SECTARIANISM IN SCOTS LAW, “Final...op. cit., 15-20. orr.

astungarri estatutario bat sartzearen bideak aztertua eta eztabaidatua izatea merezi duela²⁸.

2.1.3. Errealitate enpirikoaren analisiaren sintesi ebolutiboa

2007ko martxoan, Eskoziako Gobernuak Eskoziako gorroto-gertakari arrazistei buruzko lehen estatistika-buletina argitaratu zuen, “Krimena eta Justizia” seriea osatzen zuten gai espezifikoaren eta era askotarikoaren inguruko argitalpenen artean²⁹. Horretarako, Eskoziako zortzi polizia-indarrek emandako datuak zentralizatu eta alderatu zituzten, zeinak hain zuzen ere, 1993an Stephen Lawrence hilketari buruzko txostenean Sir William MacPhersonen sortutako gertakari arrazistaren definizioa erabiltzen zuten³⁰. Definizio hori poliziak ez ezik, tokiko gobernuek eta horrelako gertakariak jasotzeko sortutako beste agenzia batzuek erabil zezaten sortu zen. Zehazki, “*Biktimak edo beste edozein pertsonak [adib.: biktimaren lekuko edo senitartekoak] arrazistatzat hartzen duen edozein gertakari*”-ri egiten zion erreferentzia. Gainera, MacPherson txostenaren gomendioei jarraituz, gertakaritzat hartu behar ziren delitu izaera zutenak zein ez zutenak. Salaketa jartzeak edo arrazistatzat jotako gertakari horiei buruzko informazioa ezagutarazteak, bai eta horiek erregistratzeak eta ikertzeak ere, jarduteko konpromiso

²⁸ Xehetasunez, ikus WORKING GROUP ON DEFINING SECTARIANISM IN SCOTS LAW, “Final...op. cit., 23-32. orr.; SCOTTISH GOVERNMENT, “One Scotland... op. cit., 26-27. orr.

²⁹ Hala ere, aipatzekoa da 1988tik – eta, batez ere, laurogeita hamarreko hamarkadatik – Eskoziar polizia-kidego batzuek beren kabuz erregistratu zituztela gertakari arrazistak. Datu horiek, muga nabarmenekin, urtero argitaratzen diren polizia-buruaren txostenen azterketatik lortzen dira (*Chief Constables' Annual Reports*). Zehatz-mehatz, ikus: CLARK, I./MOODY, S., “Racist crime and victimisation in Scotland”, *Scottish Executive Central Research Unit*, 2002, 20-24. orr.

³⁰ 1993ko apirilaren 22ko gauean Stephen Lawrence, 18 urteko nerabe beltza, basatiki hil zuten Londresko autobus geltoki batean lagun batekin batera zain zegoela. Bospasei gazte zurik irain arrazistak egin zizkioten sastakatu aurretik. Lawrence arraza beltzekoa izate hutsagatik erail zuten. 1997an, Sir William MacPherson epaile erretiratuaren eskutik ikerketa ofizial bat egitea erabaki zen, poliziaren jardura arduragabe eta eskumenik gabearen ondorioz egondako presio publikoaren ondorioz. Eraitza 1999ko otsailean argitaratutako 335 orrialdeko txosten bat izan zen (MacPherson Txostena). Bertan mahai gainean jartzen da nagusi den arrazakeria instituzionala eta, era berean, Londresko poliziak egindako ikerketa kezagarri eta akastuna, arraza-elementua agerian utziz. Une horretatik aurrera, aurrekaririk gabeko arreta publiko eta mediatikoari, agenda politikoan arrazismoa sartzea gehitu zitzaion. MACPHERSON, W., “The Stephen Lawrence Inquiry: Report of an inquiry by Sir William MacPherson of Cluny”, HMSO, 1999, 47.12-47.14 atalak

bera merezi behar zuten³¹. Aurrekoaren ildotik, estatistika-buletinak gertakaritzat honakoa ulertu behar zela argitzen zuen: “*edozein gairi buruz, edozein bitartekoren bidez egindako komunikazio oro, poliziaren arretara iristen dena eta honen ondorioz jardutea eska daitekeena*”³².

Beraz, gakoa da gertakariak jasotzearen polizia-jarduketa ez dela mugatzen polizia-agentearen diskrezionalitateara, biktimaren edo beste edozein pertsonaren gertatu denaren inguruko pertzepziora baizik³³. Are gehiago, informatzaileari ezin zaio eskatu pertzepzio hori justifikatzeko edo frogatzeko, eta polizia-agentek ere ezin izango du emandako informazioa zuzenean zalantzan jarri. Hurbilketa objektibo batean datza beraz, biktiman zentratua (*victim-centred Approach*)³⁴, eta horrek, hasiera batean, *ad extra* eztabaidaezinak diren gertaerak salatzeke orduan konfiantza areagotzen laguntzen duela pentsarazten du. Errealitatea, gertatu ohi den bezala, oso bestelakoa da. Polizia-instantziek ezagutzen dituzten gertakarien kopurua, gaur egun, benetan jazotako gertakariena baino askoz txikiagoa da. Nolanahi ere, biktimarengan zentratutako hurbilketa horrek ere aldaketa ekarri zuen Eskoziako poliziak gertakaria erregistratzeko

³¹ MACPHERSON, W., “The Stephen Lawrence Inquiry... op. cit., 47.12-47.14 atalak

³² SCOTTISH EXECUTIVE, “Racist incidents recorded by the police in Scotland, 2003/04 to 2005/06”, *Scottish Executive*, 2007, 3.6 atala

³³ 1999an argitaratutako MacPherson txostenaren oihartzunak berehalako erantzuna lortu zuen Eskozian. Urte berean, *Association of Chief Police Officers in Scotland* (ACPOS) erakundeko eta Eskoziako Gobernuko ordezkariak osatutako lantalde bat bildu zen, besteak beste, txostenak eta bertan jasotako gomendioek izango lituzketen ondorioen azterketa zehatza egiteko. Hori guztia 1999ko uztailean abian jarritako *Lawrence Report Action Plan for Scotland* izeneko ekintza-plan orokorrago baten barruan kokatzen zen, non delitu arrazistak ikertzeko jardunbide egokien gomendioak egiten ziren. Gomendio horiek garatzeko, ACPOSek arraza-aniztasunari buruzko bere ekintza-estrategia argitaratu zuen 2000ko martxoaren 14an (*Race Drek eta Strategyk*), 2000ko abuztuaren 1ean Eskoziako poliziari zuzendutako eskuliburu orientagarri batekin osatu zena. Eskuliburuak, beste gai batzuen artean, argi uzten zuen William MacPhersonen sortutako gertakari arrazistaren definizioak ezabatu egiten zuela gertakarien desklasifikazio diskrezionala, gertakari horien berri emateko eta poliziak erregistratzeko fasean. Bildu eta gorde beharreko gutxieneko informazio-estandar baten inguruan ere aholkatzen zuen, etorkizuneko analisi egoki baterako, eta, estatistika penalarri buruzko Eskoziako batzordearen (*Scottish Criminal Statistics Committee*) lanerako oinarri izan zedin. Zehatz-mehatz, *Lawrence Report Action Plan for Scotland*-en egindako gomendioetarako, eta 2001eko otsailera arteko garapenaren inguruko beste kontsiderazio batzuetarako ere, ikus SCOTTISH EXECUTIVE, “The Stephen Lawrence Inquiry. An Action Plan for Scotland”, *Scottish Executive*, 1999.

³⁴ AMNESTY INTERNATIONAL UK, “Tackling hate crime in the UK: A background briefing paper from Amnesty International UK”, *The Human Rights Action Centre*, 2017, 7. or.

erabilitako sisteman³⁵. 2004ko apirilaren 1etik aurrera, SCRS (*Scottish Crime Recording Standard*)³⁶ izenaz ezagutzen den sistema erabiltzen hasi ziren, baina ordura arte, biktimak polizia-ikerketara bat aurrera eramatea nahi ez bazuen, edozein arrazoirengatik, delitua ez zen erregistratzen.

Xehetasun gehiagotan sartu gabe, apiriletik martxora bitartean, lehen aldizkari horretan aztertutako hiru urteetan (2003/04, 2004/05 eta 2005/06), 3.643, 4.546 eta 5.124 gertakari arrazista zenbatu ziren, hurrenez hurren. Txostenean jaso ziren, halaber, jasotako lehen datuen banakatze edo sailkapenak, hala nola polizia-arloari edo komisio-udalerritari buruzkoak, komisio-lekua, asteko eguna, gertakarien iturri informatzaileari buruzkoak, delitu-kopurua eta intzidenteetan antzemandako delitu-tipologiei buruzkoak, akzio penalak hasteko nahikoa ebidentzia zeuden erregistratutako delitu guztien tasari buruzkoak (nahiz eta gero, hainbat arrazoirengatik, ez gertatu), biktima/egilearen jatorri etnikoari buruzkoak, biktima/egileen hizkuntza nagusiari buruzkoak, biktimen/egileen adin-tarteak eta generoari buruzkoak, gertakariaren aurreko bi urteetan biktimak poliziari jakinarazitako gertakarien kopuruari buruzkoak, eta, azkenik, ustezko egilearekiko aurrera eramandako polizia-ekintzei buruzkoak.

Hurrengo txostenek, 2009tik aurrera urtero argitaratutakoek, aurreko urteetan lortutako informazioa berrikusten eta, hala bazegokion, eguneratzen zuten, gerora sortutako datu berrietara egokitu zedin. Lehenengo txostenaren antolaketa-egitura berari jarraituz, lortutako zifrek polizia-instantziek erregistratutako gertakari arrazisten kopuru hau eman zuten: 4.519 (2004/05), 5.112 (2005/06), 5.322 (2006/07), 5.247 (2007/08),

³⁵ Zifra beltz hori funtsezko faktoretzat hartzen da, erregistratutako gertakarien kopuruan nabarmen eragiten duenak. Ikus, adibidez, Eskoziako Gobernuak Eskoziako poliziarekin elkarlanean gorroto gertakariei buruz argitaratutako 2019ko otsaileko txostena. Txosten hau biktimizazioari buruzko inkesta orokorrako bati begira egin da, eta hortik eratorritako mugak argiak badira ere (adib.: ez dago gorroto-delituei buruzko informaziorik, baizik eta indarkeria-delituei eta jabetzaren aurkako delituei buruzkoa, eta kategoria horien barruan ere badira salbuespenak), inkesta horren bertsio eguneratuenak – 2009ko uztailekoa – % 35eko tasa zenbatetsi du, poliziari jakinarazten zaizkion delitu guztiei dagokienean. Bestalde, 2008/09 urteaz geroztik tasa egonkorra da. SCOTTISH GOVERNMENT, “Developing information on hate crime recorded by the police in Scotland”, *Scottish Government*, 2019, 18. or.; SCOTTISH GOVERNMENT, “Scottish Crime and Justice Survey 2017/18: Main Findings”, *Scottish Government*, 2019, 5. eta 33. orr.

³⁶ Zehatz-mehatz, ikus SCRSari buruzko 2019ko ekainerako gida eguneratua, gorroto-delituei edo gertakariei buruzko atal oso bat duena: SCOTTISH GOVERNMENT, “Scottish Crime Recording Standard and Counting Rules”, *Scottish Government*, 2019, 43-48. orr.

5.145 (2008/09), 4.960 (2009/10), 4.911 (2010/11), 5.389 (2011/12) 4.628 (2012/13) y 4.807 (2013/14)³⁷

Hain zuzen ere, aipatutako azken estatistika-buletinak – 2015eko azaroan argitaratua – etorkizunera begira egindako gogoeten atalean adierazi zuen gertakari arrazistei buruzko estatistika-buletina beste kategoria babestu batzuetara aldatzeko eta zabaltzeko aukera aztertzen ari zela. Bestela esanda, gorroto-gertakariei buruzko txosten berri baten inplementazioa baloratzen ari zela, horrela, txostena arraza-elementura mugatuta geratuko ez litzatekeelarik. Eskoziako Gobernuak eskoziar poliziarekin batera lan egiteko konpromisoa hartu zuen, azken hauek ordura arte gertakariak erregistratzeko sistemak jaso zuen informazioa garatu ahala³⁸. Sistema hori, IVPD (*Interim Vulnerable Persons Database*) izenez ezagutzen zena, 2013an sartu zen, eta 2014an eskala nazionalera egokitu zen. Baina ez da polizia-erregistroko sistema bat zehazki, SCRS izango litzatekeen bezala; aitzitik, datu-base gehigarri bat da, gorroto-kriminalitatearekin zerikusia duten gertakariak sartzeko. Bertan, gaur egun oraindik ere, honako informazio hau jasotzen da: “*Ezbehar egoera eta/edo zaugarritasun egoera jakinen bat jasaten ari diren edo jasaten ari direla sumatzen den pertsonen buruzkoa, beraien egungo edo etorkizuneko ongizatean eragina izan dezakeena*”³⁹. Informazio honek, datuen iraulketa jada eskuz egin behar ez izatearekin batera, Eskozian erabilitako hainbat bilketa-sistemaren datuak aurrez jasoz, 2016tik aurrera Eskoziako Gobernuak Justiziako Zerbitzu Analitikoek (*Justice Analytical Services*) gorroto-gertakarien zeharkako azterketa prospektiboari forma ematen joatea ahalbidetu zuen.

³⁷ Txosten guztiak, 2007ko martxoan argitaratutako lehenengotik 2015eko azaroan argitaratutako azkenerraino, online eskuragarri daude: <https://www.gov.scot/Topics/Statistics/Browse/Crime-Justice/PubRacistIncidents>

³⁸ Ikus: SCOTTISH GOVERNMENT, “Racist incidents recorded by the police in Scotland, 2013/14”, *Scottish Government*, 2015, 6.58-6.60 atalak; SCOTTISH GOVERNMENT, “Justice Analytical Services. Analytical Programme 2015-16”, *Scottish Government*, 2015.

³⁹ SCOTTISH GOVERNMENT, “Developing... op. cit., 3. eta 19. orr.

2.1.4. Gorroto-gertakariak (2018/19)

Ezer baino lehen, jarraian aipatuko diren txostenetan helburu estatistiko hutsekin desberdinu diren “crimes” eta “offences” terminoen esanahia adieraztea komeni da. “Crime” zuzenbide penaleko urraketa larriagoetarako erabiltzen da normalean, eta “offence”, berriz, larritasun txikiagoko bortxaketetarako. Larritasunaren irizpideak, “Crime” edo “offence” horiengatik ezar litekeen kondena maximoan datza.

Landuko diren txostenen eranskin gisa eman ohi diren sailkapenei edo jarraibideetan oinarrituz, aurreratu daiteke gorroto-delitu gehienak “*offence*” terminoarekin bat etorriko direla; izan ere, “*Offence*” terminoak askotariko delituen azpitalde bat hartzen du barnean (*miscellaneous offences* izenekoa), besteak beste, eraso-delituak (*assaults*), ordena publikoaren nahastea (*breach of the peace*), portaera mehatxagarria edo iraingarria (*threatening or abusive behaviour*)⁴⁰, jazarpena (*stalking*), arraza-arrazoiengatik astundutako zirikatzea (*racially aggravated harassment*), arraza-arrazoiengatik astundutako portaera (*racially aggravated conduct*), etab. “*Crime*” terminoaren barruan sartzen dira, aldiz, besteak beste, hilketa (*homicide*), eraso larria (*serious assault*)⁴¹ edo, ordena publikoaren aurkako delituak (*crimes against public order*)⁴².

⁴⁰ 2010-eko *Criminal Justice and Licensing (Scotland) Act*-aren 38. artikulua arabera, pertsona batek mehatxuzko edo irainezko portaera delitua burutzen du honako kasu hauetan: (a) modu mehatxagarrian edo iraingarrian jokatzeko badu; (b) zentzuzko pertsona batek beldurra edo alarma izatea litekeena denean; (c) portaerarekin beldurra edo alarma eragiten saiatzen bada, edo portaerak hori eragingo ote lukeenaren inguruan zuhurtziagabekeriak jokatzeko ez bada. Hau edozein portaera motari aplikatzen zaio, barne hartzen direlarik, bereziki, egiten, esaten edo komunikatzen diren gauzak, portaera-ekintza bakar bat izan edo portaera-patroi bat izan. Ikus SCOTTISH GOVERNMENT, “Developing ... op. cit., 29. or.

⁴¹ Eraso edo *assault*-a zuzenbide arrunteko delitua da Eskozian. Eraso larri baten (*serious assault*) eta eraso arrunt baten (*common assault*) artean behar bezala bereizteko, Eskoziako poliziak honako definizio hau erabiltzen du: “*Biktima/informatzailea lesio horren tratamendurako ospitaleratzea beharrezkoa duten zauriak eragiten dituen eraso bat, edo ospitaleratuta egon ala ez honako lesio hauek eragiten dituen: hausturak, barne-zauriak, garuneko min larria, puntuak behar dituzten ebakiak disfuntzioak edo desitxuratzeak eragin ditzaketenean, eta disfuntzioak edo desitxuratzeak eragin ditzaketenean edozein lesio*” Ikus SCOTTISH GOVERNMENT, “Developing ... op. cit., 29. or.; SCOTTISH GOVERNMENT, “Scottish Crime Recording ... op. cit., 117. or.

⁴² SCOTTISH GOVERNMENT, “Criminal proceedings in Scotland, 2017-18”, *Scottish Government*, 2019, 99-103. orr.; SCOTTISH GOVERNMENT, “Recorded crime in Scotland, 2018-19”, *Scottish Government*, 2019, 118-124. orr.

Erregistroa, poliziala izan arren, ez da hasieran aurrera eramaten. Jarraian, gorroto delituei buruzko informazioa erregistratzeko eskoziar poliziako ofizialek jarraitzen duten prozesu guztia nolakoa den azalduko da laburki. Hau da, gertakari baten berri izaten duenetik poliziak egozpen bat egitea erabakitzen duen arte eta fiskaltzari parte ematen dion arte (*to charge and to submit a report*) jarduteko protokoloa zein den.

a) Poliziak gorroto-gertakarien aurrean jarduteko modua

Gertakari potentzial bati buruzko lehen ebidentziaren aurrean, informazio hori STORM (*System for Tasking and Operational Resource Management*) izeneko sistema batean sartzen da. STORM, 2018ko otsailetik gutxienez, eskoziar poliziak maila nazionalean erabiltzen duen aginte eta kontrol sistema (*command and control system*) bezala uler daiteke. Gertakaria sisteman sartu bezain laster, hasierako sailkapen bat jasotzen du, eta sailkapen horrek aldaketak izan ditzake ikerketek aurrera egin ahala. Hain zuzen ere, lehen sailkapen horietako batek adieraziko du gorroto-elementu bat duen gertakaria den ala ez. Hau da, gertakari generiko batez hitz egitetik gorroto gertakari gisa katalogatzera pasatzen da. Gainera, ikerketek aurrera egiten duten neurrian, gertaera hori bera beste sistema independente batean erregistratzea eragin dezake: *CMS* edo *Crime Management System*-ean. Sistema honek gertakariak baino delituak kudeatzeko balio du, baina bertan jasotako delituak STORM eko gertakariaren erregistro-zenbakiari lotuta egongo dira. Hala ere, STORM ez bezala, CMS ez dago homogeneizatuta, eta polizia-dibisio desberdinak delituak kudeatzeko sistema alternatiboak erabiltzen egon daitezke.

Polizia-ikerketa amaitzen denean, STORM sisteman gertakariari dagokion sailkapena eguneratzen da, sei kode desberdineraino esleiri daitezkelarik. Kode horien artean dago azkenean elementu gorrotagarriren bat dagoen ala ez, edo delituaren berri eman den CMSn erregistratzeko. Gorroto elementu badago, beste erregistro bat ireki behar da IVDPn. Aurreratu den moduan, datu-base nazional bat da, gorrotoagatiko kriminalitatearekin zerikusia duten gertakariak jasotzen dituena. IVDPk, besteak beste,

behin baino gehiagotan biktima izan diren pertsonak identifikatzeko aukera ematen du, baita berrerortzen diren egileak identifikatzeko aukera ere. Hala eta guztiz ere, IVDPko STORM gertakari-zenbakiaren erregistroa oraindik borondatezkoa da (zehazki, testu librea sartzeko atal bat da), eta, beraz, sistema edo datu-base ezberdinetan jasotako informazioa ezin izango da beti gurutzatu. Hala ere, IVDParen diseinuak berak kalitate handiagoko datuak ateratzea errazten duela adierazi da. Izan ere, auto-matching proba batzuen eta eskuzko beste egiaztapen batzuen ondoren, poliziak 2016/17ko bigarren erdian erregistratutako gorroto-gertakarien % 88 gutxienez IVPDn erregistratu zirela jakin zen. Eskoziako Gobernuko estatistikariek eta Eskoziako poliziak portzentaia hori nahikoa handitzat jo zuten datuaren jasotzeari zegokionean.

b) Errealitate enpirikoa: Banakapena eta interesgarriak izan daitezkeen datuak.

Poliziak 6.736 gorroto-gertakari erregistratu zituen IVPDn 2017/18ean. Kopuru hori, gorabeherekin bada ere, aurreko urteetakoarekin bat dator (6.600 eta 7.000 artean)⁴³.

Logikoa denez, Glasgow (1.867) eta Edinburgo (1.343) dira gehien nabarmentzen diren hiriak, bien artean Eskoziako gorroto gertakari guztien %48 osatuz. Astungarriaren funtsa den ezaugarriaren arabera, 4.491 gertakari (% 66,67) arrazari dagozkio, 1.085 gertakari (% 16,10) sexu-orientazioari, 504 gertakari (% 7,48) erlijioari, 323 gertakari (% 4,76) astuntze anizkun bati (non arraza eta erlijioaren tandem nagusitzen den 160 gertakariarekin), 274 gertakari (% 4,06) desgaitasunari⁴⁴ eta 59 gertakari (%0,87) transgenero-identitateari.

Delitu-tipologiari dagokionez, mehatxuzko edo irainezko portaera gainerakoen gainetik kokatzen da. 2017/18 urteko 6.736 gorroto-gertakarietatik 3.031 delitu horren ingurukoak ziren (% 44,99). Gertakari-kopuru handienetik txikienera ordenatuta, honako

⁴³ 2014/15ean 7.029 gorroto-gertakari izan ziren, 2015/16an 6.786 eta 2016/17an 6.577. Ikus SCOTTISH GOVERNMENT, "Developing ... op. cit., 19-20. orr.

⁴⁴ Zifra horiek guztiak konstante mantentzen dira, aldaketa minimoekin 2014/15 urteaz geroztik, urte horretan lortu baitziren horri buruzko datuak. SCOTTISH GOVERNMENT, "Developing ... op. cit., 21. or.

hauek ere nabarmentzen dira: arraza-arrazoiengatik astundutako portaera 1.561 gertakariarekin (% 23,17), eraso arrunta 886 gertakariarekin (% 13,15) edo 2003-ko *Communications Act*-eko 127. artikuluko delituak 364 gertakariarekin (% 5,40). Aurreko guztiak, salbuespenik gabe, “Offences” kategoriarekin lotzen badira ere, “Crimes” kategorian, adibidez, bandalismo-delituak (*vandalism*) nabarmentzen dira, 243 gertakariarekin (% 3,60)⁴⁵.

Are gehiago, datuak aurrekoak moduko delituetan babestutako kategoriekin harremanetan jarriz bereiz daitezke. Zehaztu beharra dago, gorroto-gertakari bat kategoria desberdinetan kokatu daitekeela, biktimizazio anizkoitza egon bada. Arrazari dagokionez, 4.765 gertakaritan agertu da, eta horietatik 1.705 portaera mehatxagarri edo iraingarriekin lotuta zeuden (% 35,78), 1.561 arrazagatiko portaera astunduekin (% 32,75) eta 665 eraso komunarekin (% 13,95). Sexu-orientazioari dagokionez, 1.224 gertakaritan agertu da, eta horietatik 860 portaera mehatxagarri edo iraingarriekin lotuta zeuden (% 70,26) eta 136 berriz eraso komunarekin (% 11,11). Erljioari dagokionez, 711 gertakaritan agertu da, eta horietatik 402 portaera mehatxagarri edo iraingarriekin lotuta zeuden (% 56,54). Desgaitasunari dagokionez, 308 gertakaritan agertu da; horietatik 177 portaera mehatxagarri edo iraingarriekin lotuta zeuden (% 57,46), eta 38, berriz, 2003-ko *Communications Act*-eko 127 artikuluko delituarekin (% 12,33). Transgenero-identitateari dagokionez, 82 gertakaritan agertu da, eta horietatik 50 portaera mehatxagarri edo iraingarriekin lotuta zeuden (% 60,97), eta 14, berriz, eraso komunarekin (% 17,07)⁴⁶.

Guztira, 246.480 delitu edo “crimes” erregistratu zituen poliziak 2018/19an, eta 247.791 “offences”⁴⁷. Arraza-arrazoiengatik astundutako zirikatzeari dagokionez, “Offences” kategoriaren barruan sartuta dagoena, 2018/19an 108 polizia-miaketa egin ziren honen harira. Arraza kontuengatik astundutako portaerari dagokionez, 1.636 izan

⁴⁵ SCOTTISH GOVERNMENT, “Developing... op. cit., 22-23. orr.

⁴⁶ SCOTTISH GOVERNMENT, “Developing... op. cit., 24-25. orr.

⁴⁷ Ikus SCOTTISH GOVERNMENT, “Recorded crime...op. cit., 11-21. eta 65-66. orr.
SCOTTISH GOVERNMENT, “Criminal proceedings...op. cit., 9. or.

dira honen harira egindako polizia miaketak⁴⁸. Gainerako delituei dagokienean (esate baterako, eraso-delitua, ordena publikoa asaldatzea etab.), ez da datu interesgarriak ezagutzeen, ez baitago astungarria erantsia duen ala ez berariaz jasota.

2.1.5. Beste datu-iturri ofizial batzuk

Aurreko informazio guztia gorroto gertakarien jasotzea poliziaren eskutik etortzearekin harremanduta bazegoen ere, argitaratu diren txosten gehienak ez dira norabide horretan bideratuta egon, txosten ofizial orokorren zein sektorialen kasuan. Zehazki, praktika orokorrena Eskoziako Fiskaltzari (*Crown Office and Procurator Fiscal Service* edo, siglengatik, *COPFS*) jakinarazten zaizkion gorroto-gertakariei buruzko datuak erabiltzea da eta Eskoziako Fiskaltzak berak argitaratzen eta zabaltzen dituelarik urtero gorroto-delituei buruz berak kudeatzen dituen kasuen benetako bolumena islatzen duten txostenak. Horrez gain, dagoeneko kondenatuta dauden pertsonak aurrera eramandako delitu nagusiei lotutako astungarrien datuak lortzeko aukera dago. Azken hauek, datu bereziak dira, Eskoziako auzitegietan amaitutako prozedimendu penalei buruzko gobernu-txosten zabalago baten parte direnak.

Hala eta guztiz ere, argitu behar da eskuragarri dauden datu-iturrien emaitzak alderatzeko edozein ariketa tentuz eta amaierako automatismorik gabe egin beharko dela, horiek Eskoziako justizia-sistemaren fase oso desberdinekin lotzen baitira⁴⁹.

a) Eskoziako Fiskaltza (Crown Office and Procurator Fiscal Service)

Crown Office and Procurator Fiscal Service edo *COPFS* eskualdeka antolatzen da, eskualde bakoitzak hau kudeatzen duen fiskal nagusi bat (*Area Procurator Fiscal*) eta bertan lan egiten duten eta fiskal nagusiaren menpekoak diren tokiko beste fiskal kopuru jakin bat dituelarik (*Procurator Fiscals*). Normalean, poliziak egiten du delitu-itxura duten gertakarien lehen ikerketa, komenigarri denean, dagokion tokiko fiskalari egozteko

⁴⁸ SCOTTISH GOVERNMENT, "Recorded crime...op. cit., 72. eta 102. orr.

⁴⁹ SCOTTISH GOVERNMENT, "Developing... op. cit., 10. or.

eta parte emateko (*to charge and to submit a report*). Lehen une horretan, tokiko fiskalek jasotzen dituzten parteak (egozpenenak) COPFS beraren datu-base operatibo batean zentralizatzen direlarik. Fiskalek azkenean norbaiten aurkako akusaziorik edo ekintzarik egin duten jakin beharrik gabe (*to prosecute* edo *to take action*), edo, are gehiago, jaso duten informazioa nola kudeatuko duten jakin gabe (adib.: karguen aurkezpenaren ordezkoko neurri gisa isun fiskala ezartzea), hasieran datu-basean sartzen diren datuak soilik izango dira argitaratutako txostenetan garatu eta aztertuko direnak⁵⁰. Lehenengoa 2012an argitaratu zen, baina aurreko urteetako datuak ere jasotzen ditu (2006/07-2011/12). Eskuragarri dagoen azkena 2018/19 urteari buruzko txostena⁵¹ da, eta aurreko urteetako zifrak biltzen dituenez, datuen jarraipena ere errazten du⁵². Txosten horiek berezitasun bat ere badute: COPFS –ari parte eman zaion egozpenen kopurua jasotzen dute eta ez ordea pertsona inputatu kopurua ezta ere egozpenen oinarrian dauden gertakarien kopurua.

Poliziak edo beste agentzia batzuek, guztira, 4.616 egozpenen berri eman diote COPFSi 2018/19an⁵³. Hala eta guztiz ere, zifra hori, egitateei lotuta benetan aurreiritziengatik astungarri bat baino gehiago egon bada ere akusazio bakar bat bezala konputatuz lortzen da. Katgoria babestuen arabera banakapena, aldiz, egitateetan agertzen den katgoria bakoitza bereizita eta dagokion sailkapenean zenbatuta egiten da (adibidez: biktima beltz eta homosexual bat arraza-egozpen gisa eta sexu-orientazioagatik egozpen gisa zenbatzen da). Aurrekoa kontuan hartuta, eta nagusitasun-ordenaren arabera, honako hauek ditugu: arraza-delituak (*racial crimes*)⁵⁴, 2.880

⁵⁰ Horiek guztiak online daude eskuragarri, kontsultatu eta jarraipena egiteko: <https://www.copfs.gov.uk/publications/equality-and-diversity>

⁵¹ SCOTTISH GOVERNMENT, “Hate crime in Scotland 2018-19”, *Crown Office and Procurator Fiscal Service*, 2019.

⁵² Nagusiki, 2010/11 eta 2018/19 denbora-tarteetako datuak jasotzen dira; izan ere, legegintza-bidetik sartutako katgoria berrienak (desgaitasuna, sexu-orientazioa eta transgenero-identitatea) 2010eko martxoaren 24an sartu ziren indarrean. Hala ere, txostenak aurreko urteei buruzko gogoeta txiki batzuk ere jasotzen ditu.

⁵³ Aurreko urteetan berri emandako egozpenen kopuruak guztira honako hauek dira: 5.332 (2010/2011), 6.053 (2011/12), 5.408 (2012/13), 5.658 (2013/14), 5.208 (2014/15), 5.334 (2015/16), 5.037 (2016/17) eta 5.060 (2017/18).

⁵⁴ Hori arraza-arrazoiengatik astundutako zirikatze eta portaera delituari (*racially aggravated harassment and behaviour*) buruzko edozein egozpenari dagokio, edo 1995ko *Criminal Law (Consolidation) (Scotland)*

egozpenekin; sexu-orientazioagatik astundutako delituak (*sexual orientation aggravated offences*)⁵⁵, 1.176rekin; arrazoi erlijiosoengatik astundutako delituak (*religiously aggravated offences*)⁵⁶, 529rekin; desgaitasunagatik astundutako delituak (*disability aggravated offences*)⁵⁷, 289rekin eta transgenero-identitateagatik astundutako delituak (*transgender identity aggravated offences*)⁵⁸, 40rekin. Horrek esan nahi du arraza-delituak egozpenen erdia baino gehiago osatzen dutela,% 58,60 inguru, eta sexu-orientazioa (% 23,93), erlijioa (% 10,76), desgaitasuna (% 5,88) eta transgenero-identitatea (% 0,81) bezalako markatzaileak distantzia handi batera daude termino kuantitatiboetan.

Hala eta guztiz ere, bidezkoa da esatea 2018/19an arraza-delituen egozpenetan gutxieneko historikoa lortu dela, konparatu ahal izateko datuak dauden urteekin alderatuta (lehena 2003/04 urtea izanik). Arraza-arrazoiengatik astundutako portaera eta zirikatze delituei dagokienean pixkanakako beherakada egon da, gaur egun 1.205 egozpen baitaude (% 41,84). Arrazan oinarritutako astuntzea dakarten beste delitu batzuk ordea areagotu egin dira, hala nola portaera mehatxagarria edo iraingarria (*threatening or abusive behaviour*) edo oldarkortasun delitua (*assault*). Guztira, beste delitu horiek 1.675 egozpen (% 58,15) izan dituzte 2018/19 urtean. Sexu-orientazioaren inguruko

Act delakoaren 50A artikulua arabera, 1986ko *Public Order Act*-eko 18, 19 eta 23 (1) artikuluetan adierazitakoaren arabera, edo 1998ko *Crime and Disorder Act*-eko 96. artikuluan aurreikusten diren arrazagatiko edozein astuntzeren arabera.

⁵⁵ Sexu-orientazioarekin lotutako aurreiritzi astungarria dakarten egozpenei dagokienez, 2009-ko *Offences (Aggravation by Prejudice) (Scotland) Act*-aren 2. artikulua arabera.

⁵⁶ Erlijio-arrazoiak eragindako portaera baten ondoriozko astungarria dakarten egozpenei dagokienez, 2003-ko *Criminal Justice (Scotland) Act*-aren 74. artikulua arabera. Gainera, azken txosten espezializatua 2018ko ekainekoa bada ere, Eskoziako Gobernuak zehaztasun handiagoz garatu ditu egozpen horiek. Adibidez, 2017/18 urteari dagokionez, katolizismo erromatarak (*Roman Catholicism*) egozpen gehien jasan zituen, 319 (% 49,68), eta ondoren protestantismoak eta islamak (*Protestantism and Islam*) 174 jasan zituztelarik (% 27,10); islamaren aurkako mespretxuzko portaerak (*derogatory conduct towards Islam*) 115 (% 17,91) izan ziren, eta judaismoaren aurkako mespretxuzko portaerak (*derogatory conduct towards Judaism*) 21 (3,27%). Arrazoi erlijiosoengatik astundu diren delitu zehatzei dagokienez, alde handiz nabarmentzen da portaera mehatxagarria edo iraingarria (*threatening or abusive behaviour*), 502 egozpenekin (% 78,19). Xehetasunez, gogoeta horietarako eta beste askotarako, ikus SCOTTISH GOVERNMENT, "Religiously aggravated offending in Scotland 2017-18", *Scottish Government*, 2018.

⁵⁷ Desgaitasunarekin lotutako aurreiritzi astungarria dakarten egozpenei dagokienez, 2009-ko *Offences (Aggravation by Prejudice) (Scotland) Act*-aren 1. artikulua arabera.

⁵⁸ Transgenero-identitatearekin lotutako aurreiritzi astungarria dakarten egozpenei dagokienez, 2009-ko *Offences (Aggravation by Prejudice) (Scotland) Act*-aren 2. artikulua arabera.

aurreiritziei lotutako astungarria barne hartzen duten egozpenei dagokienez, 2014/15ean izan ezik, etengabe igo dira. Erljioaren inguruko aurreiritziei lotutako astungarria barne hartzen duten egozpenei dagokienez 2004/05 urteaz geroztik izandako kopururik txikiena lortu da. Desgaitasunaren inguruko aurreiritziei lotutako astungarria barne hartzen duten egozpenei dagokienez, maximo historikoaren aurrean gaude. 2016/17 urtean izan ezik, aurreko arrazoiengatiko egozpenak urtez urte gorantz egin dute. Eta transgenero-identitatearen aurreiritziei lotutako astungarria barne hartzen duten egozpenei dagokienez, gorantz joan dira denbora guztian, 2018/19 urte honetan izan ezik.

Azkenik, txostenean jasotzen den beste datu interesgarri bat da, COPFSek bere datu-basean jasotzen dituen egozpenetatik jarduera judizialari hasiera eragiten dioten egozpen kopuruari erreferentzia egiten diola (*Court proceedings*). Erabaki hori hartzeko, fiskalak beti legea eta frogak kontuan hartu beharko dituzte⁵⁹, baita, bereziki, interes publikokoak ere⁶⁰. Arraza delituen kategoriari dagokionez, aipatutako 2.880 egozpenetatik 2.325ek (% 80,72) Auzitegietan amaitu zuten. Gainera, beste 226 egozpenetan (% 7,84), hasierako akusazioa bertan behera geratu zen, baina akusatu beraren aurkako beste egozpen bat egon zen eta lehen egozpenean jasotako informazioa erabili ahal izan zuten. Beraz, termino erlatiboagoetan bada ere, jarduketa judizialetera bideratutako 2.551 egozpenez

⁵⁹ Legezko kontsiderazioei dagokienez, egiaztatu beharko da portaera indarrean dagoen Eskoziako legeko delitu batean oinarritzen dela, eta akusazioa egitea eragozten duen legezko eragozpenik ez dagoela. Kontuan hartu beharko dira, halaber, 1998-ko *Human Rights Act* eta 1998-ko *Scotland Act*-ek ezarritako betebeharrak, fiskalak Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren arabera jardun dezala exigitzen dutenak. Froga-kontsiderazioei dagokienez, froga nahikoa egon beharko da, eta arrazoizko zalantza orotatik harago, kasuan kasuko egitateak finkatzen dituzten zenbait alderdi frogatu beharko dira. Fiskalak ere etorkizuneko Auzitegi batek azterketa onartuko lukeen ala ez baloratu beharko du. Azkenik, proba fidagarria den baloratu behar da, kalitate nahikoa izan dezan. Frogaren inguruko sinesgarritasun edo egiazkotasun falta ere fiskalak kontuan hartu beharko du akusatzerako orduan. Ikus CROWN OFFICE AND PROCURATOR FISCAL SERVICE, "Prosecution Code", *Crown Office*, 2001, 3-5. orr.

⁶⁰ Interes publikoaren testa gainditzeko, faktore garrantzitsu guztiak baloratu beharko dira, betiere kasu zehatzaren inguruabarren arabera, garrantzi handiagoa edo txikiagoa izango dutenak. Besteak beste, honako faktore hauek har daitezke kontuan: (1) delituaren izaera eta larritasuna; (2) delituak biktimarengan eta beste lekukoengan duen eragina; (3) akusatuaren adina, testuingurua eta inguruabar pertsonalak; (4) biktimaren eta beste lekuko batzuen adina eta inguruabar pertsonalak; (5) biktimaren jarrera; (6) delitua egiteko arrazoia edo motibazioa; (7) delitua egin zenetik igarotako denbora; (8) inguruabar aringarriak; (9) Akusatuari akusazioak ekarriko lizkiokeen ondorioak; (10) delitua errepikatzeak arriskua; (11) bide zibilean egokiagoak diren konponbideak izatea; (12) epaileak kondenarekin batera neurri jakin batzuk hartzeko duen gaitasuna, kasu zehatzean; eta (13) arazo publiko eta orokorra den, eta orokorrean baita ere jokoan dauden tokiko interesak. Zehatz-mehatz, ikus Véase CROWN OFFICE AND PROCURATOR FISCAL SERVICE, "Prosecution ... op. cit., 6-8. orr.

(% 88,56) hitz egin daiteke. Era berean, sexu-orientazioagatik astundutako delituei dagokienez, aipatutako 1.176 egozpenetatik 967k (% 82,22) Auzitegietan amaitu zuten. Gainera, beste 103 egozpenetan (% 8,75) jatorrizko akusazioa bertan behera geratu zen, lehen aipatutako balizko ondorioekin. Beraz, jarduketa judizialetera bideratu diren 1.070 eragozpenez (% 90,98) hitz egin daiteke. Arrazoi erlijiosoengatik astundutako delituei dagokienez, aipatutako 529 egozpenetatik 453k (% 85,63) Auzitegietan amaitu zuten. Gainera, beste 41 egozpenetan (% 7,75) jatorrizko akusazioa bertan behera geratu zen, lehen aipatutako balizko ondorioekin. Beraz, jarduketa judizialetera bideratu diren 257 eragozpenez hitz egin liteke (% 88,92). Transgenero-identitateagatik astundutako delituei dagokienez, aipatutako 40 egozpenetatik 29k (% 72,50) auzitegietan amaitu zutela besterik ez da adierazten.

b) Eskoziako auzitegiak: Emandako kondena-epaiak.

2017/18an, 95.254 pertsonaren aurkako karguak aurkeztu ziren Eskozian, eta 82.716 kondena ezarri ziren⁶¹. Azken datu honen barruan, astungarrien azpimultzo bat dago – desgaitasunarengatik, arrazagatik, erlijioarengatik, sexu-orientazioarengatik eta transgeneroagatik–, eta horren kondena-kopurua Eskozian gertatzen diren prozedura judizial penalei buruzko urteko txosten berean –eta orokorrean– xehatzen da⁶². Identifikatzaile horiek datu-base batean gehitu dira, azkenean epaitzen diren egozpen batzuen osagarritzko informazio bezala. Datu-baseak, zehazki, *Criminal History System* (CHS) du izena, eta bertan poliziak zein fiskaltzak edozein unetan erregistratu ahal izan dituzte burutu diren delituen izaerari buruzko gogoeta interesgarriak. Hala, zenbait alderdik legegintza-isa dute eta egoitza judizialean frogatu beharko dira (astungarriak). Eta beste alderdi batzuek osagarritzko informazioa besterik ez dute ematen, egozpenaren testuinguru gisa balio dutenak, eta ez da beharrezkoa izango horiek frogatzea (adierazleak). Jarraian datozen datuek, printzipioz, CHS-n dauden astungarri-/adierazleen bolumen osoa jasotzen dute. Aurrekoa esanda, 2017/18 urtean arraza-adierazlea zuten 650 kondena ezarri ziren, 354 sexu-orientazioari buruzkoak, 249 arrazoi erlijiosoei buruzkoak, 58 desgaitasunari buruzkoak eta 12 transgeneroari buruzkoak. Prozedura berari

⁶¹ SCOTTISH GOVERNMENT, “Criminal proceedings...op. cit., 4. or.

⁶² Hemen eskuragarri dagoen azken txostenaz hitz egingo bada ere, 2019ko urtarrilean argitaratua, guztiak daude eskuragarri online kontsultarako: <https://www2.gov.scot/Topics/Statistics/Browse/Crime-Justice/PubCriminalProceedings>

atxikita doan adierazle bat baino gehiago egonez gero, biak hartzen dira kontuan aipatutako kategoria bakoitzaren bolumena zenbatzeko.

Arraza-adierazlea, nahi bada, kondenatua gizonezkoa den 518 kondenatan (% 79,69) eta emakumezkoa den 132 kondenatan (% 20,30) bana daiteke. Sexu-orientazioaren adierazleari dagokionez, kondenatua gizonezkoa den 295 kondena (% 83,33) eta emakumezkoa den 59 kondena (% 16,66) antzeman daitezke. Erlijio-adierazleari dagokionez, kondenatua gizonezkoa den 231 kondena (% 92,77) eta emakumezkoa den 18 kondena (% 7,22) antzeman daitezke. Desgaitasun-adierazleari dagokionez, kondenatua gizonezkoa den 41 kondena (% 70,68) eta emakumezkoa den 17 kondena (% 29,31) antzeman daitezke. Transgenero-adierazleari dagokionez, kondenatua gizonezkoa den 10 kondena (% 83,33) eta emakumezkoa den 2 kondena (% 16,66) antzeman daitezke.

Aurreko adierazleren bat jasotzen duen delitu-tipologiaren arabeko banaketari dagokionez, kondena gehienak delitu multzo batek biltzen ditu, baina ezin da zehaztu ordea horietako bakoitzari egotz dakioken kondena kopurua. Honako delitu hauek dira: ordena publikoa nahastea (*breach of the peace*), mehatxuzko edo laidozko portaera (*threatening or abusive behaviour*), jazarpena (*stalking*), futboleko erasokor-portaera izatea (*offensive behaviour at football*) eta mehatxuzko komunikazioak (*threatening communications*). Aipatu berri den azken delitu hau gaur egun indargabetuta dagoen 2012-ko *Offensive Behaviour at Football and Threatening Communications Act*-ean aurreikusten da. Hemen adierazitako delitu-multzo hauek arraza-adierazlea dutenen kondena guztien 431-a biltzen ditu (% 66,30), sexu-orientazioaren adierazlea dutenen guztizkoaren 304-a (% 85,87), erlijio-adierazlea dutenen guztizkoaren 203-a (% 81,52), desgaitasun-adierazlea dutenen guztizkoaren 47-a (% 81,03) eta transgenero-adierazlea dutenen guztizkoaren 10-a (% 83,33). Honako tipologia hauek nabarmenduko lirateke: batetik, agresio delitu orokorra (*common assault*)⁶³, eta, bestetik, delitu multzo bat, arraza-

⁶³ Arraza-adierazlea daramatzaten agresio delitu orokorreko 104 kondena daude, adierazle hori duten 650 kondena guzti horietatik (% 16). Sexu-orientazioaren adierazleak 26 kondena (% 7,34) dakartza. Erlijio-adierazleak 13 kondena (% 5,22) dakartza. Desgaitasun-adierazleak 5 kondena (% 8,62) dakartza. Transgenero-adierazleak, aldiz, kondena bakarria dakar berekin (% 8,33).

arrazoiengatik astundutako zirikatze delitua (*racially aggravated harassment*) eta arraza-arrazoiengatik astundutako portaera (*racially aggravated conduct*) barne hartzen dituen⁶⁴.

2.2. IPAR IRLANDA

2.2.1. Baliokide normatiboak

Ondorengo lerroetan, gorroto delituei lotutako Ipar Irlandako legediari buruzko esparru deskriptibo gaurkotua garatuko da. Eskoziako kasuarekin gertatzen den bezala, hemen ez gara xehetasun, ñabardura edo interpretazio judizialean geldituko, baizik eta gaiaren legezko egoeraren oinarri sendo bat eskaini nahi da soilik, ondoren errealitate enpirikoa aztertu ahal izateko. Ezaugarri bereizgarri gisa, Ipar Irlandako lege-sistemak (*Northern Irish law*) ez du astungarriko tipo penal bezala, ez eta berezko astuntzerik duen halako tipo berezirik ere. Hau da, ez dago astungarrien bidez ex novo sortutako deliturik, Ingalaterrako lege-sisteman gertatzen den bezala (*English law*)⁶⁵, ezta Eskoziako lege-sistemaren arraza-arrazoiengatik astundutako zirikatzearen pareko deliturik ere (*Scottish law* edo *Scott 's law*)⁶⁶.

i. Astungarri “orokorrak” epaian. Ipar Irlandak Ingalaterran eta Galesen jasotako xedapen astungarri berberak txertatu ditu zigorra zehazteko fasean⁶⁷, salbu eta transgenero-identitatea ez dagoela jasota. Hauek ere Eskoziako xedapenen oso antzekoak dira⁶⁸, nahiz eta aldeak dituzten terminologian. Desberdintasun handiena da xedapen horiek ez daudela legedian sakabanatuta. 2004ko *Criminal Justice (No. 2) (Northern Ireland) Order*-raren (CJNIO) 2. artikulua arabera, delituaren larritasuna baloratzeko orduan, dagokion auzitegiak faktore astungarritzat hartu beharko ditu egitateak, delitua etsaitasunagatik astunduta bazegoen. Era berean, delitu bat etsaitasunagatik astundutzat joko da, baldin eta (i) delitua burutzen denean, edo burutu aurretik edo ondoren, egileak etsaitasuna (*hostility*) aditzera ematen badu (*to demonstrate*)

⁶⁴ Hemen, adibidez, arraza-adierazleak 79 kondena dakartza, adierazle hori duten 650 kondena guzti horietatik (% 12,15).

⁶⁵ GIZA ESKUBIDEEN ETA BOTERE PUBLIKOEN UNESCO KATEDRA/ERTZAINZA, “Informe... op. cit., 51-52. orr.

⁶⁶ Ikus supra, txosten honetan, «2.1.1. Baliokide normatiboak».

⁶⁷ GIZA ESKUBIDEEN ETA BOTERE PUBLIKOEN UNESCO KATEDRA/ERTZAINZA, “Informe... op. cit., 52-53. orr.

⁶⁸ Ikus supra, txosten honetan, «2.1.1. Baliokide normatiboak».

delituaren biktimarekiko, arraza-taldea⁶⁹ edo talde erlijioso⁷⁰ bateko, edo sexu-orientazioari⁷¹, desgaitasunari⁷² edo biktimaren ustezko desgaitasunari lotutako talde bateko kide izateagatik, edota talde hauen ustezko kidea edo haiekien erlazionatzeagatik; edota (ii) delitua arraza-, erlijio- edo sexu-orientazioari buruzko talde bateko kideekiko eta talde horretako kide izatean oinarritutako etsaitasunagatik, erabatekoa edo partziala, edo desgaitasuna edo desgaitasun jakin bat duten pertsonetikiko etsaitasunagatik gertatzen bada. **Baliokidetzak 1995ko ZK-arekin:** ZK-ko 22.4 artikuluko astungarria.

- (A) **CJNIO-n (2. art.) -espresuki- falta diren kategoriak ZK-aren 22.4. artikuluekin alderatuta:** Antisemitismo, ideologia, sexua, sexu-identitatea, genero arrazoiak, gaixotasuna.
- (B) **ZK-aren 22.4. artikuluan -espresuki- falta diren kategoriak CJNIO- arekin (2. art.) alderatuta:** Kolorea, nazionalitatea.
- (C) **CJNIO-ak eta ZK-aren 22.4 art.-ak partekatzen dituzten kategoriak:** Arraza, erlijioa edo sinesmenak, nazioa edo jatorri nazionala, desgaitasuna, sexu-orientazioa, etnia edo jatorri etnikoa.

ii. Gorrotoa eragitea. Gorrotoa eragiteari buruzko delituak eta horren inguruko gainerako xedapenak (*stirring up hatred or arousing fear*) 1987-ko *Public Order (Northern Ireland) Order*-raren (PONIO) 8-17. artikuluetan daude. Eskoziako zigoreremu baliokidean ez bezala, hemen gorrotoa ez da arrazara mugatzen, haren definizioak babestutako kategoriak nabarmen zabaltzen baititu. Kasu honetan, “*gorrototzat*” hartu behar da sinesmen erlijiosoa, orientazio sexuala, desgaitasuna, kolorea, arraza, nazionalitatea (herritartasuna barne) edo jatorri etniko edo nazionalak direla-eta definitutako pertsona-talde batenganako gorrotoa. Bestela, zehatz-mehatz, gorrotoa

⁶⁹ “*Arraza-taldea*” da kolore, arraza, nazionalitate edo jatorri etniko edo nazionalaren arabera definitzen den pertsona-taldea (adib.: eskoziarra, ingelesa, galesa eta irlandarra). Kontzeptu honek Irlandako komunitate nomada hartzen du barne (*Irish Traveller community*), baina ez ordea sinesmen erlijiosoaren edo iritzi politikoaren arabera definitutako pertsonen taldea (CJNIO-ren 2(5). artikulua, 1997-ko *Race Relations (Northern Ireland) Order*-raren 5(1) eta 5(3). artikuluetara bideratzen gaituen hori).

⁷⁰ “*Talde erlijiosoa*” beren burua erlijio-sinesmenaren edo erlijio-faltaren arabera definitzen duten pertsonen taldea da (CJNIO-ren 2(5). artikulua).

⁷¹ “*Sexu-orientazioari buruzko taldea*” da beren burua sexu-orientazioari buruz definitzen duten pertsonen taldea (CJNIO-ren 2 (5). artikulua).

⁷² “*Desgaitasuntzat*” hartzen da edozein eragozpen fisiko edo mentala (CJNIO-ren 2(5). artikulua).

sustatzeko edo beldurra eragiteko delituak -edo eragin dezaketenak- honako hauek dira: a) Hitzzen edo jokaeren erabilera edo idatzizko materialaren erakusketa (9. art.: *use of words or behaviour or display of written material*); b) idatzizko materialaren banatzea edo argitalpena (10. art.: *publishing or distributing written material*); c) grabaketa baten banatzea, erakusketa edo erreproduktzioa (11. art.: *distributing, showing or playing a recording*); e) programa baten irrati-difusioa edo inklusioa kablearen bitarteko zerbitzu batean (12. art.: *broadcasting or including programme in cable programme service*); f) gorrotoa sustatzeko edo beldurra pizteko -edo eragin dezakeen- materiala edukitzea (13. art.: *possession of matter intended or likely to stir up hatred or arouse fear*)⁷³. **Baliokidetzak 1995ko ZK-arekin:** Gorrotoa eragiteagatiko delitua (ZK-aren 510. artikulua).

- | |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>(A) PONIO-n (8-17. art.) -espresuki- falta diren kategoriak ZK-aren 510. artikuluekin alderatuta: Antisemitismo, ideologia, familia-egoera, sexua, sexu-identitatea, genero arrazoia, gaixotasuna.</p> <p>(B) ZK-aren 510. artikuluan -espresuki- falta diren kategoriak PONIO-arekin (8-17. art.) alderatuta: Kolorea, nazionalitatea.</p> <p>(C) PONIO-ak eta ZK-aren 510 art.-ak partekatzen dituzten kategoriak: Arraza, erlijioa edo sinesmenak, nazioa edo jatorri nazionala, sexu-orientazioa, etnia edo jatorri etnikoa, desgaitasuna.</p> |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

2.2.2. Gorroto-delituei buruzko egungo eta etorkizuneko legerian sektarismoa eta aurreiritzi politikoei aurre egiteko beste modu batzuk

Orain arte, Ipar Irlandako lege sistema da bere legedian sektarismo terminoa txertatzen duen Erresuma Batuko bakarra. 2011-ko *Justice Act (Northern Ireland)*-ri (JANI) buruz ari gara. Legeak delitu bat aurreikusten du 37. artikuluan, baldin eta

⁷³ Xehetasunekin, ikus: MCVEIGH, R., "Incitement to hatred in Northern Ireland", *Equality Coalition*, 2018; NORTHERN IRELAND POLICING BOARD, "Thematic review of policing race hate crime", *Northern Ireland Policing Board*, 2017, 46-50. orr.

norbaitek, edozein unetan eta araututako futbol-partida batek irauten duen bitartean⁷⁴, kantikekin (*chants*) bat egin edo parte hartzen badu (*to engage or take part in*), baldin eta kantika horiek: (a) izaera lizunekoak badira, (b) izaera sektariokoak edo lizunekoak badira, edo (c) mehatxatzaileak edo iraingarriak badira (*threatening, abusive or insulting*), edo halakoa den alderdiren bat badute, pertsona baten kolorea, arraza, nazionalitatea (herritartasuna barne), etnia edo jatorri etnikoa, erlijio-sinesmena, sexu-joera edo desgaitasuna dela-eta. Kantiketari aritzea (*chanting*) edozein hitz edo soinu behin eta berriz ahoskatzeari dagokio, bai bakarrik bai beste pertsona batekin edo batzuekin sinkronizatuta.

Hala ere, “*sektario*” hitza erabiltzen bada ere, ez da inoiz definitzen, nahiz eta Ulstergo Alderdi Unionistaren (UUP) oposizioaren aldetik emaitzarik gabeko saiakeraren bat egon den legebiltzarrean. Garai hartako Justizia ministroak, Ipar Irlandako Aliantzaren Alderdiko (APNI) David Fordek, une oro uste zuen kantu sektarioak egitea legean islatu behar zela termino horietan. Halere, onartu behar zen “*sinesmen erlijiosoa*” (protestantea eta katolikoa) eta “*nazionalitatea*” (britainiarra eta irlandarra) aipamenak sektarismoaren kontzeptuaz arduratuko zirela. Hala eta guztiz ere, Justizia Batzordea izan zen sektarismoa esplizituki sartzea gomendatu zuena, baita hura definitzea ere. Horrela, izaera sektarioa duten kantak egingo lirateke, pertsona bati mehatxuak edo irainak egiten bazaizkio edo ekintzak alderdi horiek barne hartzen baditu, pertsona horren sinesmen erlijiosoa edo iritzi politikoa dela eta. Edo kantu horiek egiten bazaizkio pertsona bati talde erlijioso edo politikoko kide gisa. Hasiera batean “*identitate nazional*” terminoa ez egoteak, “*iritzi politikoa*” terminoa aipatzeak adierazpen askatasunerako zekartzan zalantzek, edo sektarismoarako lehen lege-definizio batek etorkizuneko ekintza legegileetan terminoaren ulermena baldintzatuko ote zuen zalantzek, azkenean eragotzi egin zuten behar zen adostasuna proposamena aurrera atera zedin. 2011ko ekainean, Ipar Irlandako Gobernuak Justizia Sailak argitu zuen, legean sektarismoari buruzko definizio legalik ez dagoen neurrian, epaile eta auzitegiak eta justizia penalaren sistemako gainerako operadoreak izan behar zirela “kantu sektarioak egitea” eta “sektarismo”

⁷⁴ “*Araututako futbol-partida batek irauten duen bitartean*”, partida hasi baino ordubete lehenagotik partida amaitu eta ordu erdira arteko denbora-tarteari buruz ari da. Ikus 2011-ko *Justice Act (Northern Ireland)*-ren 35. artikulua.

aipamenentzako lan-definizio bat garatu eta finkatu behar zutenak. Horrela, sortzen den kasuistika konpon liteke⁷⁵. Urte batzuk lehenago, 2005ean, *Northern Ireland Affairs Committee*-ren txosten batean, harridura adierazten zen poliziak milaka gertakari sektario monitorizatu zituelako garai hartan, oraindik definizioen bat adosturik ez bazegoen ere, ezta lege-esparrutik kanpo. PSNI-ko komisariorde batek (*Assistant Chief Constable*) onartu zuen poliziak gertakari horiek behar bezain oinarri zientifikorik gabe monitorizatu zituela⁷⁶.

Gauzak horrela, kontua da sektarismoa⁷⁷ Ipar Irlandako gorroto-delituei buruzko legeriaren artikuluetan jasota dagoela gaur egun ere. Zehazki, 1987-ko *Public Order (Northern Ireland) Order*-rean (8. art.) “gorrotoa” definitzen duen kategoria zabalak, bai eta arraza-taldearen eta erlijio-taldearen kategoriak 2004-ko *Criminal Justice (No. 2) (Northern Ireland) Order*-rean 2. artikulua arabera definiturik, praktikan behintzat, adierazpen jakin batzuk (edo adierazpen sektarioen zati bat) xurgatzen dituzte. Gakoa abiapuntuko zer definizio hartuko den zehaztea da; izan ere, horren arabera, sektarismo terminoa erlijio-sinesmenari buruzkoa izan daiteke soil-soilik, edo nazionalitatean eta/edo iritzi politikoan oinarritutako aurreiritzia ere jaso dezake. Horrela, terminoak autonomoa izan beharko den kategoria gisa jokatuko luke, edo, nahi bada, arrazakeriatik eratorritako kategoria gisa⁷⁸. Fiskaltzaren edo *Public Prosecution Service for Northern Ireland*-ren (PPS) ustez, sektarismoak eragindako delituak arraza edo erlijio kategorien bidez astuntzea planteatu daiteke, kasuaren inguruabarren arabera. Nolanahi ere, oro har sektariorik jo daitezkeen delituetan (adib., JANI-ko 37. artikuluan aurreikusten den

⁷⁵ JARMAN, N., “Defining sectarianism and sectarian hate crime”, *Institute for Conflict Research*, 2012, 1-2. orr.; BRACADALE, L., “Independent review...op. cit., 8.30. atala; WORKING GROUP ON DEFINING SECTARIANISM IN SCOTS LAW, “Final ...op. cit., 16. or.

⁷⁶ NORTHERN IRELAND AFFAIRS, “Northern Ireland Affairs - Ninth Report”, Northern Ireland Affairs Committee Publications, Session 2004/05. Online argitalpena: <https://publications.parliament.uk/pa/cm200405/cmselect/cmniaf/548/54802.htm>

⁷⁷ Ipar Irlandako testuinguruan fenomeno horren ikuspegi zabalagoa izateko, ikus, berriki argitaratu denez, honako txosten hau: MORROW, D., “Sectarianism in Northern Ireland: A Review”, *Community Relations Council (CRC)*, 2019.

⁷⁸ Xehetasunekin, zentzu honetan, ikus JARMAN, N., “Defining... op. cit., 2-8. orr.

delitua), logikoa denez, astungarriak ez du jardungo arraza- edo erlijio-kategoria aktibatuz⁷⁹.

Era berean, lege-definiziorik ez badago ere, PPSk definizio operatibo edo lan-definizio propioa sortu du. Horrela, -gorroto- delitu sektariorik jotzen da *“biktimak edo beste edozeinek sektario gisa jasotzen duen edozein delitu. Ipar Irlandan talde erlijioso edo politiko ezberdinetako kideei aurreiritziengatik egiten zaizkien gorroto delituak deskribatzeko erabiltzen den termino bat da. (...) Ipar Irlandan, gehienbat, talde erlijioso edo politiko ezberdinetako kideen kontra eta aurreiritziengatik burutzen diren gorroto delituak [bigoted dislike or hatred] deskribatzeko erabiltzen den termino bat da. Ipar Irlandako testuinguruan arazorik gabe onartzen da gizabanako edo talde bat katolikotzat edo protestantetzat, nazionalistatzat edo unionistatzat, edo leialtzat edo errepublikanotzat hartu behar dela”*⁸⁰. Hala ere, JARMAN-ek dioen bezala, aurreko definizioan ez da aipatu nazionalitatea edo nazio-identitatea, horrek sor ditzakeen arazoekin. Izan ere, egoera bat sortzen da, zeinean, norbait erasotzen badute bere oinarri erlijiosoagatik (protestantea edo katolikoa), edo bere identitate politikoagatik (errepublikarra edo leialista), delitua gorroto-delitu sektario gisa sartuko litzatekeen; aldiz, erasoak naziotasunarekin zerikusia badu (britainiarra edo irlandarra), gorroto delitu arrazistatzat sailkatuko da, Eskoziako edo Ipar Irlandako lege sistemetan arrazakeriaren kontzeptua ezaugarri hori xurgatzeko bezain zabala dela ikusi baitugu⁸¹.

Laster ikusiko den bezala, PSNI-k gorroto-delituak erregistratu ditu honako kategoria hauek erabiliz: arraza, homofobia (sexu-orientazioa), sektarismoa (*sectarism*),

⁷⁹ PPS FOR NORTHERN IRELAND, “Statistical bulletin: Cases involving hate crime 2018/19”, *PPS for Northern Ireland*, 2019, 5. or; BRACADALE, L., “Independent review...op. cit., 8.33. atala.

⁸⁰ Ikus: PPS FOR NORTHERN IRELAND, “Statistical bulletin... op. cit., 23. or.; PPS FOR NORTHERN IRELAND, “Hate crime policy”, *PPS for Northern Ireland*, 2010, 8. or.

⁸¹ Hain murriztailea eta ulergaitza den definizio honen aurrean, JARMAN-ek gorroto delitu sektarioaren ondorengo definizio hau hartzea gomendatzen du: *“Iparraldeko eta Ipar Irlanda osoan gehiengoa duten bi komunitateetako kide batek (oinarri erlijiosoagatik eta/edo iritzi politikoagatik katoliko edo protestante, britainiar edo irlandar, nazionalista edo unionista, errepublikar edo lealista, edo horren konbinazio batengatik definitzen dena) besteko kide bati (oinarri erlijiosoagatik eta/edo iritzi politikoagatik katoliko edo protestante, britainiar edo irlandar, nazionalista edo unionista, errepublikar edo lealista, edo horren konbinazio batengatik definitzen dena) hitzez, fisikoki edo beste edozein modutan egindako edozein ekintzaz, modu negatiboan zuzentzen dela edo modu horretan zuzentzen dela sumatzen bada”*. JARMAN, N., “Defining... op. cit., 9-10. orr.

fedea/erlijioa (ez sektarioa) [*faith/religi3n (non-sectarian)*], desgaitasuna eta transfobia. Horrela, gorroto-delitu “sektarioaren” eta “fede/erlijioaren” (ez sektario) bidezko gorroto-delituaren arteko kontrajartze horrek bilketa-sistema bereizia dakar, Erresuma Batuko beste lege-sistema batean parekorik ez duena. Horregatik, gertakarien bilketari dagokionez, bi kategoria berri horiei lotutako definizioei erreparatuz gero, sektarismotzat hartzen da PPSk jada ulertzen zuen gauza bera. Eta honako hau gehitzen da: “(...) sektarismoa beste erlijio konfesio batzuekin ere lotu daiteke, islamean dauden sunita eta xiitekin, esate baterako”. Fedearen edo erlijio-taldearen kategoriari dagokionez, honela definitzen da: “*Erljio-sinesmenei edo erlijio-sinesmen ezari buruz definitutako pertsona-talde bat. Horrek kristauak, musulmanak, hinduak, sijak eta erlijio baten barruan dauden sekta ezberdinak barnebilduko lituzke. Inolako sinesmen erlijiosorik ez duten pertsonak ere barnebiltzen ditu*”⁸².

2.2.3. Errealitate enpirikoaren analisiaren sintesi ebolutiboa

Eskoziako kasurako esan bezala, informatzaileari, biktima izan ala ez (adib., polizia-ofizialak, lekukoak, familia-kideak, biktimaren edo delitu zehatzaren xehetasunak dakizkien gizarte zibileko erakunde bat, edo udalerrri horretan burutzen diren gorroto-delituekin ohituta dagoena, etab.)⁸³, ezin zaio eskatu gorroto-gertakari bat jasan duela, ikusi duela edo horren berri duela frogatzeko. Ildo horretan, pertzepzioaren estandar objektibatu bat aplikatzen da gertakaria erregistratzeko (*perception-based recording*). Bestela esanda, ez da froga-estandarrik (*evidential test*) erabiltzen gertakariak salatzeke lehen une honetan. Aitzitik, elementu gorrotagarria agenteentzat hautematerik ez badago, informatzaileari galdetu ahal zaio zerk bultzatzen duen bera horrela izan dela pentsatzera. Informatzaileak ematen duen informazio hori erregistratu egiten da,

⁸² PSNI, “Incidents and crimes with a hate motivation recorded by the police in Northern Ireland”, *PSNI Statistics Branch*, 2019, 3. or.; PSNI, “Trends in hate motivated incidents and crimes recorded by the Police in Northern Ireland 2004/05 to 2018/19”, PSNI, 2019, 4. or.; BRACADALE, L., “Independent review... op. cit., 8.31-8.32. atalak; PSNI, “User guide to police recorded crime statistics in Northern Ireland”, *PSNI*, 2018, 34. or.

⁸³ Adibidez, ez litzateke egokia gertakariaren erregistroa biktima ezagutzen ez duen pertsona edo pertsona-talde baten pertzepzioan oinarritzea, ezta delitua bera edo delitua egin den lekua ezagutzen ez dutenen pertzepzioan ere, eta, aldi berean, salaketa prentsako edo Interneteko erreportajeei edo poliziaren motibazio-bulkadei edo antzekoei erantzuten dien motibazioarekin egitea. PSNI, “User guide... op. cit., 35 or.

etorkizuneko ikerketa-lerroetan laguntzeko. Biktimak, nolana ere, gertatutakoaz duen pertzepzioa aldatu ahal izango du aurrerago, eta egindako jatorrizko polizia-gertakariaren erregistroa aztertu ahal izango da berriz ere. Era berean, agenteentzat argi badago gorroto-gertakari bat dela (adib., eremu horretan eta azken egunetan egindako antzeko delituei buruz dagoen informazioagatik), nahiz eta informatzaileak ez onartu edo zuzenean kontziente ez izan, agenteak gertakaria erregistratuko du eta arrazoiak zehaztuko ditu⁸⁴.

PSNI-k gorroto-delituaren (*hate crime*) definizioa erreferentziatzen erabiltzen du delituak ez diren gorroto-gertakariak (*non-crime hate incidents*) ere erregistratzeko. Zehazki, gorroto-delitutzat hartzen da “*biktimak edo beste edozein pertsonak ezaugarri pertsonal baten arabera norbaitekiko etsaitasunak edo aurreiritziak eragindako edozein delitu*”⁸⁵. Definizio horrek aukera ematen dio PSNI-ri informazio estatistikoa argitaratzeko, gorrotozko motibazioa dakarten gertakarietara eta delituei buruz. Eta poliziaren ezagutzara iristen diren gorabehera guztiak, gorrotokoak izan ala ez, horretarako *National Standard for Incident Recording* (NSIR) gidak jasotzen dituen jarraibide komunei jarraituz erregistratzen dira. Eta, hain zuzen ere, hemen aurkitzen dugu gorroto-gertakariari buruzko definizio zehatzago bat: “*Edozein gertakari, delitu penala izan daitekeena edo ez, biktimak edo beste edozeinek aurreiritzi edo gorrotoak eragindakotzat hartzen duenean*”⁸⁶. Ikus daitekeenez, definizio hori arazorik gabe lotzen da MacPherson txostenak finkatutakoarekin.

Gorroto-gertakarietara eta -delituei buruzko informazioa hainbat unetan bildu eta argitaratu izan da, babestutako kategoriaren arabera. Lehenengoei erreparatu gero, gorroto-gertakariaren eta gorroto-delituaren arteko bereizketak estatistika-txostenetara iristeko denbora behar izan baitzuen, poliziak 1996-1997 urteen arteko gertakari arrazistak monitorizatzen hasi zen lehen aldiz. 2000. urtean gertakari homofoboena txanda izan zen. Azkenik, gertakari sektarioei, erlijiosoei edo desgaitasunari buruzko datuen monitorizazioa ez zen 2004ra arte iritsiko. Hain zuzen ere, 2004ko irailetik, PSNI-k gorroto-gertakariak edo -delituak biltzeko sistema hobetua ezarri zuen, etorkizunean dinamika komisiboko joerak eta ereduak identifikatzea erraztuz⁸⁷. Horregatik, nahiz eta PSNI-k aurretik datuak biltzen zituen, informazioa biltzeko metodoa

⁸⁴ HOME OFFICE, “The National Standard for Incident Recording”, *Home Office*, 2011, 28. or.

⁸⁵ PSNI, “User guide... op. cit., 34. or.

⁸⁶ HOME OFFICE, “The National... op. cit., 28 or.

⁸⁷ Ikus: NORTHERN IRELAND AFFAIRS, “Northern... op. cit.

nabarmen aldatu zen, eta 2004/05 urtea baino lehenagoko datuak ezin dira konparazioetarako erabili. Beraz, ondoren egin diren txostenek 2004/05 urtea hartzen dute erreferentzia gisa datuen azterketa zabal bat egiteko orduan. Orduan ezarri zen gertakarien sarrera-sistemari *Integrated Crime Information System* (ICIS) deitzen zaio, nahiz eta 2007ko apirilaren 1ean hobetu egin zen gaur egun indarrean dagoen polizia-bilketaren sistemaren bidez, hau da, gertakarien kudeaketa-sistemaren (*Occurrence Management System*) edo NICHE bezala ezaguna den sistemaren bidez.

Urteen eta kategorien arabera, hauxe da berrikusi eta eguneratutako gorroto-gertakarien bolumenaren laburpena⁸⁸: 2004/05 – 1009 gertakari (arraza: 813; homofobia: 196), 2005/06 – 2.997 gertakari (arraza: 936; homofobia: 220; fedea/erlijioa: 70; sektarismoa: 1.701; desgaitasuna: 70), 2006/07 – 3.113 gertakari (arraza: 1.047; homofobia: 155; fedea/erlijioa: 136; sektarismoa: 1.695; desgaitasuna: 48) Sektarismoa: 1.840; desgaitasuna: 58; transfobia: 14), 2010/11 – 2.571 gorabehera (arraza: 842; homofobia: 211; fedea/erlijioa: 21; sektarismoa: 1.437; desgaitasuna: 38; transfobia: 22), 2011/12 – 2.291 gertakari (arraza: 694; homofobia: 201; fedea/erlijioa: 15; sektarismoa: 1.344; desgaitasuna: 33; transfobia: 4), 2012/13 – 2.483 gertakari (arraza: 748; homofobia: 246; fedea/erlijioa: 28; sektarismoa: 1.372; desgaitasuna: 74; transfobia: 15), 2013/14 – 2.703 gertakari (arraza: 976; homofobia: 280; fedea/erlijioa: 33; sektarismoa: 1.284; desgaitasuna: 107; transfobia: 23), 2014/15 – 3.430 gertakari (arraza: 1.336; homofobia: 334; fedea/erlijioa: 84; sektarismoa: 1.517; desgaitasuna: 138; transfobia: 21), 2015/16 – 3.122 (arraza: 1.215; homofobia: 343; fedea/erlijioa: 59; sektarismoa: 1.352; desgaitasuna: 134; transfobia: 19), 2016/17 – 2.515 gertakari (arraza: 1.044; homofobia: 279; fedea/erlijioa: 65; sektarismoa: 995; desgaitasuna: 112; transfobia: 20), 2017/18 – 2.400 gertakari (arraza: 1.025; homofobia: 267; fedea/erlijioa: 90; sektarismoa: 879; desgaitasuna: 101; transfobia: 38) eta **2018/19 – 2.459 gertakari (arraza: 1.124; homofobia: 281; fedea/erlijioa: 56; sektarismoa: 865; desgaitasuna: 100; transfobia: 33)**⁸⁹.

⁸⁸ Txosten guztiak online eskura daitezke: <https://www.psni.police.uk/inside-psni/Statistics/hate-motivation-statistics/hate-motivation-statistics-archive/>. Ikus halaber: JARMAN, N., “Acknowledgement, recognition and response: the Criminal Justice System and hate crime in Northern Ireland”, en HAYNES, A./SCHWEPPE, J./TAYLOR, S. (Eds.), *Critical perspectives on hate crime*, Palgrave Macmillan, Londres, 2017, 53-58. orr.

⁸⁹ Xehetasunekin, ikus gorroto-gertakari/-delitueta joerei buruzko urteko azken txostena: PSNI, “Trends... op. cit., 42. or.

Jasota dagoen informaziorik berriena 2019ko azaroaren 28an argitaratutako hiruhilekoko gaurkotzea da, 2018ko urriaren 1etik 2019ko irailaren 30era bitartean eskuragarri dauden datuak aztertzen dituen; guztira, **2.419 gertakari**⁹⁰ izan dira (**arraza: 1.073; homofobia: 264; fedea/erlijioa: 51; sektarismoa: 878; desgaitasuna: 102; transfobia: 51**). Hala ere, urteko txosten estatistikotik (2018/19) lortutako datuak izango dira, eta ez hiruhileko txosten horretakoak, hurrengo atalean zehatzago aztertuko direnak.

2.2.4. Gorroto-gertakariak (2018/19)

a) Poliziak gorroto-gertakarien aurrean jarduteko modua.

Gertakari potentzial bati buruzko lehen ebidentziaren aurrean, informazio hori PSNI-ren aginte- eta kontrol-sistemara (*Command & Control System* edo CCS) edo kontaktuen erregistroa kudeatzeko sistemara (*Contact Record Management System* edo CRMS) sartzen da⁹¹. CRM-ak *Contact Management Centre* (CMC) delakora egiten diren pertsonen deiak erregistratzen ditu. Zerbitzu horrek herritarren deiak lehenesteko eta poliziaren erantzun egokiagoa lortzeko balio du. Edonola ere, CRMS-n dauden erregistro guztiak eskuz sar daitezke eta sartu ohi dira CCS-n. Hasierako erregistro horrek ixte-kode (*closing code*) egokia izango du gertakaria deskribatzeko⁹². Kode horri kalifikatzaile batzuk (*qualifiers*) gehituko zaizkio, eta “gorrotoa eta aurreiritzia” supra-kategoria bat izango da, desgaitasun-, arraza- eta abar-kalifikatzaileak hartzen dituen. Gainerako bi supra-kategoriak “aurreiritzirik gabeko kalifikatzaileak” (adib.: alkohola, drogak, etab.) eta “aukerako beste kalifikatzaile batzuk” (adib.: familiako tratu txarrak, etab.) dira⁹³. Kalifikatzaile horiek, ikus daitekeenez, gertakariaren hainbat alderdi eta ezaugarri deskribatzen laguntzen dute. Ondoren, gertakari horiek guztiak eta, hala badagokio, horiei lotutako gorroto-

⁹⁰ Emaiza hori lortu arren, ez da gomendatzen gertakari guztien batura, izan ere, horien kopuru zehaztugabe batek motibazio bati baino gehiagori erantzun liezaioke. Motibazio anitza ez dago zehatuta txostenean. PSNI, “Incidents and crimes... op. cit., 3. or.

⁹¹ Ohikoena izango ez den arren, gertakaria zuzenean gertaeren kudeaketa sisteman (*Occurrence Management System*) ere erregistra daiteke, NICHE izenez ere ezagutzen dena.

⁹² Adibidez: norbait kalean zerraldo erori izanak “segurtasunarekiko kezka” (*concern for safety*) izenpean erregistro bat motibatu dezake. Hala ere, pertsona edo lekuko batek ibilgailu bat tartean egon zela esaten badu, ixteko kodea “garraioa” (*transport*) izango da. Ikus: HOME OFFICE, “The National... op. cit., 7. or.

⁹³ HOME OFFICE, “The National... op. cit., 28-34. orr.

motibazioa automatikoki transferitzen dira CCS-tik NICHE-ra. Azken hori PSNI-k edozein gertakari erregistratu eta kudeatzeko berariaz sortutako sistema bat da⁹⁴.

Puntu honetan, delituekin zerikusia duten ixte-kodeak dakartzaten gertakariak delituak erregistratzeko sistema batean (*crime recording system*) sartzeko identifikatu eta markatu egiten dira. Aitzitik, delitu-zantzuen balorazioa horretarako prestatutako eta *Occurrence & Case Management Teams* edo OCMT gisa ezagutzen diren pertsona-talde batek egingo du. Profesional-talde hori harremanetan jarri ahal izango da PSNI-ren estatistika-zerbitzuarekin, dauden inguruabar ezohiko edo konplexuenak eztabaidatzeko, eta are gehiago, kontsulta bat bidali ahal izango dio Barne Ministerioari (*Home Office*), erabaki bat har dezan. OCMT-ek delitua behar bezala baloratu eta baliozkotu ondoren, gertakaria NICHE-tik ateratzen da, informazioa kudeatzeko barne-sistema batean sartzeko (*Management Information System, Case Management System* edo CMS). Hain zuzen ere, sistema horretatik ateratzen da poliziak berak delitutzat jotzen dituen gorroto-gertakari polizialen kopurua ezagutzeko informazioa⁹⁵.

Informazio hori urteko gorroto-gertakariei buruzko txostenetan ere argitaratu da. Adibidez, 2018/19 urteari dagokionez, urteko txostenean 2.459 gertakari zeuden jasota, eta **1.613 delitu gisa (arraza: 702; homofobia: 201; fedea/erlijioa: 23; sektarismoa: 622; desgaitasuna: 53; transfobia: 12) identifikatuta zeuden**. 2018/19 urtearekin alderatuta ere, baina hiruhileko gaurkotzeari dagokionez (2.419 gertakari), **1.629 delitu gisa (arraza: 696; homofobia: 180; fedea/erlijioa: 27; sektarismoa: 638; desgaitasuna: 64; transfobia: 24) identifikatuta zeuden**.

b) Errealitate enpirikoa: Banakapena eta interesgarriak izan daitezkeen datuak.

⁹⁴ Egia esan, gorroto-markagailua modu independentean lotuta egon daiteke gertakariarekin eta gertakari horren barruan egon daitezkeen delituarekin. Hau da, gertakari batek kalifikatzaile/markagailu “gorrotagarria” integratua eraman dezake, baina horrek ez du esan nahi gertakari horren atzean dagoen delituak ere eraman behar duenik. Ikus: PSNI, “User guide... op. cit., 35. or.

⁹⁵ Deskribatutako prozesua zehatzago ezagutzeko, ikus: PSNI, “User guide... op. cit., 23-24. orr.; NORTHERN IRELAND HUMAN RIGHTS COMMISSION, “Racist hate crime. Human rights and the Criminal Justice System in Northern Ireland”, *NIHRC*, 2013, 61. or.

Gainerakoan, litekeena da, halaber, PSNI-k egitate batzuk jatorrian gorroto-delitu gisa ez erregistratzea eta fiskalak geroago identifikatzea. PPS FOR NORTHERN IRELAND, “Statistical bulletin... op. cit., 5. or.

Lehen jasotako gorroto-gertakariei/-delituei buruzko urteko txosteneko⁹⁶ datuei dagokienez, nabarmendu behar da gorroto-gertakari sektarioak direla azken urteetan behera egin duten bakarrak, 2009/10ean kotarik altuenera iritsi zirenetik (1.840 gertakari). Gainera, 2018/19an gorroto-delitu sektario guztien % 4-a lokal/leku sinbolikoen aurkako erasoen bidez egin zirela adierazten da. Datu hori lortzeko, kontuan hartzen da lokala/lekua izan dela erasoaren helburua; zerrenda itxia da horretarako kontuan hartzen diren lokalak (adib., eliza eta kapera, edo eskola).

Gainerakoan, emandako estatistika-taulen xehetasun-maila nabarmena da. Adibide gisa, delitu-kategorien prebalentziari buruzko datuak tratatuko dira⁹⁷, bai eta biktima-motari buruzkoak ere, haren etnia, nazionalitatea, adina edo sexua kontuan hartuta. Hala ere, kasu batzuetan informazio hori ez da eskuragarri egongo, lagin oso txikia delako.

Gorroto-delitu arrazistak (702): Nabarmentzekoak dira 184 (% 26,21) etxebizitza bati egindako kalte-delituak (*criminal damage to a dwelling*), 127 (% 18,09) lesiorik gabeko erasoak (*assault without injury*) eta 104 (% 14,81) zirikatze-delituak (*harassment*). Pertsona baten aurkako 637 gorroto-delitu arrazistetatik, biktima zuria zen 311 delituetan (% 48,82), ez zen haren etnia ezagutzen 100ean (% 15,69), asiarra zen 83tan (% 13,02), etnia mistokoa edo beste batekoa zen 75etan (% 11,77) eta beltza zen 68tan (% 10,67). Pertsona baten aurkako 637 gorroto-delitu arrazistetatik, 127 kasutan biktima britainiarra eta irlandarra zen (% 19,93), ez dakigu 99 kasutan nazionalitatea edo pertsona (% 15,54), 66 kasutan poloniarra zen (% 10,36) eta 52 kasutan errumaniarra zen (% 8,16). Pertsona baten aurkako 637 gorroto-delitu arrazistetatik, delitu gehien biltzen dituen adin-tartea 35-39 urtekoa da 110 deliturekin (% 17,26), ondoren 30-34koa 98rekin (% 15,38) eta 40-44koa 90ekin (% 14,12). Pertsona baten aurkako 637 gorroto-delitu arrazistetatik, biktima gizonezkoa zen 395 kasutan (% 62) eta emakumezkoa 240tan (% 37,67).

Gorroto-delitu sektarioak (622): Nabarmentzekoak dira 113 (% 18,16) zirikatze-delituak (eta horien artean zehazten da 61 larderiarekin bat datozela), 101 (% 16,23) lesiodun eraso (*assault with injury*) eta agenteari lesioa eragindako erasoak (*assault with injury on*

⁹⁶ PSNI, "Trends... op. cit., 42. or.

⁹⁷ Kategoria horiei buruz gehiago jakiteko, ikus: PSNI, "User guide... op. cit., 18-22. orr.

constable), eta 86 (% 13,82) etxebizitza bati egindako kalte-delituak. Pertsona baten aurkako 487 gorroto-delitu sektarioetatik, delitu gehien biltzen dituen adin-tartea 25-29 urtekoa da 69 deliturekin (% 14,16), ondoren 35-39koa 67rekin (% 13,75) eta 20-24koa 55ekin (% 11,29). Pertsona baten aurkako 487 gorroto-delitu sektarioetatik, biktima gizonezkoa zen 310 kasutan (% 63,65) eta emakumezkoa 176tan (% 36,13).

Gorroto-delitu homofoboak (201): Nabarmentzekoak dira 55 (% 27,36) zirikatze-delituak, 44 (% 21,89) kalte larria eragiteko lesiodun eraso (*assault with intent to cause serious harm*), lesiodun eraso eta agenteari lesioa eragindako erasoak eta 41 (% 20,39) lesiorik gabeko erasoak. Pertsona baten aurkako 191 gorroto-delitu homofoboetatik, delitu gehien biltzen dituen adin-tartea 25-29 urtekoa da 49 deliturekin (% 25,65), ondoren 50-64koa 27rekin (% 14,13) eta 30-34koa 25ekin (% 13,08). Pertsona baten aurka egindako 191 gorroto-delitu homofoboetatik, biktima gizonezkoa zen 137 kasutan (% 71,72) eta emakumezkoa 52tan(% 27,22).

Desgaitasunagatiko gorroto-delituak (53): Nabarmentzekoak dira 20 (37,73%) zirikatze-delituak, 15 (28,30%) lesiorik gabeko indarkeria-delituak (*violence without injury*) eta 13 (24,52%) kalteengatiko delituak (*criminal damage offences*). Desgaitasunagatiko 53 gorroto-delituetatik, delitu gehien biltzen dituen adin-tartea 18-64 urtekoa da 40 deliturekin (% 75,47), eta, ondoren, 18 urtetik beherakoak 13rekin (% 24,52). Desgaitasunagatiko 53 gorroto-delituetatik, biktima gizonezkoa zen 29 kasuetan (% 54,71) eta emakumezkoa 24tan(% 45,28).

Fede/erlijio arrazoiengatiko gorroto-delituak (23): Nabarmentzekoak dira 12 (52,17%) kalteengatiko delituak, eta 9 (% 39,13) pertsonen aurkako indarkeriazko delituak (*violence against the person offences*). **Gorroto-delitu transfoboak (12):** Nabarmentzekoak dira 10 (% 83,33) pertsonen aurkako indarkeria-delituak.

Azkenik, aipatzekoa da gorroto-gertakari eta -delituei buruzko urteko txostenak atal labur bat ere jasotzen duela, erreformatu dena, Ipar Irlanda eta Ingalaterra eta Galesen arteko konparazio bat egin ahal izateko.

2.2.5. Beste datu-iturri ofizial batzuk: Fiskaltza (*Public Prosecution Service for Northern Ireland*) eta emandako kondena-epaiak.

Public Prosecution Service for Northern Ireland edo *PPS* eskualdeka antolatzen da, bi eskualdetan zehazkiago, eta horietako bakoitzaren burua zuzendari laguntzaile (*Assistant Director* edo *AD*) bat da, poliziarekin zein auzitegiekin harremanetan egongo dena. 2004ko *Criminal Justice (No. 2) (Northern Ireland) Order*-reko 2. artikulua astungarria da PPSk urtero gorroto-delituei buruzko datu batzuk eman ahal izateko erreferente gisa erabiltzen duena. Horri buruzko azken txostena 2018ko apirilaren 1etik 2019ko martxoaren 31ra artekoa da, eta 2019ko abuztuaren 15ean argitaratu zen. Txosten hori zabala eta zeharkakoa da; izan ere, PPSk poliziarengandik jasotzen dituen kasuen bolumena aztertzen du, eta, horren ondoren, zehazten du zenbat kasutan aurkezten den akusazio formala edo zenbatetan ematen den kondena-epaia. Gainerakoan, aurreratu den bezala, txosten honen oinarrian dagoen informazioa PPSren informazioa kudeatzeko barne-sistemarena (*Management Information System, Case Management System* edo *CMS*) da.

2018/19an, PPSk 355 kasu jaso zituen, poliziak gorroto-delitu gisa identifikatu zituenak, eta kasu bakoitzean pertsona bat edo gehiago egon daitezke tartean. Babestutako kategoriaren arabera, 132 arrazari lotuta daude (% 37,18), 110 sektarismoari (% 30,98), 50 homofobiari (% 14,08), 29 fede/erlijioari (% 8,16), 18 motibazio anizkunari (% 5,07), 11 desgaitasunari (% 3,09) eta 5 transfobiari (% 1,40). Delitu-kategoria nagusiaren⁹⁸ arabera, 222 kasu (% 62,53) pertsonaren aurkako indarkeriarekin lotuta zeuden, 55 kasu (% 15,49) zehaztu gabeko beste delitu-talde batzuekin (*all other offence groups*), 41 kasu (% 11,54) ordena publikoarekin (*public order*) eta 37 kasu (% 10,42) kalteekin (*criminal damage*). Fiskaltzako hartutako azken erabakiaren arabera (guztira 432 erabaki⁹⁹), nabarmentzekoa da 190 erabakitan erabaki zela kargurik ez aurkeztea (% 43,98) eta 21etan neurri alternatiboak hartzea eta, horrela, auzitegietara ez jotzea (% 4,86). 179 erabakitan (% 41,43), azken erabakia karguak aurkeztea eta, horrela, jarduketa judizialak bultzatzea izan zen.

⁹⁸ Oro har, “*delitu-kategoria nagusia*” kategoriarik larriena izango da, legeak ezarritako balizko zigorren arabera zehaztu beharrekoa. PPS FOR NORTHERN IRELAND, “Statistical bulletin... op. cit., 25. or.

⁹⁹ Hori horrela da kasu beraren barruan edozein pertsonaren aurkako erabaki bat baino gehiago egon daitezkeelako. Edozein modutan, hemen hartu den erabakirik garrantzitsua hartuko da kontuan. PPS FOR NORTHERN IRELAND, “Statistical bulletin... op. cit., 25. or.

Formalki ez akusatzeko erabakia froga nahikorik ez dagoelako edo halako erabaki bat interes publikoarekin bat ez datorrelako har daiteke. Bi arrazoi horiek bat egiten dute estandar bereko bi alderdirekin, eta horiek gainditu egin behar dira erabaki bat hartzeko orduan, PPSren ohiko praktika gisa. Lehenengoa froga-testa (*evidential test*) da, eta epaiketean alegatu daitekeen froga nahikoa egon behar duela adierazten du, akusatu bakoitzeko eta egozten den kargu bakoitzeko kondenatzeko arrazoizko probabilitatea aurreikusten duena (*reasonable prospect of conviction*). Era berean, epaian etsaitasunagatik astungarri espezifikuari dagokionez, froga-testa ere gainditzen den planteatu beharko da. Kontuan hartu beharreko bigarrena, eta aurrekoa gainditu ondoren bakarrik, interes publikoaren testa (*public interest test*) da. Hain zuzen ere, puntu horretan baloratu beharko da interes publikoak benetan akusazio bat eskatzen duen edo behar duen. Hori garrantzitsua da, adibidez, akusazio penala baino beste aukera alternatibo batzuk hartzea hobe litzatekeen zehazteko. Akusatzeko erabakiaren alde, fiskalek aintzat hartu beharko lituzketen egoeren zerrenda ireki bat dago. Inguruabar horietako bat da, hain zuzen ere, delitua pertsona batenganako etsaitasunak eragindakoa izatea, haren arraza, erlijioa, sexu-orientazioa eta abar direla eta¹⁰⁰.

Zigorrei dagokienez, eskaintzen diren datuak honela banatzen dira: (1) zigor-arloko Auzitegi Goren batean edo Koroaren Auzitegi batean (*Crown Court*) amaitu diren kasuak, eta (2) Magistratuen Auzitegi batean edo zigor-arloko beheargoko auzitegi batean (*Magistrates' Court*) edo adingabeen auzitegi batean (*Youth Court*) amaitu diren kasuak. **Lehenengo kasuan, 13 akusatu gutxienez delitu bategatik zigortu dituzte¹⁰¹, eta bigarreanean, berriz, 155.**

¹⁰⁰ Xehetasunekin, ikus: PPS FOR NORTHERN IRELAND, "Hate crime... op. cit., 16-24. eta 45-48. orr.;; PPS FOR NORTHERN IRELAND, "Code for prosecutors", 2016.

¹⁰¹ Hala eta guztiz ere, beste aukera bat ere badago: norbait absolutu izana gorrotoagatik astungarria zeraman delituetatik, baina, nolana ere, beste delitu batengatik kondenatua izatea. NORTHERN IRELAND, "Statistical bulletin... op. cit., 15. or.

2.3. ONDORIOAK

Arau-esparrua. Eskoziako lege-sisteman eta Ipar Irlandako lege-sisteman gorroto-delituei lotutako legeria epaian ematen den astungarri orokorrean eta gorrotoa eragitearen tipo bereizi batean oinarritzen da. Bi legegintza-teknika horiei Eskoziako lege-esparruak, gainera, arraza-arrazoiengatik astundutako zirikatze delitu-mota autonomo bat (*racially-aggravated harassment*) gehitzen die; hau da, arraza-osagaia, jatorrian, tipo penal zehatz batean txertatuta dator. Gainerakoan, antzeko idazketa-logikari jarraituz, nahiz eta terminoetan alde puntualak egon, bi lege-sistemetan delituak astundu egin daitezke biktimarenganako etsaitasuna agertze hutsagatik (alderdi objektiboa) edo delitua etsaitasun horrek eragindakoa delako (alderdi subjektiboa). Alderdi horietako edozeinetan, etsaitasunak esparru-kategoria jakin batzuei lotuta egon beharko du. Eta hemen desberdintasunak agerikoagoak dira. Eskozian, epaian astuntzeari dagokionez, babesa ematen zaie arrazari, erlijioari, desgaitasunari, sexu-orientazioari eta transgenero-identitateari. Gorroto eragiteari eta zirikatze-delitu autonomoari dagokienez, arraza baino ez da babesten. Ipar Irlandan, aldiz, epaian astuntzeko teknika Eskoziarako ezarritako kategoria bereberei dagokie, transgeneroen-identitateari izan ezik. Gorroto eragiteari dagokionez, arraza, erlijioa, desgaitasuna eta sexu-orientazioa barnebiltzen dira.

«Arraza» eta «erlijio» kategoriak. Eskozian zein Ipar Irlandan, «arraza» edo «arrazataldea» kategoria alde zurretik zehaztuta dago legedian; izan ere, koloreari, nazionalitateari (herritartasuna barne) eta jatorri etniko edo nazionalari buruzko aipamenak jasotzen ditu. Bestalde, «erlijioak» edo «talde erlijiosoak» Eskozian eta Ipar Irlandan sinesmen erlijiosoak edo horren falta hartzen du bere baitan. Eskozian, era berean, legediak eliza edo erlijio-erakunde bateko kide izatea edo haiekiko atxikimendua ere aipatzen du, baita eliza edo erlijio-erakunde baten kulturarekin eta tradizioekin lotutako jardueretan laguntzea edo parte hartzea ere.

Sektarismoa. Gaur egun, portaera sektarioa ez dago legez jasota Eskoziako eta Ipar Irlandako gorroto delituei buruzko legedian. Beste kontu bat da, abiapuntuko definizioaren arabera, bere izaera berezi eta intersektionalaren zati bat, gutxienez, arraza edo erlijioaren moduko kategoriek xurgatzea; kategoria horiek ez dira, kasualitate hutsagatik, hedakorrak.

Eskoizian, gorroto delituen kategoriaren barruan, sektarismoa sartzeari eta, hala badagokio, hori egiteko modurik egokienari buruzko eztabaida gaurkotasun handikoa da. Izan ere, nabarmentzekoa da 2012tik 2018ra arte Eskoziak lege anti-sektario gisa ezagutzen zen lege bat zuela, nahiz eta sektarismoari inolako erreferentziarik ez egin, eta haren aplikazio-eremua araututako futbol-partidetan egindako kantetara mugatzen zela jakin. 2018tik defendatu izan da, indargabetu ondoren, ez dagoela lege-hutsunerik; sektarismoak gorroto-delituak gainditzen dituelako, eta haien izaera berezia ez zelako geratzen ez lehenago ez geroago haiek xurgatuta; edo, bestela, arraza- eta erlijio-etsaitasunagatiko lege-astuntzeek euste-horma edo lege-adabaki gisa jarduten dutelako. Era berean, sektarismoaren edozein definizioak iritzi politikoaren aipamena inoiz ez jasotzea gomendatzen da. Aurreiritzi politikoaren aurrean baino, arrazismoaren (adib.: anti-irlandarra/-britainiarra) aurrean egongo ginateke, sektarismoak eragindakoa, baina arrazismoa azken finean. Gaur egun, hori bai, eskoziar exekutiboa aurreiritzi edo etsaitasun sektarioa legean epai astungarri modura sartzea aztertzen ari da, fenomeno sektarioari zigor-isla espezifiko bat emanaz.

Ipar Irlandan sektarismoak adierazpen legala du 2011ko *Justice Act (Northern Ireland)*-eko 37. artikuluan, hau da, kirol arloan egindako kantuetara bideratuta dagoen legean. Hala ere, ez da terminoaren definizioa errazten, eta, beraz, epaileek bat garatu behar izan dute, eta, aldi berean, kasuistika askotarikoari aurre egin behar izan diote. Gainerakoan, aurrekoa salbu, sektarismoa arraza eta erlijio kategorietan banatzen da Eskoziakoaren oso antzera, fenomenoak partzialki xurgatuz eta zigorgabetasuna saihestuz. Legez kanpo, Ipar Irlandako poliziak sektarismoa beste kategoriatan bat bezala erabiltzen du gorroto-gertakariak erregistratzeko orduan.

Gorroto-gertakariak (polizia) eta gorroto-delituak (fiskaltza eta epaileak/auzitegiak). Bai Eskoziako bai Ipar Irlandako poliziak berdin jokatzeko dute gorroto-gertakari baten berri ematen zaienean. Erregistratzeko egiazkotasun-presuntzioa dago, eta, beraz, polizia-agentek ez du diskrezionalitatez gertakaria erregistratzeko orduan, eta ezin dio inori eskatu delitua burutu dela frogatzeko. Eskuragarri dauden azken datuak honako hauek dira:

- **Eskozia**

1.) **Polizia:** 2017/18an **6.736 gorroto-gertakari** izan ziren. Horietatik 6.413 (% 95,20) babestutako kategoria bakar baten ondorio dira, eta 323 (% 4,76) kategoria horien konbinazio baten ondorio. Gertakarien lehen taldearen barruan, baina guztizko kopuruarekin alderatuta, arraza-kategoria da nagusi (4.491 -% 66,67), eta atzetik datoz sexu-orientazioa (1.085 -% 16,10), erlijioa (504 -% 7,48), desgaitasuna (274 -% 4,06) eta transgenero-identitatea (59 -% 0,87). Gainerakoan, portaera mehatxagarria edo iraingarria (*threatening or abusive behaviour*) nabarmentzen da, gertakari guztietatik 3.031 biltzen baititu (% 44,99).

2.) **Fiskaltza:** 2018/19an, poliziak eta beste agentzia batzuek 4.616 egozpenen berri eman zioten fiskaltzari (biktimizazio anizkoitzagatik bereizi gabe). **Egozpen** bakoitzean dagoen kategoria bakoitza zenbatuta, azken zifra **4.914** da (arrazak: 2880 -% 58,60; sexu-orientazioa: 1.176 -% 23,93; erlijioa: 529 -% 10,76; desgaitasuna: 289 -% 5,88; transgenero-identitatea: 40 -% 0,81). Aipatutako azken zifrari dagokionez, segurtasun osoz esan daiteke **4.017 egozpenek (% 81,74) jarduketa judizialak bultzatu zituztela azkenean.**

3.) **Epaileak/Auzitegiak:** 2017/18 urtean, **650 kondena izan ziren, arraza-adierazle bat zutenak, 354 sexu-orientazioari buruzkoak, 249 arrazoi erlijiosoei buruzkoak, 58 desgaitasunari buruzkoak eta 12 transgeneroari buruzkoak.** Hala ere, kondena ezarrita dagoen prozedura berean hainbat adierazle badaude, biak hartzen dira kontuan aurreko datuak islatzeko. Gainera, adierazle bat edukitzeak ez du esan nahi kondena bat dagoenik lege-astuntze batengatik; aitzitik, gerta liteke prozeduran informazio gehigarria eta interesgarria emateko balio duten adierazleak kontuan hartu izana ere.

- **Ipar Irlanda**

1.) **Polizia:** 2018/19an **2.459 gorroto-gertakari** izan ziren. Horien artean, arraza (1.124 - 45,70), sektarismoa (865 -% 35,17), homofobia (281 -% 11,42), desgaitasuna (100 -% 4,06), fedea/erlijioa (56 -% 2,27) eta transfobia (33 -% 1,34) dira nagusi. Bestalde, **1.613 gorroto-delitu** izan ziren (arrazak: 702 -% 43,52; sektarismoa: 622 -% 38,56; homofobia: 201 -% 12,46; desgaitasuna: 53 -% 3,28; fedea/erlijioa: 23 -% 1,42; transfobia: 12 -% 0,74). Gainerakoan, adibide gisa, gorroto-delitu arrazistei dagokienez, etxebizitza bati

egindako 184 (% 26,21) kalte-delituak nabarmentzen dira (*criminal damage to a dwelling*), eta gorroto-delitu sektarioei dagokienez, berriz, 113 (% 18,16) zirikatze-delituak.

- 2.) **Fiskaltza:** 2018/19an, poliziaren **gorroto-delituekin lotutako 355 kasu jaso zituen fiskaltzak**; kasu bakoitzean banako bat edo gehiago egon daitezke tartean. Babestutako kategoriaren arabera, arraza da nagusi (132-% 37,18), eta ondoren, sektarismoa (% 110 - 30,98), homofobia (% 50 - 14,08), fedea/erlijioa (% 29 -% 8,16), desgaitasuna (% 11 - % 3,09) eta transfobia (% 5 -% 1,40). Gainera, 18 kasu (% 5,07) motibazio anizkoitzarekin lotuta egongo lirateke. Fiskaltzak hartutako azken erabakiaren arabera, guztira 432 badira (izan ere, erabaki bat baino gehiago egon daiteke, adibidez, kasu berean gizabanako desberdinak daudelako), **179an (% 41,43) karguak aurkeztea eta jarduketa judizialak bultzatzea izan zen erabakia.**
- 3.) **Epaileak/Auzitegiak:** 2018/19an, **168 akusatu kondenatu zituzten gutxienez gorroto-delitu batengatik.**

3. GENERO-ARRAZOIENGATIKO GORROTO-DELITUAK ETA GENERO-INDARKERIA

3.1. SARRERA

"Sexua" zein "generoa" Zigor Kodearen 22.4 artikuluko inguruabar astungarrian eta Zigor Kodearen 510. artikuluko gorrotoa eragiteagatiko delituan aurreikusten diren diskriminazio-arrazoietakako bi dira, horietako bakoitzak kategoria babestu independente bat osatzen duelarik.

Aurten lehen aldiz identifikatu eta zenbatu dira txosten honetan gure lurraldean sexu eta genero arrazoiek eragindako gorroto gertakariak. Hori ez da posible izan orain arte, aurreko urteetan ez baita ezaugarri horiekin erregistratutako gertakarien daturik jaso.

Horren arrazoia, neurri batean, sexuari loturiko diskriminazio arrazoiari dagokienez, ZKren 22.4 artikuluan aurreikusitako inguruabar astungarriak eta ZKren 510. artikuluan gorrotoa eragiteagatiko delituak, arrazoi honetan oinarriturik izan duten aplikazio murrizta izan daiteke, nahiz eta sexua diskriminazio arrazoi moduan Zigor Kodean aurreikusita egon den 1995ean aldarrikatu zenetik.

Generoari loturiko diskriminazio arrazoiari dagokionez, berriki sartu da Zigor Kodean, 1/2015 Lege Organikoaren bidez¹⁰². Lege honek aldatu egin zuen gorroto-delituen erregulazioa, Europako Kontseiluaren Emakumearen Aurkako Indarkeriaren eta Etxeko Indarkeriaren Prebentzio eta Borrokari buruzko Hitzarmenaren eraginez. Hitzarmen hori Istanbulen egin zen 2011ko maiatzaren 11n (aurrerantzean, Istanbulgo Hitzarmena)¹⁰³.

¹⁰² 1/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, honako Lege Organiko hau aldatzen duena: 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodearena.

¹⁰³ Europako Kontseiluaren Emakumearen Aurkako Indarkeriaren eta Etxeko Indarkeriaren Prebentzio eta Borrokari buruzko Hitzarmena, Istanbulen egin 2011ko maiatzaren 11n, eta Espainiak berretsia 2014ko martxoaren 18an. Istanbulgo Hitzarmenak estatuentzat ezartzen dituen betebeharrak orokorren artean zerrendatzen du (III. kapituluko 12. artikulua): "*emakumeen eta gizonen portaera soziokulturalen aldaketak sustatzeko, eta aurreiritziak, ohiturak, tradizioak eta emakumearen gutxiagotasunaren ideian edo emakumeen eta gizonen rol estereotipatuan oinarritutako beste edozein praktika desagerrarazteko*" beharrezko neurriak hartzea.

1/2015 Lege Organikoaren zioen azalpenean justifikatu egin zen "generoa" diskriminazio-ekintzen oinarri gisa sartu izana, eta "sexua"-ren kategoria babestuekiko bereiziz egin zen. Horrenbestez, Istanbulgo Hitzarmenean oinarrituta, legegileak "generoa" honela identifikatzen du: "*Gizartean eraikitako rol, jokabide edo jarduerak, gizarte jakin batek emakumeen edo gizonen berezkozat hartzen dituenak*", eta "sexua", berriz, "*Gizonak eta emakumeak bereizten dituzten ezaugarri biologiko eta fisiologikoak*" moduan.

Ildo horretan, esan daiteke "*generoa*" babestutako kategoria gisa sartzeak gorroto-delituen eta genero-indarkeria delituen artean interferentzia bat sortzea ekarri duela, izan ere, Zigor Kodeko 22.4 artikuluko inguruabar astungarria eta Zigor Kodeko 510. artikuluko gorrotoa eragiteagatiko delitua – *stricto sensu* gorroto delituen konfiguratzailatzat hartzen direnak – genero-indarkeriako kasuetan ere aplika daitezke orain, genero indarkeria kategoria juridikoak barne hartzen dituen delituak bigarren atalean aztertuko ditugularik.

Beraz, orain dela gutxi arte jokabide kriminal matxistak ia eskusiboki genero-indarkeria delituen ikuspegitik jorratu badira ere, orain gorroto-delituen ikuspegitik aztertu beharko dira halaber.

3.2. GENERO-INDARKERIA ZIGOR LEGERIAN

3.2.1. Genero-indarkeriaren kontzeptua zigor-legerian

Etxeko indarkeriaren erregulazio penala 1989ko Zigor Kodearen¹⁰⁴ erreformaren bidez hasi zen, zeinak familia esparruko ohiko tratu txarren delitua sartu zuen lehen aldiz Zigor Kodean.

Garai hartan, genero-indarkeria "etxeko indarkeria" edo "familia-eremuko indarkeria" bezala ezagaturiko delituen bidez zigortzen zen, oinarritzat hartuz

¹⁰⁴ 3/1989 Lege Organikoa, ekainaren 21ekoa, Zigor Kodea aldatzen duena. BOE 148 zk., 1989ko ekainaren 22koa

emakumeek bikotekide eta bikotekide ohien aldetik jasaten zuten indarkeria, familiako pertsonarik ahulenen aurka eragiten zen indarkeriekin bat zetorrela, hala nola adingabeei, adineko pertsoneri, ezinduei etab eragindakoarekin.

Ikuspegi horri eutsi zitzaion abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa aldarrikatu arte¹⁰⁵. Lege honek ordea hautsi egin zuen ordura arte indarkeria horri emandako tratamendu juridikoaren ereduarekin, genero ikuspegia txertatu baitzuen.

1/2004 Lege Organikoa berezko izaera duen kategoria soziologiko gisa identifikatzen du genero-indarkeria, eta "*diskriminazio, desberdintasun-egoera eta gizonen emakumeekiko dituzten botere-harremanen adierazpen*"¹⁰⁶ moduan deskribatzen du. Une horretatik aurrera, honako hau hartuko da abiapuntutzat: "*Emakumeen aurkako indarkeriaren azken kausa ez da familia-loturen izaeran bilatu behar, gizarte-rolen banaketan egon diren desberdintasunen ondorioz, emakumeek jasaten duten egiturazko diskriminazioan baizik. Horregatik, bereizi egin behar dira genero indarkeria eta etxeko indarkeria*"¹⁰⁷. MAQUEDA ABREU autoreak 2006an esan zuen bezala, emakumearen aurkako indarkeria "*ez da kontu biologiko bat, ezta ere familia eremukoa, genero kontu bat da*"¹⁰⁸.

Hala ere, 1/2004 Lege Organikoa etxeko edo familia eremura mugatutako genero-indarkeriaren definiziotik abiatu da, honako indarkeria soilik barne hartzen duelarik: "*Ezkontideek edo antzeko afektibitate-harremanen bidez lotuta daudenek edo egon direnek eragindakoa, nahiz eta elkarrekin bizi ez izan*"¹⁰⁹. Horrek ez dakar genero-indarkeria eta etxeko indarkeria parekatzea; izan ere, familia barruan gertatzen den indarkeria oro ez da genero-indarkeria, eta genero-indarkeria guztia ez da familia

¹⁰⁵ 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren Aurkako Oso-osoko Babesa Emateko Neurriei buruzkoa

¹⁰⁶ 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren Aurkako Oso-osoko Babesa Emateko Neurriei buruzkoa, 1 art.

¹⁰⁷ AGE (Zigor Aretoa, 1 Atala), 452/2019 zk., urriaren 8koa, RJ 2019\4020

¹⁰⁸ MAQUEDA ABREU, M. L., "La Violencia de Género, Entre el concepto jurídico y la realidad social", *Revista Electrónica de Ciencia Penal y Criminología*, 8 zk., 2006, 2 or.

¹⁰⁹ 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren Aurkako Oso-osoko Babesa Emateko Neurriei buruzkoa, 1 art.

eremuan gertatzen, nahiz eta 1/2004 Lege Organikoak eremu horretara mugatu duen bere definizioa.

Ildo horretan, indarkeria honen ikuskera zabalagoa aurki dezakegu aurrez aipatutako Istanbulgo Hitzarmenean, honela definitzen duelarik "*Genero-arrazoiengatiko emakumearen aurkako indarkeria*": "*Emakume baten aurkako indarkeria, emakumea delako edo emakumeei neurriz kanpo eragiten dielako*".

Era berean, Istanbulgo Hitzarmenak genero arrazoiengatik emakumearen aurka eragindako indarkeria modu larri bezala identifikatzen ditu: etxeko indarkeria, sexu jazarpena, bortxaketa, derrigorrezko ezkontza, ustez "ohorearen" izenean egindako krimenak eta mutilazio genitalak. Hitzarmen hau Espainiak 2014. urtean berretsi zuen.

1/2015 Lege Organikoaren bidez Zigor Kodea erreformatu zen 2015. urtean, eta 1/2004 Lege Organikoaren espiritua mantendu bazen ere (zeinaren arabera, genero-indarkeriako ekintza guztiak familia-eremuan gertatzen diren, hau da, bikoteen edo bikotekide ohien artean), generoa diskriminazio arrazoi moduan sartu zen Zigor Kodeko 22.4 artikuluko astungarri generikoan eta Zigor Kodearen 510. artikuluko gorrotoa eragiteagatiko delituan. Auzitegi Gorenak generoari loturiko diskriminazio-arrazoi hau Istanbulgo Hitzarmenean aurreikusitako kontzeptuaren arabera interpretatu du, eta ondorioz "*emakumea izateagatik aurrera eramandako, menderatze-ondorioak dituen emakumearen aurkako edozein erasori*", aplikagarria dela ebatzi du eta ez soilik gizon batek bere bikotekidea edo bikotekide ohia erasotzen duenean¹¹⁰.

Ondorioz, generoari loturiko diskriminazio arrazoia biktima edozein emakume delarik kontuan hartu ahal izango da, emakume izate hutsagatik. Beraz, genero-indarkeriaren kontzeptua nolabait zabaldu egin da zigor zuzenbidearen ikuspegitik.

Hala eta guztiz ere, 1/2004 Lege Organikoa erreformatu ez den aldetik eta etxeko edo familiako eremura mugatutako genero-indarkeriaren ikuskera mantentzen jarraitzen duen aldetik, Lege honetan jasotzen diren laguntza neurriak bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriaren biktima diren emakumeentzat mugatuta daude, kanpo

¹¹⁰ AGE (Zigor Aretoa, 1 Atala) 565/2018 zk. azaroaren 19koa, RJ\2018\4957; AGE (Zigor Aretoa, 1 Atala) 99/2019 zk., otsailaren 26koa, RJ\2019\826

geratzen direlarik beste indarkeria-mota batzuen biktimak, erasotzailearekin lotura afektiborik o familiarrik ez duten biktimak adibidez.

Halaber, doktrina-sektore bat genero-indarkeriaren ikuskera zabalago baten alde agertu da, kategoria honek genero-arrazoiek eragindako indarkeria oro barne hartu beharko lukeela defendatuz, biktimak ez lukeelarik zertan nahitaez emakumea izan behar, eta erasotzaileak ezta ere gizona. Ildo horretan, MAQUEDA ABREU autoreak honakoa adierazi du: "*Kontuan izan behar da generoak esleitzen zaiona baino esanahi zabalagoa izan dezakeela askotan ... femeninoaren eta maskulinoaren rol bereziak definitzen dituen arau-kode gisa*". Beraz, kategoria honek diskriminatuta dauden beste kolektibo batzuei babes eman diezaiekela irizten du "*genero-arau normalizatzailerik esleitzen dieten tokitik kanpo daudelako*", hau da, "*genero jokabide antinormatiboengatik*", adibidez "*sexu langileen, trabestien, "drug queens-en etab.*"¹¹¹ kasuan.

Azkenik, Haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoaren bidez, Genero-indarkeriaren Aurkako Oso-osoko babes neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoa erreformatu da, eta berariaz aitortu da genero-indarkeria jasaten duten emakumeen seme-alabak ere indarkeria horren zuzeneko biktimak direla, nahiz eta eurek beren pertsonen gain zuzenean kalterik ez jasan.

3.2.2. Genero-indarkeriako delituak

"*Pertsonen aurkako delituak*" deiturikoen artean aurreikusitako portaera gehienak (I. liburua, indarreko Zigor Kodearen¹¹² I. titulutik XII.era, biak barne), hala nola hilketa, sexu-erasoak eta kondena urratzearen portaera genero-indarkeria delitutzat har daitezke bikotekideak edo bikotekide ohiak emakumearen aurka eragiten baditu (1. artikulua. 1/2004 Lege Organikoa).

¹¹¹ MAQUEDA ABREU, M. L., "¿Necesitan un móvil discriminatorio las agravantes de sexo/género del art. 22.4 CP?", en SILVA SÁNCHEZ J.M./QUERALT JIMÉNEZ J.J./CORCOY BIDASOLO, M./CASTIÑEIRA PALOU M.T. (coords), *Estudios de derecho penal: homenaje al profesor Santiago Mir Puig*, Bdef, Montevideo - Buenos Aires, 2017, 713-714 orr.

¹¹² 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodearena.

Portaera bat genero-indarkeriatzat hartzeak ondorio garrantzitsuak ditu. Lehenik eta behin, gaian espezializatuta dagoen Epaitegiak izango dira kasua ezagutzeaz arduratzen direnak¹¹³. Bigarrenik, aukera ematen du kautela-neurriei, zigorraren zehaztapenari eta zigorraren betearazpenari dagokionean arauketa berezi bat aplikatzeko¹¹⁴. Era berean, erasotuek indarkeria-mota horren biktimentzat bereziki aurreikusitako eskubide batzuk egikaritzeko aukera izango dute¹¹⁵.

Bikotekideak edo bikotekide ohiak emakumearen aurka aurrera eramandako delitu gehienak genero-indarkeriako delitutzat har daitezkeen arren, aurreko paragrafoan aipatutako ondorioetarako, Zigor Kodean genero indarkeria delitu gisa bereziak agertzen diren delitu batzuk daude, *stricto sensu* genero indarkeria delitutzat hartuko ditugunak.

Stricto sensu genero indarkeria delitutzat hartzen diren horiek, definizioz, genero-ikuspegia jasotzen dute eta biktimaren eta haren erasotzailearen artean bikote- edo bikote-ohi harreman bat egotea eskatzen dute. Hala ere, aurrerago ikusiko dugun bezala, delitu horiek ez dute genero-indarkeria soilik zigortzen, delitu jakin batzuk etxeko indarkeria kasuetan ere aplika daitezke, zehazki, indarkeria ZKren 173.2 artikuluan aurreikusitako gainerako subjektu pasiboaren aurka eragiten denean¹¹⁶.

¹¹³ Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan arautzen da, 43. artikulutik 56.era. Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Epaitegiak eta Probintzia-Auzitegietan dauden genero-indarkerian espezializatutako Atalek osatzen dute. Zigor-auziez gain, ordena zibileko gai batzuk ere ezagutzen dituzte.

¹¹⁴ ZKren 57. artikulua (azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoaren bidez erreformatua) genero-indarkeria kasuetan zigor erantsi batzuk ezartzeko betebeharra aurreikusten du. ZKren 83.2 artikulua, bestalde (martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoaren bidez erreformatua), zenbait debeku eta betekizun ezartzeko betebeharra aurreikusten du genero-indarkeriako kasuetan zigorraren betetzea eteten bada, etete hori baldintzatuko dutenak. Era berean, ZKren 84. artikulua zigorraren betearazpenaren etadura kasuan, etetea isun baten ordainketara baldintzatzeko debekua ezartzen du, baldin eta subjektu pasiboaren eta aktiboaren artean harreman ekonomikoak badaude ezkontza-harremanetik, bizikidetzatik edo seme-alabatasunetik, edo seme-alaba komunak egotetik eratorriak. Azkenik, Prozedura Kriminalaren Legearen 544 ter artikuluan (uztailaren 31ko 27/2003 Lege Organikoaren bidez sartua) babes-agindua aurreikusten da, kautelazko neurri penalak eta zibilak hartzeko aukera jasotzen duena, biktimari babes integraleko estatutu bat emanez, eta, gainera, laguntza eta babes sozialeko beste neurri batzuk jasotzen dituelarik. Era berean, berezitasun batzuk aurreikusten dira behin-behineko espetxeratzearen arauketan (Prozedura Kriminalaren Legearen 503 artikulua).

¹¹⁵ Eskubide horiek abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan eta Delituaren Biktimaren Estatutuaren apirilaren 27ko 4/2015 Lege Organikoan arautzen dira, zeinak genero-indarkeriaren biktimentzako eskubide berezi batzuk jasotzen dituen.

¹¹⁶ Zigor Kodeko 173.2 artikulua: “Norbaitek ohikotasunez indarkeria fisiko edo psikikoa erabiltzen badu ezkontidea den edo izan denaren aurka, edota antzeko maitasun-harremanez berarekin loturik dagoen edo egon izan den pertsonaren aurka, elkarrekin bizi ez arren; edota odol, adopzio nahiz ezkontza bidezko

Stricto sensu genero indarkeria delitutzat hartzen diren gehienak delitu astunduak dira, hau da, genero-indarkeriarekin berariaz lotuta ez dauden portaerak oinarri hartuz (lesioak, hertsapenak, etab.) legegileak bereizita tipifikatzen dituenak, genero-ikuspegia txertatuz eta oinarrizko portaerarentzat, hau da, genero-indarkeriaren testuingurutik kanpo kokatzen den jokabidearentzat aurreikusitakoa baino zigor gogorragoa ezarriz. Era berean, esan daiteke delitu horien artean genero-indarkeriako edo etxeko indarkeriako jokabide espezifikoak zigortzen dituzten delituak ere badaudela, tipo autonomo gisa konfiguratzeko direlarik. Hala ere, doktrinan ez dago adostasunik iritzi honen inguruan.

Genero-ikuspegiarekin tipifikatutako portaera guztiak ez ziren hasieratik delitu moduan aurreikusi. Portaerarik arinenak, hau da, intentsitate baxuenekoak, falta gisa sailkatu zituzten hasiera batean. Hala ere, 11/2003¹¹⁷ eta 1/2004¹¹⁸ Lege Organikoen bidez Zigor Kodea erreformatu ondoren, etxeko indarkeriari eta genero indarkeriari lotutako eraso guztiak delitu bihurtu ziren, haien intentsitatea eta emaitzari erreparatu beharrik gabe. Delitu berezi hauentzat aurreikusitako zigorra handituz joan da gainera Zigor Kodea erreformatuz joan den heinean.

Hori esanda, indarrean dagoen Zigor Kodean *stricto sensu* genero-indarkeria delitutzat hartzen diren xedapen hauek ditugu:

- **Lesioen delitu astundua** (ZKren 148.4 artikulua)¹¹⁹, bikotekideak edo bikotekide ohiak emakumeari eragindako lesioak zigortzen dituena. Lesio arrunten artikulua berean kokatua dago, baina atal berezi batean eta espetxealdi zigor altuagoa aurreikusia duelarik.

ahaidetasuna dela medio, haren nahiz beraren ezkontidearen edo harekin bizi denaren ondorengo, aurreko edo neba-arreben aurka; edota harekin bizi diren nahiz haren ezkontidearen edo berarekin bizi denaren guraso-ahal, tutoretza, kuradoretza, zaintza edo egitezko harreraren menpe dauden adingabe edo ezgaien aurka; edota beste edozein pertsonaren aurka, pertsona hori haren familia-elkarbizitzaren gunean sartuta badago edozein motatako harremanen bidez; bai eta, euren ahulezia dela medio, zentro publiko nahiz pribatuetan zaintza edo jagoletzapean daudenen aurka...”.

¹¹⁷ 11/2003 Lege Organikoa, irailaren 29koa, Herritarren Segurtasunaren, Etxeko Indarkeriaren eta Atzerritarren Gizarteratzearen Arloko neurri zehatzei buruzkoa

¹¹⁸ 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Oso-Osoko Babesa Emateko Neurriei buruzkoa

¹¹⁹ Delitu hau abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren erreformaren bidez sartu zen indarrean dagoen Zigor Kodean

- **Noizbehinkako tratu txarren delitua** (ZKren 153.1 artikulua)¹²⁰, emakumeari kalte psikiko edo fisikoa eragiten dioten portaerak zigortzen dituena, 148.4 artikuluan aurreikusitako lesioak gertatzen ez direnean, eta ohikotasun-testuinguru baten beharrik gabe, kasu horretan, 173.2 artikuluko ohiko tratu txarren delitua aplikatuko bailitzateke. Beharrezkoa izango da, gainera, emakumearen aurkako portaera bikotekideak edo bikotekide ohiak aurrera eramatea.

Era berean, delituaren subjektu pasibo gisa aurreikusten dira egilearekin bizi diren pertsona bereziki zaurgarriak.

Aurreikusitako zigorrak barnean hartzen du, espetxealdiaz edo gizartearentzako lanez gain, armak edukitzeko eta eramateko eskubideaz gabetzea, bai eta guraso-ahala, tutoretza, kuradoretza, zaintza edo harrera egikaritzeko desgaiakuntza ere, Epaile edo Auzitegiak egokitzen jotzen duenean.

ZKren 153.2 artikuluan portaera hori bera zigortzen da etxeko indarkeriaren esparruan, hau da, ZKren 173.2 artikuluan aurreikusitako gainerako subjektuen aurka gertatzen denean. Hala ere, zigor altuagoa aurreikusten da genero indarkeria kasuetarako.

- **Mehatxu arinen delitu astundua** (ZKren 171.4 artikulua)¹²¹, bikotekideak edo bikotekide ohiak emakumeari egindako mehatxu arinak zigortzen dituena.

Era berean, delituaren subjektu pasibo gisa aurreikusten dira egilearekin bizi diren pertsona bereziki zaurgarriak.

Aurreikusitako zigorrak barnean hartzen du, espetxealdiaz edo gizartearentzako lanez gain, armak edukitzeko eta eramateko eskubideaz gabetzea, bai eta guraso-

¹²⁰ Delitu honek bikotekide o bikotekide ohiaren aurkako tratu txarren falta astunduan dauka bere jatorria (indargabetutako ZKren 617.2 artikulua), irailaren 29ko 11/2003 Lege Organikoaren bidez delitu bihurtu zena.

¹²¹ Delitu honek bere jatorria bikotekidea edo bikotekide ohiaren aurka egindako mehatxu arinen falta astunduan dauka, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren bidez delitu bihurtu zena.

ahala, tutoretza, kuradoretza, zaintza edo harrera egikaritzeko desgaikuntza ere, Epaile edo Auzitegiak egokitzen jotzen duenean.

- **Hertsapen arinen delitu astundua** (ZKren 172.2 artikulua)¹²², bikotekideak edo bikotekide ohiak emakumeari egindako hertsapen arinak zigortzen dituena.

Era berean, delituaren subjektu pasibo gisa aurreikusten dira egilearekin bizi diren pertsona bereziki zaurgarriak.

Aurreikusitako zigorrak barnean hartzen du, espetxe-zigorraz edo gizartearentzako lanez gain, armak edukitzeko eta eramateko eskubideaz gabetzea, bai eta guraso-ahala, tutoretza eta kuradoretza egikaritzeko desgaikuntza ere.

- **Ohiko tratu txarren delitua** (ZKren 173.2 artikulua)¹²³, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aurka ohikotasunez indarkeria fisiko edo psikikoa erabiltzea zigortzen duena.

Era berean, delituaren subjektu pasibo gisa aurreikusten dira delituaren egilearekiko afektibitate-, ahaidetasun- edo ezkontza-harremanen bidez lotuta dauden beste subjektu batzuk, edota zaurgarritasun- edo defentsa-gabeziako egoeran egon daitezkeenak, hau da, etxeko indarkeria deritzona osatzen duten kasuak. Artikulu honetan ez da zigor-desberdintasunik ezartzen genero-arrazoiek eragindako indarkeriaren eta etxeko eremuan gertaturikoaren artean. Honen ondorioz, eta bikote edo bikotekide ohia erasotzailea denean delituaren subjektu pasiboa nahitaez emakumea izan behar dela zehazten ez den aldetik, delitu horrek genero-ikuspegia duen ala ezez eztabaidatu izan da.

¹²² Delitu honek bere jatorria bikotekidea edo bikotekide ohiaren aurka egindako hertsapen arinen falta astunduan dauka, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren bidez delitu bihurtu zena.

¹²³ Ohiko tratu txarren delitua 1989an sartu zen Zigor Kodean, ekainaren 21eko 3/1989 Lege Organikoaren bidez, eta ordutik hainbat aldaketa jasan ditu egungo idazketara iritsi arte, aldaketa garrantzitsuenak honako hauek izan direlarik: indarkeria psikikoa kontuan hartzea; hala, delitutzat hartzen hasi ziren tratu txar psikologikoak (1999); ohikotasuna interpretatzeko jarraibideak jasotzea (1999), sujetu pasibo moduan ezkon-kide eta bizikide ohiak onartzea (1999) eta babesa bizikidetzarik gabeko bikoteetara hedatzea (2003).

Aurreikusitako zigorrak barnean hartzen du, espetxealdiaz edo gizartearentzako lanez gain, armak edukitzeko eta eramateko eskubideaz gabetzea, bai eta guraso-ahala, tutoretza, kuradoretza, zaintza edo harrera egikaritzeko desgaiakuntza ere, Epaile edo Auzitegiak egokitzen jotzen duenean.

- **Jazarpen-delitu astundua** (172 ter artikulua)¹²⁴, ZKren 173.2 artikuluan aurreikusitako pertsonen egindako jazarpena zigortzen duena. Delituaren subjektu pasiboak identifikatzerako orduan ZKren 173.2 artikulura jotzen duen aldetik, ohiko tratu txarren delituari buruzko atalean azaldutako arrazoiengatik, interpretatu daiteke delitu honetan ere ez dela bereizketarik egiten genero-arrazoiek eragindako indarkeriaren eta etxean gertatutakoaren artean. Zalantzan jar daiteke, beraz, delitu honek genero ikuspegia ote duen.

Espetxe-zigorrarekin edo gizartearentzako lanekin zigortzen da.

- **Irain arinen delitu astundua** (ZKren 173.4 artikulua)¹²⁵, ZKren 173.2 artikuluan aurreikusitako pertsonen egindako irain arinak zigortzen dituena. Delituaren subjektu pasiboak identifikatzerako orduan ZKren 173.2 artikulura jotzen duen aldetik, ohiko tratu txarren delituan azaldutako arrazoiengatik, interpretatu daiteke delitu horretan ere ez dela bereizketarik egiten genero-arrazoiek eragindako indarkeriaren eta etxean gertatutakoaren artean. Zalantzan jar daiteke, beraz, delitu horrek genero ikuspegia ote duen.

Espetxe-zigorrarekin edo gizartearentzako lanekin zigortzen da. Halaber, kasu batzuetan isun zigorra gehitzen zaio.

- **Sexting delituaren inguruabar astungarri espezifikoak** (ZKren 197.7 artikulua)¹²⁶, zeinak zigorra larriagotzen duen etxean edo hirugarrenen begiradetatik kanpo lortutako irudiak edo grabazioak zabaltzearen delitua

¹²⁴ Delitu hau martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoaren bidez sartu zen indarrean dagoen Zigor Kodean.

¹²⁵ Delitu bihurtu zen martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoaren bidez, ordura arte falta gisa tipifikatuta egon zelarik

¹²⁶ Delitu hau martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoaren bidez sartu zen indarrean dagoen Zigor Kodean.

bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aurka egiten denean. Sekretuak aurkitu eta ezagutaraztearen delituaren modalitate bat da. Delitu honetan ere ez da zehazten subjektu pasiboa emakumea izan behar denik erasotzailea bikotea edo bikotekide ohia denean.

- **Kondena urratzearen delitu astundua** (ZKren 468. artikulua)¹²⁷, ezarritako kondena edo beste neurri bat urratzea zigortzen duena (segurtasun-neurria, kautelazko neurria, eramatea edo zaintza), baldin eta prozesu kriminaletan ezartzen badira, non eta ofenditua ZKren 173.2 artikuluan aurreikusitako pertsonetako bat den. Delitu horrek ere ez du bereizketarik egiten "genero-indarkeria" eta "etxeko indarkeria" –ren artean, subjektu pasiboak identifikatzerako orduan ZKren 173.2 artikulura eramaten baitu. Zalantzan jar daiteke, hortaz, delitu honek ere genero-ikuspegia ote duen. Espetxe zigorrarekin zigortzen da.

2004. urtean, konstituziokontrakotasun-arazo bat ezarri zen ZKren 153. artikulua inguruan, zigorraren aurreikuspenean proportzionaltasun-printzipioa urratzeagatik; delitu kategoria eman baitzaien ordurarte falta gisa zigortutako genero-indarkeriako portaera arinei. Beraz, auziak aldi berean mehatxu eta hertsapen arinen delituei ere eragiten zien. Konstituzio Auzitegiak ez zuen arazoaren izapidetza onartu ere egin, eta ekainaren 7ko 233/2004 Autoaren¹²⁸ bidez aurreikusitako zigorraren egokitasunaren alde egin zuen, genero-indarkeria saihesten eta desagerrarazten laguntzen zuten neurria zen heinean.

Era berean, konstituzio-kontrakotasuneko hainbat arazo ezarri izan dira 1/2004 Lege Organikoak erreformatutako delituen harira berdintasun-printzipioa urratzeagatik. Auzitegi Konstituzionalak xedapenen konstituzionaltasunaren alde ebatzi izan du,

¹²⁷ Delitu hau abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren bidez sartu zen indarrean dagoen Zigor Kodean

¹²⁸ AKA (Osoko Bilkura Aretoa) 233/2004 zk., ekainaren 7koa, RTC 2004\233

honako hau oinarri hartuta: gizonak bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aurka indarkeria erabiltzen duenean, portaera are kaltegarriagoa eta larriagoa da, genero desberdintasun estruktural baten adierazpen gisa hartzen duen esanahi objektiboagatik, emakumeak pertsona gisa duen duintasunaren aurka egiten duena, horrek justifikatzen duelarik zigor ezberdintasuna¹²⁹.

Hori esanda, aipatu beharra dago alde batera utzi zirela genero-indarkeriaren delitu bereziak tipifikatzeko orduan indarkeria horri lotutako portaera larrienak, hala nola sexu-erasoak, hilketak, erailketak edo legez kanpoko atxiloketak. Indarrean dagoen Zigor Kodean ez dago, adibidez, hilketa edo erailketa delitua genero ikuspegiarekin tipifikatzen duen delitu berezirik, *feminizidio* edo *feminizidio* gisa ezagutzen dena, beste herrialde batzuetan egin den bezala.

3.2.3. Genero-indarkeriako delituak aplikatzeko betekizun orokorrak, egungo jurisprudentziaren arabera

Genero-indarkeriako delituak hautemateko baldintza orokorrak honako hauek dira: a) indarkeriazko ekintza gertatzea (lesioak, hertsapenak...) b) indarkeriaren biktima emakumea izatea c) erasotzailea bere ezkontidea den edo izan den gizona izatea, edo emakumearekin antzeko afektibitate-harremana izan duen gizona izatea, elkarrekin bizi izan ez arren.

B) eta c) betekizunei dagokienez, xedapenen literaltasunetik **subjektuen sexuari buruzko eskakizunik** ondoriozta ezin daitekeen arren, 1/2004 Lege Organikotik eta Istanbulgo Hitzarmenetik eratortzen da, hau da, genero-indarkeriaren arloan indarrean dagoen zigor-erregulazioaren oinarri diren lege-testuetatik. Ildo horretan, Auzitegi Gorenak honako hau ezarri du berriki emandako Epai batean: "*Indarkeria erabiltzea edozein testuingurutan arbuigarria da, eta bikote-harremanean bada, genero-*

¹²⁹ AKE (Osoko Bilkura Aretoa) 59/2008 zk., maiatzaren 14koa, RTC 2008\59

indarkeria izango da gizonak emakumeari eraso egiten badio, eta etxekoa alderantziz denean"¹³⁰.

Erasotzailearen eta biktimaren artean egon behar duen lotura bereziari dagokionez, xedapenek bien artean ezkontza-harreman bat edo "antzeko afektibitate-harreman bat" egon behar duela edo iraganean egon izan behar duela eskatzen dute.

Ildo horretan, jurisprudentziak honakoa interpretatu du: "*Harreman afektibo, sentimental edo bikote-harreman oro ezin da ezkontzaren antzekotzat jo*". Auzitegi Gorenarentzat ezinbestekoa da gutxieneko egonkortasun bat eta egoera zertxobait finkatua egotea¹³¹. Horrez gain, interpretatu du "*antzeko afektibitate-harreman bat*" bezala har daitezkeela: "*bikote harreman jakin batzuk, betiere egonkortasun-bokazio nabarmena badago ... noizean behin edo puntualki elkartzearekin nahikoa ez delarik*"¹³². Era berean, xedapenek ezartzen duten bezala, ez da beharrezkoa erasotzailearen eta biktimaren artean elkarbizitza egon izana.

Legegileak delitu berezi horiek aplikatzeko ezarritako betekizunak kontuan hartuta, uler daiteke presuntzio bat ezartzen duela gizonak bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aurka eragindako indarkeria oro genero-indarkeria denaren inguruan, tipoetan ez baita beste baldintza berezirik eskatzen hauek aplikatu ahal izateko.

Presuntzio hori jurisprudenzian eta doktrinan asko eztabaidatu izan da, bereziki eraso arinen edo noizbehinkako tratu txarren inguruan (ZKren 153, 171.4 eta 172.2 artikulua). Horren erakusgarri da Auzitegi Gorenak urte luzez jarrera desberdinak mantendu izan dituela gai honen inguruan.

Epai batzuetan, Auzitegi Gorenak gizonak bikotearen edo bikotekide ohiaren aurka eragindako indarkerian, noizbehinkako tratu txarren delitua aplikatzeko (ZK ko 153 artikulua) Zigor Kodean aurreikusia ez zegoen elementu subjektibo bat frogatzea eskatzen zuen, gizonaren partetik emakumearekiko nagusitasun eta diskriminazio asmo

¹³⁰ AGE (Zigor Aretoa, 1 Atala) 217/209 zk., apirilaren 25ekoa, RJ\2019\1835

¹³¹ AGE (Zigor Aretoa, 1 Atala) 1348/2011 zk., abenduaren 14koa, RJ 2012\3357

¹³² AGE (Zigor Aretoa, 1 Atala) 697/2017 zk., urriaren 25ekoa, RJ 2017\4785

batean zetzana¹³³, emakumearentzat lesio arina eragiten zuen indarkeria oro automatikoki genero indarkeriatzat hartu ezin zitekeela adieraziz.

Beste Epai batzuetan aldiz, ikuspegi objektiboago batetik, portaera eraso matxisten testuinguruan gertatzea edo ekintza oldarkorrak "*azpikultura matxistaren konnotazioak*" izatea eskatzen zen¹³⁴.

Beste batzuetan, ordea, Zigor Kodearen 153.1 artikulua automatikoki aplikagarritzat jo zen, inolako asmorik edo testuingururik ikertu gabe¹³⁵.

Konstituzio Auzitegiak, bere aldetik, 2008. urtean¹³⁶ 153. artikulua konstituzionaltasunari buruzko ebazpena eman zuen lehen aldiz, eta xedapena Konstituzioaren araberakoa zela ebatzi zuen, aurreikusita ez zegoen intentzionalitate edo asmo berezien inguruko elementu objektibo edo subjektiboen beharrik gabe. Hala eta guztiz ere, 153. artikulua aplikatu ahal izateko gizonaren jokabidea objektiboki emakumeren menderatze eta diskriminazioaren adierazle izatea ezinbestekoa zela adierazi zuen, kasu horretan soilik egongo bailitzateke delitu bereziaren aplikazioa justifikatuko lukeen arrazoia, tipoa jasotako gainontzeko elementu guztiak betetzen ziren kasuan.

2014an, Auzitegi Gorenaren jarrera finkatuta geratu zen abenduaren 26ko 856/2014 Epaiaren¹³⁷ bidez. Ebazpen horretan, baztertu egin zen intentzionalitate edo asmo berezien inguruko eskakizun oro, 153 artikulua aplikatu ahal izateko nahikotzat jo zuelarik "*erasoa emakumearen gitxiagotasunaren inguruko kultura- edo gizarte-*

¹³³ AGE (Zigor Aretoa, 1 Atala) 58/2008 zk., urtarrilaren 25ekoa, RJ 2008\1563

¹³⁴ AGE (Zigor Aretoa, 1 Atala) 1177/2009 zk., azaroaren 24koa, RJ 2010\124; AGA (Zigor Aretoa, 1 Atala) uztailaren 31koa, JUR 2013\304385

¹³⁵ AGE (Zigor Aretoa, 1 Atala) 370/2009 zk., apirilare 6koa, RJ 2009\4833; AGE (Zigor Aretoa, 1 Atala) 703/2010 zk., uztailaren 15ekoa RJ 2010\7352; AGE (Zigor Aretoa, 1 Atala) 807/2010 zk., irailaren 30ekoa, RJ 2010\7656

¹³⁶ AKE (Osoko Bilkura) 59/2008 zk., maiatzaren 14koa, RTC 2008\59 AGE (Zigor Aretoa, 1 Atala) 856/2014 zk., abenduaren 26koa, RJ 2015\89

¹³⁷ AGE (Zigor Aretoa, 1 Atala) 856/2014 zk., abenduaren 26koa, RJ 2015\89

esparruetan ezarritako ikusmolde gaitzesgarri baten testuinguruan kokatzen dela ". frogatzearekin.

Hala ere, Auzitegi Gorena are urrunago joan zen epai horretan, eta honako hau ezarri zuen: *"Erasoa sozialki errotuta egon den ikuskera horretatik guztiz kanpo dagoela edo faktore desberdinen ondorio izan dela adierazten duten frogak daudenean soilik ez da oinarririk egongo bereizketa penologikorako, eta jokabide hori tipo subsidiarioen bidez zigortu beharko da, zeinetan biktima emakumea izateak ez duen larriagotze titulu bat suposatzen. Baina hasiera batean, testuinguru-esparru horretako per se eraso bat, froga berezirik behar izan gabe, legegile penalak desagerrarazi edo, gutxienez, gaitzetsi nahi duen ikuskerarekin lotuta dago "*.

Hori dela eta, esan daiteke Auzitegi Gorenak *iuris tantum* presuntzioa ezarri duela, kontrakoa frogatzen ez den heinean, gizonak bere bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aurka eragindako indarkerian genero arrazoiegatiko diskriminazioa inplizitua dagoela ulertuz. Beraz, kasu zehatz batean inguruabar horiek falta direla frogatzen denean soilik utziko zaio ZKren 153. artikulua aplikatzeari. Hortaz, salbuespenaren bidetik soilik ulertu ahal izango da inguruabar horiek falta direla.

Zentzu berean argudiatu zuen Auzitegi Gorenak abenduaren 20ko 677/2018 Epaian¹³⁸; bikote baten arteko liskar batean, gizonari Zigor Kodearen 153.1 artikulua aplikatu zatzaiolarik, eta 147.2 artikulua berriz emakumeari. Halaber, 153. artikuluko delitua aplikatu zitzaion Valladolideko taberna bateko zoruan erdi konorterik gabe zegoen bikotekidea "suspertzeko asmoz" honi hainbat zaplazteko eman zizkion gizon bati¹³⁹.

Ohiko tratu txarren delituaren kasuan presuntzio hau ez da horren eztabaidatua izan; izan ere, artikulua aurreikusten duen portaera genero-indarkeriaren adierazpen

¹³⁸ AGE (Zigor Aretoa, 1 Atala) 677/2018 zk., abenduaren 20koa, RJ\2018\5819

¹³⁹ AGE (Zigor Aretoa, 1 Atala) 217/2019 zk., apirilaren 25ekoa, RJ\2019\1835. Epai honetan, Auzitegi Gorenak ebazten du erabilitako indarkeria, erasoaren testuingurua eta intentsitatea kontuan hartuta, eraso ezin dela inongo kasuan justifikatutzat jo, ezta ere, ondorioz, bikotekidea suspertzeko asmoz jardutearen arrazoi batengatik. *"Auzitegi Gorenako Areto honek ezin dio babesik emango frogatutzat eman den portaera bikotekidea suspertzeko metodo gisa aurrera eraman zenaren justifikazioari, interpretazio hori neurrigabea eta irrazionala delako, 153. artikuluko tipo penalean aurreikusita dagoen portaera bat den heinean aurrera eraman behar ez zen aldetik .*

garbientako bat da, ia ezinezkoa delarik testuinguru matxista batetatik edo etxeke indarkeriaren fenomenotik bereiztea.

3.3. GENERO-ARRAZOIENGATIK GORROTO-DELITUAK

Generoari lotutako diskriminazio-arrazoia ZKren 510. artikuluko gorrotoa eragiteagatiko delituan eta ZKren 22.4 artikuluko diskriminazio-inguruabar astungarrian aurreikusi denetik, xedapen horiek indarkeria matxista kasuetan ere aplika daitezke.

Stricto sensu genero-indarkeria delitutzat identifikatutako xedapenen aplikazio-eremua aztertu ondoren, orain berriki genero-ikuspegia txertatu duten xedapenak aztertzeari ekingo zaio, zein kasutan aplikatu daitezkeen zehaztuz.

Genero arrazoietan oinarritutako **gorrotoa eragiteagatiko delituaren** aplikazio-eremua (ZKren 510. artikulua) inguruabar astungarriarena baino argiagoa da, genero-indarkeriaren ikuspegitik kontuan hartu ez diren kasuak barne hartzen baititu, hala nola gorroto-diskurtsoa. Delitu hau adibidez, emakumeen aurkako gorroto-eduki diskriminatzailea duten adierazpenak jendaurrean agertzea zigortzeko erabili izan da¹⁴⁰.

Aitzitik, genero arrazoietan oinarritutako **diskriminazioaren inguruabar astungarriaren** aplikazio-eremua (ZKren 22.4 artikulua) gatazkatsuagoa da, erantzukizun kriminalaren inguruabar aldarazle bat den heinean, edozein deliturentzat aurreikusitako zigorra astuntzen duen aldetik. Beraz, bere aplikazio-eremua mugatzea zailagoa da, ez soilik aplikazio eremu zabalago bat duelako, baita gure zigor-legerian oinarri beraren pean astundutako delitu-figura bereziak ditugulako ere, ondoren ikusiko dugun bezala. Beraz, jurisprudentziara jo beharra dago, aipatutako xedapena zein kasutan aplika daitekeen ulertzeko.

Lehenik eta behin, genero astungarriaren aplikazio eremua zehazte aldera, kontuan hartu beharra dago *stricto sensu* genero-indarkeriatzat hartutako delituak 1/2004 Lege Organikoaren logika jarraitzen dutela, haien aplikazio-eremua bikotearen edo

¹⁴⁰ AGE (Zigor Aretoa, 1 Atala) 72/2018 zk., otsailaren 9koa, RJ 2018\420

bikotekide ohiaren harremanetara mugatu delarik. Auzitegi Gorenak, ordea, Istanbulgo Hitzarmenean ezarritako definizioan oinarrituta interpretatu du genero-astungarria, eta "*Emakume izate hutsagatik aurrera eramandako, menderatze-ondorioak dituen emakumearen aurkako edozein erasoren aurrean*"¹⁴¹ aplikagarria dela adierazi du. Ildo horretan, Auzitegi Gorenak zehaztu duenez, "*Sexu-askatasunaren aurkako erasoak astungarria bikote harremanetik kanpo aplikatzeko aukera ematen duten supostuen adibide argia dira*"¹⁴².

Genero astungarria aplikatzeko eskatzen diren gainerako betekizunei dagokienez, esan daiteke gainontzean Auzitegi Gorenak ZKren 153. artikulua interpretazio-ildoarekin jarraitu duela, ez baita erasotzailearen partetik emakumea menderatzeko asmoaren inguruko elementu subjektiborik eskatzen. Hala ere, astungarri generikoa aplikagarritzat jotzeko, beharrezkoa izango da "*Lehen aipatutako tipo penaletan aurreikusitako portaera gertatzea, frogatutako portaera hori diskriminazio konkretuaren adierazpen objektibo gisa ulertu daitekeelarik. Eta subjektiboei dagokienez, nahikoa izango da egoera horren kontzientzia izatea, delitua aurrera eramateko borondatearekin batera*". "*Baliteke erasotzailea ez ohartzea jokabide patriarkala eta matxista duela. Garrantzitsuena da erasotzailea eta biktimaren harremanaren testuingurua dela eta eraso mota jakin batzuk diskriminazioa eragiten dutela, eta beraz, gertatzen direnean, egoera horren adierazpen direla*"¹⁴³.

ZKren 153. Artikulua inguruan egindako interpretazioan ez bezala, ez da *iuris tantum* presuntziorik ezarri genero astungarriaren inguruan. Beraz, aplikatu ahal izateko, beharrezkoa izango da kasuz kasu menderatze-egoera bat edo gizonaren eta emakumearen artean harremana asimetrikoa dagoela frogatzea, eta egiaztatzea gizona egoera horren jakitun izanik delitua aurrera eraman zuela desberdintasun eta diskriminazio horren adierazpen gisa.

¹⁴¹ AGE (Zigor Aretoa, 1 Atala) 565/2018 zk., azaroaren 19koa, RJ\2018\4957

¹⁴² AGE (Zigor Aretoa, 1 Atala) 452/2019 zk., urriaren 8koa, RJ 2019\4020

¹⁴³ AGE (Zigor Aretoa, 1 Atala) 99/2019 zk., otsailaren 26koa, RJ\2019\826

Genero-astungarri berri honen eta gure Zigor Kodean aurrez jada genero ikuspegia txertaturik zuten delituen artean egon daitezkeen **bateragarritasun-arazoei** dagokienez, lehenik eta behin aipatu beharra dago indarrean dagoen ordenamenduak debekatu egiten duela, *non bis in ídem* printzipioaren baitan, subjektu bat oinarri berarekin behin baino gehiagotan zigortzea. Beraz, erantzukizun kriminalaren aldarazle diren inguruabarrak ezingo dira aplikatu delitua osatzean oinarri hori bera kontuan hartu izan bada, ezta delituak barne biltzen duenean ere; hau da, oinarri hori eman ezean delitu hori gertatu ezin denean (ZKren 67, inherentzia printzipioa).

Stricto sensu genero indarkeria delitutzat hartu ditugun xedapen horien kasuan, jada genero-ikuspegia jasotzen duten aldetik, ezin zaie generoaren inguruabar astungarria aplikatu, kasu horretan, oinarri bera (osagai matxista) bi aldiz kontuan hartuko bailitzateke¹⁴⁴.

Ondorioz, ZKren 22.4 artikuluko astungarria genero-ikuspegia kontuan hartuz larriagotu ez diren delitu espezifikoekin zigortuta ez dauden indarkeriazko ekintzen kasuan aplikatu ahal izango da soilik, edo, genero-ikuspegia kontuan hartzen duen delitu espezifikoa bat egon arren, hura aplikatu ezin denean, biktimaren eta erasotzailearen artean bikotekide- edo bikote ohi- harremanik ez dagoelako.

Era berean, gure ordenamendu juridikoan badago genero-indarkeriako kasuei aplikatu daitezkeen erantzukizun kriminalaren beste inguruabar aldarazle bat: ahaidetasunaren inguruabar aldarazlea (ZK 23. artikulua)¹⁴⁵. Inguruabar hori, astungarri gisa, erasotzailearen eta biktimaren arteko familia-lotura dela-eta aplikatzen da, baldin eta aipatutako artikuluan aurreikusitako loturak baldin badaude sujetu pasibo eta aktiboen artean.

Auzitegi Gorenak bi inguruabar aldarazle horiek bateragarriak direla ebatzi du, funts desberdinetan oinarritzen direla argudiatuz. Ahaidetasun-inguruabarra

¹⁴⁴ AGE (Zigor Aretoa, 1 Atala) 99/2019 zk., otsailaren 26koa, RJ 2019\826.

¹⁴⁵ ZK-ko 23. artikulua ondorengo dio: “Erantzukizuna arindu edo astundu ahal duen inguruabarra da, delituaren izaera, zio eta ondoreen arabera, laidotua ofentsagilearen ezkontidea, ezkontide izandakoa edo antzeko maitasun-harremanez harekin egonkor loturik dagoen edo egon den pertsona izatea; edota, odol nahiz adopzio bidezko ahaidetasuna dela medio, ofentsagilearen nahiz horren ezkontidearen edo harekin bizi denaren aurreko, ondorengo, neba edo arreba izatea.”

erasotzailearen eta biktimaren arteko loturagatik aplikatzen da, eta genero-arrazoiengatik astungarria, berriz, delitua aurrera eramatean subjektu aktiboak duen asmoa edo intentziora (arrazoi matxista) kontuan hartuta, edo, gutxienez, portaeraren kaltegarritasun handiagoa aintzat hartuz, genero-desberdintasun estrukturalaren adierazpen delarik, emakumeak pertsona gisa duen duintasunari erasotzen diona¹⁴⁶.

Beraz, interpretazio horren arabera, testuinguru matxista baten barruan, gizon batek sexu-erasoa egiten badiu inolako ahaidetasun-harremanik ez duen emakume bati, genero-arrazoiengatik astungarria baino ez da aplikatuko. Bestalde, gizon batek bere emazteari testuinguru matxista beraren baitan sexu-erasoa egiten badiu, bi inguruabar aldarazleak aplikatuko dira. Hala ere, inguruabar aldarazle hauek portaera genero-indarkeriako delitu espezifikoaren bidez zigortuta ez dagoen heinean aplikatu ahal izango dira soilik; izan ere gainontzeko kasuetan *non bis in idem* debekua urratuko balitzateke.

Era berean, *non bis in idem* printzipioak gorrotoa eragiteagatik delituari (ZKko 510 artikulua) genero astungarria aplikatzea debekatzen du, baldin eta 510. artikuluko delituaren aplikazioa generoaren diskriminazio arrazoian oinarritu bada.

Bestalde, sexuaren arrazoi diskriminatzailean oinarritutako astungarriari dagokionez, pertsonaren egoera biologiko edo fisiologikoagatik diskriminaziozko gorroto-testuinguruekin identifikatu izan da. Horrez gain Probintzia Auzitegi mailan, gizona izateagatik zein emakumea izateagatik diskriminazioa barne hartzen duela interpretatu izan da¹⁴⁷.

DIAZ LOPEZ autoreak misoginiak eragindako delituekin lotu izan du sexuan oinarritutako diskriminazio astungarria. Horren harira, egileak argitu du: "*Posible da subjektu matxista batek sexu jazarpena egitea emakume bati. Emakumeak sakonki gorrotatzen dituen subjektu batek, ordea, ez du, normalean, haiekin sexu harremanik izan nahiko: subjektu misoginoak eraso egin diezaieke, baina ez ditu sexualki jazarriko, sexu*

¹⁴⁶ AGE (Zigor Aretoa, 1 Atala) 707/2018 zk, urtarrilaren 15koa, RJ 2019\64; AGE (Zigor Aretoa, 1 Atala) 565/2018 zk., azaroaren 19koa STS, RJ\2018\4957

¹⁴⁷ Valentziako JANE, (Areto Zibila eta Penala, 1 Atala), 72/2018zk., ekainaren 29koa, JUR 2018\185316

arrazoiengatik egingo du"¹⁴⁸. Adibide gisa sexuari lotutako diskriminazio astungarria " *haurdun dauden emakumeak gorroto dituelako, haurdun dagoen emakume baten aurka delitua egin duela esaten duenari,* " aplikatu ahal izango zaiola gaineratzen du.

Hala ere, beste doktrina-sektore batek sexuaren zein generoaren inguruko diskriminazio arrazoiak gaitzespenean bat datozela irizten du. Ildo horretan, MAQUEDA ABREU autoreak ondorioztatzen du "*sexuak ez duela errealitate biologiko gisa jarduten, generoari erreferentzia bat egiten diola baizik, izan ere, generoa da espazioak eraikitze eta esleitzeko duen ahalmenari esker, emakumeak mendekotasun posizio horretara eramaten dituena, eta, beraz, esan liteke elkarrekin, sexua eta generoa gauza bera adierazten ari direla*"¹⁴⁹.

Azkenik, genero-indarkeriako delituez eta gorroto-delituez gain, badira beste batzuk, definizioz genero-ikuspeirik ez badute ere, eta aplikaziorako subjektu pasiboak eta aktiboak buruzko baldintza berezirik eskatzen ez badute ere, genero arrazoiegatiko diskriminazioa bere oinarrian edo izaeran dutenak. Hori izan liteke ezkontza behartuen, genitalen mutilazioaren, gizakien salerosketaren eta sexu askatasunaren aurkako delituen kasua.

Ildo horretan, doktrinan eztabaidatu izan da delitu horiei genero-astungarria aplikatzeak *non bis in idem* printzipioa urratzea dakarren edo ez, hori baita delituak barne biltzen duen astunetaren oinarria. Hala ere, jurisprudentziak oraindik ez du gai honen inguruan ebatzi.

3.4. GENERO-INDARKERIA AUTONOMIA-EREMUAN ARAUTZEA

Zigor-legeria Estatuaren eskumen eksklusiboa da (Espainiako Konstituzioaren 149.1.6 artikulua), eta, beraz, autonomia-erkidegoek ezin dituzte delituak tipifikatu, ezta horiei dagozkien zigorrak ere.

¹⁴⁸ DÍAZ LÓPEZ, J.A., *El odio discriminatorio como agravante penal: sentido y alcance del artículo 22.4.ª CP*, Civitas, Madrid, 2013, 298 or.

¹⁴⁹ MAQUEDA ABREU, M. L., "¿Necesitan un móvil discriminatorio... op. cit., 713 or.

Hala eta guztiz ere, genero-indarkeriaren arloan beste ikuspegi batetatik arautu dute: biktimentzat hainbat eskubide aitortuz gizarte-laguntzaren, laguntza psikologikoaren, ekonomikoaren, juridikoaren, sanitarioaren eta abarren arloan, eta genero-indarkeria desagerrarazteko helburuarekin zenbait betebeharrak ezarriz botere publikoari eta titulartasun publikoko erakundeei.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea da tresna arautzaile nagusia. Lege horrek "*emakumeen aurkako indarkeria*" jorratzen du III. tituluko VII. kapituluan. Horrez gain, emakumeen aurkako indarkeriaren definizio propioa ezartzen du, honela deskribatzen duelarik: "*Sexua arrazoi izanik aurrera eramandako edozein ekintza bortitz, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua eragiten badio edo ekar badiezaioke, ekintza horiek burutzeko mehatxuak, hertsapena edo askatasun-gabetze arbitrarioa barne harturik, bizitza publikoan edo pribatuan gertaturik*". Esan daiteke, ondorioz, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak ezarritako definizioaren esparrua zabaltzen duela.

VII. kapitulu honen lehenengo atalean, administrazio publikoari zenbait betebeharrak ezartzen zaizkio genero-indarkeriaren arloko ikerketari, prebentzioari eta prestakuntzari buruzkoak.

Bigarren atalean, etxeko tratatu txarren eta sexu-erasoen biktimentzako arreta- eta babes-neurriak garatzen dira, hala nola: polizia-babesa, aholkularitza juridikoa, laguntza psikologikoa, harrera-pisuak eta larrialdietarako zerbitzuak sortzea, prestazio ekonomikoak, etxebizitzari buruzko eskubide bereziak, laneratzea eta hezkuntza-esparruaren ingurukoak etab¹⁵⁰.

Halaber, IV. kapituluko III. tituluko 43. artikuluan, jazarpen sexista desagerrarazteko neurriak ezartzen dira, eta biktimei "*laguntza juridiko eta psikologiko*

¹⁵⁰ Espainiako Gobernuko Berdintasun Ministerioaren enkarguz egindako "Genero Indarkeriari buruzko Legedi Autonomikoaren Analisia" txostenean Autonomia-Erkidegoek materia honetan abian jarritako ekintza eta ekimen zehatzak jasotzen dira. Txosten hau Berdintasun Ministerioaren webgunean argitaratuta dago:
http://www.violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/estudios/colecciones/pdf/libro5_analisislegislacion.pdf

berehalakoa, doakoa, espezializatua, deszentralizatua eta eskuragarria" bermatzeko betebeharra ezartzen da.

VII. kapituluko 62. artikuluan, bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak gainerako euskal administrazio publikoekin eta arlo horretan eskumenak dituzten gainerako erakundeekin lankidetzaz-hitzarmenak izenpetzea bultzatzeko betebeharra jasotzen da, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean modu koordinatuan eta eraginkorrean jardun ahal izateko.

Ildo horretan, erakunde edo administrazio publikoen arteko jarduketa- edo koordinazio-protokoloak egin dira, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko Legea eta Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Agindua eraginkorrak izan daitezen¹⁵¹.

Azkenik, aipatu beharra dago 2020ko urtarrilaren 28an Gobernu Kontseiluak arau horren bigarren aldatetaren lege-proiektua onartu zuela.¹⁵²

